Argudiatu genezakeenez, hondakinak prebenitzeko xede batek eta hondakinak birziklatzeko xede batek elkarrekin jardunez gero, antzeko emaitzak lor litezke; agian, hobeak. Alabaina, prebentzio xedeak ez dira ezartzeko errazak (bereziki, datuak kalitate handikoak ez direnean), eta, gainera, baliteke xedeak tokiko agintaritzen artean desberdinu behar izatea gaur egungo emaitzen arabera. Errefusa frakzioaren helburuak, nolabait, bidezkoagoak dira toki agintaritza moten artean. Pisuetan bizi diren biztanleek landa eremuetakoek baino hondakin gutxiago sortzen dute; bereziki, lorezaintzako hondakinei dagokienez. Lorezaintzako hondakinak biltzen direnean, agintaritzek hondakin gehiago bil ditzakete, baina nahiko erraz lor litezke birziklapen tasa altuak.

Bestelako neurri batzuetan oinarritu da xedeen lorpena, hondakinak kudeatzeko agentzia flandriarrak (OVAM) bilketa zerbitzuetarako arauak ezarri baititu, eta laguntza programak eskaini baitizkie udalerriei. Ekoizlearen erantzukizuneko araubide belgikarrek finantza arloan ere babesten dituzte udalerriek ontziak birziklatze aldera biltzeko egiten dituzten ahaleginak. Bestetik, Flandriak zabortegeien arloko zerga altu samar bat eta errausketaren arloko zerga baxuago bat zituen indarrean; horrek garestitu egiten zuen hondakinen kudeaketa eta hondakinen prebentzioa eta hondakinok berrerabiltzeko prestaketa eta birziklapena sustatzen zituen. Zabortegei zerga ezarri ondoren, zabortegeiak debekatu zituzten. Laburbilduz, xedea bera ez zen helburuak lortzeko mekanismo bakarra; hobeto esanda, neurrien konbinaketa erabakigarria izan zen xedea betetzea lortzeko.

**Errefusa
frakzioaren
xedeak –
Italia⁹**

Italiako Emilia Romagna eskualdean biztanle bakoitzak urtean 150 kg errefusa frakzio sortzeko gehieneko xedea dago, eta, Piamonten (Turin hor barruan sartzen da, 5 milioi biztanle ingururekin), urtean biztanle bakoitzak 159 kg sortzeko xedea ezarri dute. Contarina barrutian, errefusa frakzioaren eratorriak baxuak dira dagoeneko (50 kg biztanleko eta urteko; 80.000 biztanle dituen Treviso hiriburuan, berriz, 80 kg biztanleko eta urteko), eta biztanleko eta urteko 10 kg sortzeko xede handizalea ezarri dute 2023ari begira.

⁹ https://ec.europa.eu/environment/eir/pdf/report_it_en.pdf

2.2 Eskaini beharreko gutxienerako zerbitzuak

2-2 taulan ikus daitezke Flandriako udalerrietarako ezartzen diren gutxienerako arauak. Etxeko hondakinen askotariko frakzioak biltzeko gutxienerako maiztasunak eta metodoak gutxienerako betekizun absolutuak dira. Udallerriak eta udalerrietako elkarteak (udalerrri kolaboratzaileak) dira betekizun horiek ezartzeko arduradunak. Nolabaiteko desbideratzea onartzen da; adibidez, ontzien kasuan, FOST Plusek (ekoizlearen erantzukizuneko antolakundea da, Belgikan ontziez arduratzen dena) abiatu duen proiektu pilotu berritzaile baten testuinguruan, edo bestelako materialen kasuan, OVAMek (Flandriako Hondakinen Agentzia Publikoak) onarpena ematen badu.

Zerbitzuaren gutxienerako estandarrak betetzeaz gain, OVAMek biltzen diren materialen kalitatea hobetu nahi du. Honako xede hauek ezarri dituzte birziklatzeko betekizunak betetzen dituzten hondakin frakzioek ahalik eta kutsatzaile gutxienera edukitzea bermatzeko. Honako hauek dira:

1. % 3ko gehienekoa VFGren hondakinetarako (Vegetables, Fruits and Gardening; euskaraz, barazkien eta fruten hondakinak eta lorategiko hondarrak), hondakin berdeetarako eta paper nahiz kartoi hondakinetarako;
2. % 5eko gehienekoa egurraren eta beiraren hondakinetarako;
3. % 15eko gehienekoa eraikuntza eta eraipen hondakinetarako, eta % 5-15eko gehienekoa ehunen hondakinetarako.

Gutxienerako betekizuna k-Flandria¹⁰

Oso ikuspegi gomendagarria da. Zerbitzu betekizun hori gutxienerako estandarretan oinarritu liteke birziklatzeko material bilketa handiak egiteko asmoa duten zerbitzuetarako, eta bilketa metodo zehatza ez da zertan aginduzkoa izan (esaterako, erabilitako ibilgailuei dagokienez). Ezpurutasunetarako helburuak ere zentzuzkoak direla dirudi eta, beraz, zerbitzu txar baten ondorioz gaizki sailkatutako hondakin kopuru handiek edo material birziklagarriaren bilketa txikiak ez dute eraginik materialak berezita biltzeko betekizunearan. Zerbitzuaren zehaztapenak, hortaz, honako hauek bilatu behar ditu:

1. Material kopuru handiak biltzen direla ziurtatzea,
2. bildutako materialen kalitatea bermatzea eta
3. berrikuntzari bide ematea, erabiltzen den bilketa metodoaren inguruan agindu gehiegi eman gabe.

Arau hori Flandrian arrakasta handia izan duen hondakin kudeaketarako politika sorta baten zati izan da eta, berari esker, birziklapen tasek % 50 egin zuten gora (% 10etik % 62ra) 10 urte inguruko aldi batean, hain zuzen ere, 1990eko hamarkadan.

1-2 TAULA: FLANDRIAKO ZERBITZU ARAUEN ADIBIDEA

Frakzioa	Gutxienerako bilketa metodoa	Bilketaren modalitatea	Gutxienerako maiztasun gomendatua
----------	------------------------------	------------------------	-----------------------------------

¹⁰ <https://www.no-burn.org/wp-content/uploads/ZW-Flanders.pdf>

Etxeko hondakinak	Atez ateko bilketa	Etxeko hondakinen edukiontzia edo zabor poltsak	Bi astetik behin, hiriguneak eta kostaldeko udalerrietako eremu turistikoak kenduta
Paper eta kartoi hondakinak	Atez ateko bilketa (Frakzio mistoa) eta bilketa garbiguneetan	Edukiontzia	Hilean behin
Beiraren hondakinak (beira kaskoak)	Beirarako edukiontziak - bi koloretako bereizketa edo atez ateko bilketa (garbiguneko bilketarekin konbinatuta)	Gutxienez, botilen edukiontzi bat 1.000 biztanleko (barrutiz barruti edo hurbil edo garbigunean)	Hilean behin
Ontzi arinak (plastikozko botilak, metalezko ontziak eta brikak)	Atez ateko bilketa (ziurrenik garbiguneko bilketarekin konbinatuta) edo garbigunea	Edukiontzia	2 aldiz hilabetean
Sukaldeko hondakinak	Atez ateko bilketa	Elikagai hondakinetarako edukiontziak edo poltsa konpostagarrietan	Astean bi aldiz
Lorategiko hondakinak	Atez ateko bilketa eta Garbigunea		Urtean lau aldiz, atez ateko bilketaren bidez. Landa eremuetan, eskaerapean
Lorategiko eta soropileko hondakinak	Garbigunea	Edukiontzia	
Ehunen hondakinak	Garbigunea eta atez ateko bilketa edo garbigunea eta bereizita jarritako edukiontziak	Edukiontziak, 1/1.000 biztanleko	Urtean lau aldiz, atez ateko bilketaren bidez
Tamaina handiko hondakinak	Garbiguneak eta atez ateko bilketa	Edukiontzia(k)	Urtean bi aldiz, atez ateko bilketaren bidez edo eskaerapean 4 aldiz eskaerapean 2010etik aurrera Urtean sei aldiz, atez ateko bilketaren bidez edo eskaerapean
Amiantoa duten eraikuntza eta	Garbigunea	Edukiontzia	

eraipean hondakinak			
Harri hondakin geldoak	Garbigunea	Edukiontzia	
Metalezko hondakinak)	Garbigunea	Edukiontzia	
Egurrezko hondakinak	Garbigunea	Edukiontzia	
Egurrezko enborrak	Konpostaje instalazioa edo garbigunea		
Hondakin arriskutsuak (frakzio guztiak) + xiringak	Garbigunea edo atez ateko bilketa edo barrutiz barrutiko bilketa	Hondakin arriskutsu txikiak	Urtean lau aldiz
Sendagaien hondakinak	Farmaziak		
GEEH	Garbigunea eta berrerabilpen zentroak	Onarpen irizpideekin bat	Onarpen irizpideekin bat
Ondasun berrerabilgarriak	Atez ateko bilketa eta berrerabilpen zentrorako garraioa (Seguruenik, garbigunera)		Eskaerapean

Iturria: OVAM (2008) Ingurumen aldetik arduratsuak diren etxeko hondakinei buruzko plana

Bilketa eredu – Gales

Hona hemen zerbitzu arau arrakastatsua izan dituen toki baten eredu: Galesen, bilketa zerbitzuen arauak ezarri zirenetik, herrialdeko toki agintaritzak guztiak % 50etik gorako udal birziklatze eta konpostatze tasak lortzen ari dira.¹¹ Gainera, 22 toki agintaritzetatik 19 % 60tik gorako tasara iritsi dira, eta bat % 70ean dago orain. 2010ean argitaratu zen Galesko Bilketa Plana eta, bertan, material birziklagarri lehorrak eta ibilgailu berean bildutako elikagai hondakinak astean behin biltzeko maiztasuna ezartzen da; halaber, edukiontzien bolumen txikiagoa ezartzen da, eta/edo errefus frakzioaren bilketa maiztasun txikiagoa. Horretaz gain, material birziklagarri lehorrak ibilgailuetan bilketan bertan sailkatu eta bereiztea eskatzen du ereduak; horren ondorioz, instalazio zentralizatuan sailkapen betekizun gutxiago ezartzen dira, eta birziklapena kalitate handikoa da.

Planak honako hauek jasotzen ditu:¹²

- Hondakin birziklagarri inorganikoen (frakzio lehorraren) astean behingo bilketa, espaloian.
- Gutxienez, honako material birziklagarri hauek bilduko dira: papera, kartoia, plastikozko botilak, lapikoak, terrinak eta erretiluak, metalezko latak eta txatarra txikia (adibidez, sukaldeko tresneria), aluminiozko papera, beirazko ontziak eta botilak.
- Elikagai hondakinen astean behingo bilketak,

¹¹ Welsh Assembly Government (2011) *Municipal Sector Plan Part 1 - Collections Blueprint*, <http://www.wrapcymru.org.uk/sites/files/wrap/Municipal%20Sector%20Plan%20Wales%20%20Collections%20Blueprint.pdf> <https://collectionsblueprint.wales/>


¹² Municipal Sector Plan Part 1, Collection Blueprint (2011)

- errefus frakziorako edukiontzien edukieraren murrizketa edo mugaketak poltsa kopuruan, eta
- errefus frakzioa biltzeko maiztasun murriztuak.

Galesko toki agintaritzek ez dute ikuspegi hori zertan bete; hala ere, nolabaiteko presioa egiten zaie toki agintaritzei finantzazio korrante batzuk jasotzeko aukeraren bidez. Gainera, Galesko toki agintaritzek sistema alternatiboak hautatzen badituzte, eskemak planaren errendimendu maila bera edo hobea eskainiko duela erakutsi beharko dute.

Araua 2010ean ezarri zen eta udalerrietako birziklapen tasek % 15 egin zuten gora 2015ean; orain, % 60tik gora daude. 2010ean, birziklapen tasak Ingalaterrakoen oso antzekoak ziren, baina han ez dago antzeko zerbitzu araurik; epealdi berean, Ingalaterran, udal hondakinen birziklatze tasa oso gutxi handitu da. Birziklapen tasa datozen urteetan Alemaniakoa gainditzeko bidean dago (2-2 taula).

2-2 TAULA: GALESKO BIRZIKLAPEN TASAREN IGOERA – ZERBITZU ESTANDARRA 2010ETIK



Trinkotasu n esparrua – Ingalaterra

13

Ingalaterran, trinkotasun esparru bat garatu da hondakinak biltzeko 350 agintaritzak baino gehiagoren artean nolabaiteko harmonizazioa sustatzeko. Eskualdetik eskualdera aldaketak egiteko aukeraren bat egon arren, elementu estandarizatu batzuk daude; hala nola, agintaritzak guztiek bereizita bildu behar dituzte elikagai hondakinak eta errefusa frakzioaren asteko gehieneko edukiontzi bolumena finkatuta dago (hondakinen bolumena murriztea pizgarri ona da, pertsonak “behar bezala” joka dezaten eta birziklapen zerbitzua erabil dezaten). Ikuspegi ingelesak badu arazorik, ordea; izan ere, harmonizazioa borondatezkoa da. Oraindik orain, toki agintaritzak

¹³https://consult.defra.gov.uk/environmental-quality/consultation-on-consistency-in-household-and-busin/supporting_documents/recycleconsistencyconsultdoc.pdf

ugarik ez dituzte elikagai hondakinak bereizita biltzen eta horrek horrela jarraitu bitartean, litekeena da birziklapen tasa ingelesek gaur egungo tasak gainditzeko arazoak izatea.

- Ingalaterrako zerbitzu arauen adibidea



Garbiguneak edo baliokideak dituzten herrialdeetan ez da arraroa sortzen diren hondakinen % 15 inguru instalazio horietan jasotzea. Eremu horiek langile kopuru egokiak dituztenean, materialak birziklatzeko eta berrerabiltzeko bereizketa tasa oso altuak lor daitezke (% 80tik gorakoak). Honako hauek izaten dira materialak, oro har: lurra eta eraikuntza proiektu txikietako hondakinak, lorategiko hondakinak, egurra, altzariak, GEEH handiak, tamaina handiko bestelakoak, metalezko gaiak, koltxoiak, alfonbrak eta bestelako ehunak.

Honako honek axola du: tokia ondo diseinatuta egotea, “topaketarako eta harrerarako” zerbitzuak onak izatea, berrerabilpen zentroa sarreran lehentasunezko toki batean egotea, birziklapenerako edukiontzia bigarren mailan egotea eta langile kopuru nahikoa egotea, benetako hondakinak bakarrik bideratu daitezken errefusa frakziora bidaiaren amaieran. Baliteke udalerrak espaloiko edukiontzien bilketa sistematik urrundu ahala, leku horiek garrantzitsuagoak izatea: gaizkien kudeatutako kasuetan, kalean errefusa frakziorako edukiontzia dituzten tokietan, gai horiek edukiontzien ondoan uzten dira askotan.

Herritarrei garbiguneak eskura jarri ahala, garrantzitsua izango da hondakinen bilketa bereizari egiten dioten ekarpena handitzen doazela ziurtatzea. Bestetik, dentsitatea zuzena bada, egokia izan liteke lorategiko hondakinak doan ez jasotzea eta lorategiko hondakinen etxeko konpostajea/garbiguneen erabilera sustatzea eta elikagai hondakinen maiztasun handiko bilketetan zentratzea (eta, seguru asko, zenbateko txiki baten truke lorategiko hondakinak biltzen dituzten zerbitzuak).

Garbiguneak eta baliokideak


3 TRESNA EKONOMIKOAK

3.1 Zabortegeien/errefusa frakzioaren gaineko zerga

Erresuma Batuan, 1997an zabortegeien gaineko zerga ezarri zutenetik errefusa frakzioaren gaineko zergak gora egin du. Aldi berean, isuritako hondakinen kopuruak behera egin du antzeko patroiarri jarraikiz. Zerga ez da izan lehenengo urteetan aldaketa sustatzen ari zen tresna bakarra, baina, 2010etik, bestelako tresna gutxi izan dute eragin handia merkatuan. Hortaz, azken urteetan egin diren aldaketa adierazgarrienak zergari egotz dakizkioke, 3-1 irudian ikus daitekeen bezala.

3-1 IRUDIA: ZABORTEGIEIEN GAINEKO ZERGAK ONDO FUNTZIONATZEN DUTEN MERKATUETAN IZANDAKO ERAGIN ARGIA

Zabortegeien gaineko zerga — Erresuma Batua¹⁴



Iturria: *Economia*

Hona hemen zabortegeien gaineko zergaren eraginkortasunari buruzko zenbait azterlan:

- ECOTEC (1998) *UK Landfill Tax Study, PART 2: Effectiveness of the Landfill Tax in the UK: Barriers to Increased Effectiveness and Options for the Future*: Txosten hori Europako Fundazioan aurkeztu zen bizi eta lan baldintzak hobetzeko https://friendsoftheearth.uk/sites/default/files/downloads/effectiveness_landfill_tax.pdf

¹⁴ <https://www.gov.uk/government/publications/rates-and-allowances-landfill-tax/landfill-tax-rates-from-1-april-2013>
<https://www.gov.uk/green-taxes-and-reliefs/landfill-tax>
<https://www.legislation.gov.uk/uksi/landfill%20tax?page=2>

- Institute for Environmental Studies (2005) *Effectiveness of Landfill Taxation*, Report for VROM, Nov 2005, http://www.ivm.vu.nl/en/Images/Effective_landfill_R05-05_tcm53-102678_tcm234-103947.pdf
- Institute for Environmental Studies (2009) *Economic Instruments and Waste Policies in the Netherlands: Inventory and Options for Extended Use*, report for the Dutch Ministry of Housing, Physical Planning and the Environment, March 2009, <https://core.ac.uk/download/pdf/15459698.pdf>

3.2 Biltegitratze, Itzulketa eta Itzulera Sistema (SDDR)

Biltegitratze-sistema – Norvegia¹⁵

Infinitumek gidatzen du Norvegiako sistema, eta “munduan, bilketa tasa handienak ditu ingurumen inpaktu eta kostu txikienarekin”. 2014an Infinitumek logistika sistema aldatu zuen, alderantzizko makina banatzaileetatik (ingelesez, RVM) zuzenean bidalitako gordailu datuetan oinarritzeko. Aurreko sistemarekin, bilketak eskatu egin behar izaten ziren; orain, RVMren estatistikak erabiltzen dituzte, bilketak noiz eta non beharko dituzten aurreikusteko. RVMtik lortutako datuekin, Infinitum bilketa ibilbide optimoak zehazteko gai izan da, edukiontzia gehieneko edukierara iristea nahiz erdi beteta dauden edukiontzien gehiegizko bilketa egitea saihesteko. Orain, alde aurretik dakite zein kamioi beharko dituzten.¹⁶

Itzulitako edukiontzi guztiak banaka erregistratzen dira eta, horrela, Infinitumek itzulitako botilei eta latei buruzko datu zehatzak bil ditzake eta itzulketa patrioiak ulertu. Hau da, itzulketaren bolumenek gorabeherak edukitzen dituztenean, gorabehera horiei aurre egiteko gaitasun handiagoa dute, eta bilketarako ordutegiak egokitu ditzakete; adibidez, Gabonetan eta udan bolumen handiagoak planifika ditzakete.¹⁷

Infinitumek gidatzen du berriro bete ezin daitezkeen botilak eta latak biltegitratzeko sistema. Iraganean, zenbait banatzailek berriro bete daitezkeen botilak erabiltzen zituzten, baina, 2012tik, berriro bete daitezkeen botiletatik behin bakarrik erabiltzekoetara igaro da Norvegia. Ondorioz, Infinitumek itzulketa bolumen sei aldiz handiagora egokitu behar izan zuen 2012tik 2015era. Bolumena handitu egin den arren, sistema modernizatuari eta datuei esker azken 3-4 urteetan garraio kostuak % 35 murriztea lortu duela jakinarazi du Infinitumek.¹⁸ Gainera, Infinitumek webgune bat sortu zuen txikizkako merkatariek poltsa eta etiketa gehiago eskatzeko eta RVMko ordainagiriak eskuratzeko. Horrenbestez, Norvegian 15.000 itzulketa gune badaude ere, Infinitumeko deien zentroak 30 eta 40 dei artean jasotzen ditu egunean.

Erakusbide ona da, esate baterako, sistema norvegiarrak manipulazio tarifa altuagoa ordaintzen diela alderantzizko makina banatzailea (SDDRaren botilak jasotzeko makina) duten txikizkariei. Makina horiek eragin ditzaketan efizientziak

¹⁵ <http://anker-andersen.dk/deposit-laws/norway.aspx>
<https://infinitum.no/english/the-deposit-system>

¹⁶ Infinitum 2014ko urteko txostena

¹⁷ Infinitum 2015eko urteko txostena

¹⁸ Kjell Olav Maldum Infinitum ASko zuzendari nagusiaren komunikazio pribatua.

islatzen ditu horrek, baita alderantzizko makina banatzaileetan oinarritutako sistema moderno baterantz aurrera egin nahi dutela ere.

3.3 Hondakinak sortzeagatiko ordainketa

PAYT (hondakinak sortzeagatiko ordainketa) – Flandria¹⁹

Hondakinak sortzeagatiko ordainketaren (PAYT, ingelesez) eskemak, oro har, hondakinen sorkuntza (zehazki, errefusa frakzioaren sorkuntza) murrizteko edo hondakinak etxean gehiago sailkatzeko premia edo nahia dagoenean sustatzen dira. Flandrian, esaterako, eskualdeko gobernuek erregulatzen dituzte –zati batean– PAYT eskemak; besteak beste, tokiko agintaritzek errefusa frakzioa biltzeagatik kobra ditzaketen gutxieneko eta gehieneko tarifak ezartzen dituzte gobernuok.²⁰ Flandria biztanle askoko eskualdea da eta hondakinen kudeaketarekin zuten arazo gero eta handiagoari aurre egiteko ezarri ziren PAYT neurriak. Bada, neurri horien artean dago, adibidez, zabortegei berriak ezartzeko debekua (1993), zeinak laguntza publikoa lortzen lagundu zien.

Eskualdeko ikuspegia edukitzeak ere PAYTerako babesa eskuratzen lagundu zuen, tokiko zenbait agintaritzak aldi berean ezarri ahal izan baitzuen sistema, eremu osoko harmonizazioa areagotuz horrela. Flandrian, PAYTek lotura handiak ditu beste zerga tresna batzuekin; hala nola, zabortegeien eta erraustegieen gaineko zergekin. Multzoan hartuta, merkatuan oinarritutako tresna sorta bat osatzen dute, hondakinak hobeto kudeatzea sustatzeari begirakoa.

Etxebizitza ugariko pisuak – Portugal

PAYTerako, halaber, erronka handia dira etxebizitza ugariko pisuak, edukiontziak komunitatean bertan egoten baitira normalean. Sistema horien proba baten ereduak ikus daiteke 3-4 irudian, Oportori (Portugal) dagokiona. Adibide horretan, etxebizitza bakoitzak txartel bat dauka eta txartel horren bidez bakarrik erabil ditzake birziklapenerako edo hondakinetarako edukiontziak. Ondoren, datuak kudeatzeko sistemak automatikoki fakturatu du etxebizitza bakoitza, errefusa frakziorako edukiontzia zenbat aldiz irekitzen duen kontuan hartuta.

¹⁹ http://www.regions4recycling.eu/upload/public/Good-Practices/GP_OVAM_PAYT.pdf

²⁰ Eunomia Research & Consulting and IEEP, *Pay-As-You-Throw schemes in the Benelux countries*, Report for the European Commission, June 2017.

3-4 IRUDIA: APARTAMENTU ANITZETAN PARTEKATZEN DIREN BILKETA SISTEMEN EDUKIONTZIETARAKO PAYT ESPEZIFIKO BATEN ADIBIDEA.



Iturria: Lipor

Etxeko konpostajea – Finlandia

Biohondakinak tratatzeko erabil litezkeen konpostaje instalazioen eskalari dagokionez, etxeko konpostajea susta liteke. Etxeko konpostajea sustatzeko doako konpostagailuak eman litezke eta komunikazio kanpainak egin, baina baita tresna ekonomikoak erabili ere. Finlandian, adibidez, etxebizitzak “etxeko konpostagailu” gisa erregistra daitezke, errefusa frakzioa biltzeko maiztasuna murrizteko betekizunak betetze aldera: merkeagoa da eta, beraz, dirua aurrezten da.

3.4 Elikagai-hondakinen bereizketa sustatzeko isunak – Milan²¹

Milango 1,3 milioi biztanleen % 80 baino gehiago eraikin altuetan bizi dela balioesten da²². Hondakinak kudeatzeko arazoak sortzen ditu horrek eta, azken bost urteetan, Milan arazok gainditzen saiatu da. Bilketa sistema berrian, etxeetako elikagai hondakinen bilketan egin zen aldaketa nagusia. 2012a baino lehen, elikagai hondakinak biltzeko sistema bat zegoen, baina merkataritza sektorean baino ez zen ezartzen jatetxe, supermerkatu, hotel eta eskoletarako.

Aurretik, birziklagarri lehorrak (edo inorganikoak) biltzeko sistema bat zegoen ezarrita, hurbileko edukiontzietan oinarritzen zena, eta, hain zuzen ere, eredu berria sistema horretan oinarritzen da. Izan ere, zerbitzu hori eraginkorra zela ikusi zuten, kalitateko birziklapena lortzeaz gain, errefusa frakzioko solidoak gutxitzen baititu. Hurbileko bilketa erabiltzaileen erosotasuna eta higiena kontuan hartzeko diseinatuta dago. Sistema berriaren barruan, etxebizitzek informazio liburuxkak, poltsa konpostagarriak, sukaldeko 10 litroko edukiontzi aireztatuak (banakako etxebizitzetarako eta pisuetarako) eta gurpildun 120 litroko edukiontziak (pisuen bloke osorako) jaso zituzten. Halaber, 35 litroko edukiontzia eskaini zen, eskaerapean emateko, eraikin altu txikienetarako.

Jabetzako administrariak/atezainak edo jabetzako garbiketaz zerbitzuak ateratzen ditu edukiontziak eta poltsak kalera, egun eta ordu zehatzetan (3-4 taula). Arrakastan giltzarritzat jotzen da jabetzako administrarien eginkizuna.

²¹ http://pocacito.eu/sites/default/files/FoodWasteRecycling_Milan.pdf
http://www.amsa.it/gruppo/cms/amsa/multilingua/documenti/differenziata_en.pdf
https://issuu.com/giorgioghiringhelli/docs/food_waste_recycling_the_case_study

²² <https://www.municipalwasteurope.eu/sites/default/files/6.Danilo%20Vismara.pdf>

Denborarekin bilketa sistema hobetu egin da eta, orain, goizetan egiten da.

Hiriaren erdigunean, 05:30ean hasten dira bilketa sistemak lanean, eta 08:00ak baino lehen amaitzen dira, pilaketak saihesteko.²³

Bilketa egin ostean, jabetzako administrarien lana da edukiontziak dagokion tokian uztea.²⁴

3-4 TAULA: HONDAKIN MOTA DESBERDINAK BILTZEKO MAIZTASUNA

Hondakin mota	Bilketaren maiztasuna
Errefusa frakzioa (poltsa gardena)	Astean bi aldiz
Kartoia	Astean bi aldiz
Organikoa (edukiontzi marroia)	Astean bi aldiz (etxekoa) Egunero (merkataritzakoa)

Plastikoak eta metalak (poltsa horiak)	Astean behin
Papera (edukiontzi zuria)	Astean behin
Beira (edukiontzi berdea)	Astean behin

Litekeena da arrakastaren faktore nagusia arauak ez betetzeagatiko isunei egozte. Adibidez, eraikin bakoitzeko 50 euroko isuna ezartzen da, zaborrontzia okerreko unean ateraz gero, elikagai hondakinen edukiontzian kutsadura plastikoa egonez gero edo errefusa frakziorako edukiontzian elikagai hondakinak egonez gero. Eraikineko administrariaren betebeharra da isuna egoiliarren artean nola banatzen den (erabileraren arabera) eta isuna nola ezartzen den zehaztea.

Milaneko hiriak 8 milioi euroko inbertsioa egin zuen hasieran, kamioietarako, edukiontzietarako eta promozio gastuetarako. Sistema berriarekin, dirua aurreztu da errefusa frakzioaren bilketak murriztu egin direlako (lehen, astean hiru aldiz egiten ziren) eta bilketa ibilbideen eraginkortasuna handitu egin delako. Milanek finantzatzen du hondakinen bilketa, eta AMSA hondakinen inguruko jabetza publikoko eskualdeko enpresak egiten du bilketa.²⁵ AMSA, bada, hondakinak tratamendu zentroetara garraiatzeko sistema bat diseinatu zuen, transferentzia estazioen sare baten bidez. Logistika horiek transferentzia denborak murrizten dituzte eta ibilgailuen erabilera optimizatzen.

Bilketa sistema berria oso arrakastatsua izan da eta 2015ean % 52,7ra igo zen birziklapen tasa; igoera handiena hondakin organikoen arloan gertatu zen (2011n, iturrian bereizitako materialen % 5 birziklatzen zen eta, 2015ean, % 19).^{26,27}

²³ https://issuu.com/giorgioghiringhelli/docs/food_waste_recycling_the_case_study

²⁴ <http://www.letsrecycle.com/news/latest-news/milan-lessons-from-a-large-city/>


²⁵ http://pocacito.eu/sites/default/files/FoodWasteRecycling_Milan.pdf

²⁶ http://www.amsa.it/gruppo/cms/amsa/multilingua/documenti/differenziata_en.pdf

²⁷ https://issuu.com/giorgioghiringhelli/docs/food_waste_recycling_the_case_study

3-4 GRAFIKOA: ASKOTARIKO MATERIALEN BIRZIKLAPEN TASAK (MILAN, 2012-2015)

	2012	2013	2014	2015
TOTAL MSW	666.418	649.838	665.641	668.158



4 LAGUNTZEKO NEURRIAK

4.1 Laguntza eta gaikuntza

<p>Elkarlaneko aldaketa programa – Gales</p>	<p>Galesen, elkarlaneko aldaketa programa banakako agintaritzetara irekita dago eta elkarlanari nahiz zerbitzuak emateko lankidetzari bide egiteko tresna giltzarritzat jo behar da.²⁸ Programaren xedea ez da agintaritzek xedea nola beteko dituzten zehaztea bakarrik, eraginkortasuna handitzeko ideia eta jarduera onen truke aktiboari laguntzeko helburua ere baduelako kostuak murriztu eta errendimendua hobetzeari dagokionez. Hor barruan ingurumenaren ikuspegitik jasangarriagoak diren zerbitzuak sartzen dira, inpaktu ekologiko eta karbono aztarna txikiagoak dituztenak. Halaber, finantzarioki jasangarriagoak diren zerbitzuak ere sartzen dira, zerbitzuak emateko kostu garbi txikiagoak dituztenak.</p> <p>EBren egiturazko funtsetatik lor liteke programa horietarako finantzazioa, estatu kideen operazio programetan sartuz gero.</p>
<p>Ekonomia planifikatzen o tresna sorta – Gales</p>	<p>Hona hemen Galesko udal hondakinen zerbitzuetarako enpresa arloko negozio planeko tresna sortaren helburuak eta funtsezko elementuak:</p> <p><i>Tresna multzo honek orientazio dokumentu bat eta zenbait txantilo jasotzen ditu eta metodologia bat proposatzen du Galesko toki agintaritzek hondakinak kudeatzeko negozio plan estrategikoak garatu ahal izan ditzaten. Tresna multzo hau Galesko Toki Gobernuaren Elkartearekin (WLGA), Galesko Gobernuarekin eta zenbait agintaritzarekin batera garatu eta onartu da. Tresna multzoak epe luzera begira bide argi bat zehazteko aukera ematen die tokiko agintariei, bai legezko birziklapen xedea (2024-2025erako, % 70ekoa) modu jasangarrian bete dezaten, bai hondakinak prebenitu eta berrerabiltzarekin, berrerabiltzeko prestatzarekin eta tratamendu eta deuseztapen jasangarriarekin lotuta dauden eta derrigorrezkoak ez diren helburuak bete ditzaten, Galesko hondakinen estrategiari (zero hondakin) buruzko dokumentu orokorrean deskribatzen den bezala.²⁹ Hortaz, hondakinak kudeatzeko negozio planak izango dira funtsezko ezarpen dokumentuak, Udal Plan Sektorialarekin batera.³⁰</i></p> <p><i>Aitortu denaren arabera, toki erakunde gehienek hondakinak kudeatzeko negozio plan bat daukate dagoeneko, era batekoa edo bestekoa. Hala ere, uste denez, honako ikuspegi honi modu zabalean jarraitzen dion negozio plan bat egiteak balio esanguratsua dauka:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Metodologia sendoa. Agintariek erraz konparatzeko moduko ikuspegiari helduko baliote, agintaritzen arteko ebaluazio

²⁸ http://gov.wales/topics/environmentcountryside/epq/waste_recycling/infrastructure/collaborative/?lang=en

²⁹ Welsh Assembly Government (2011) *Municipal Sector Plan - Part 1*, March 2011

http://wales.gov.uk/topics/environmentcountryside/epq/waste_recycling/publication/municipalsectorplan/?lang=en

³⁰ Welsh Assembly Government (2010) *Towards Zero Waste - The Overarching Waste Strategy Document for Wales*, June 2010,

http://wales.gov.uk/topics/environmentcountryside/epq/waste_recycling/zerowaste/?skip=1&lang=en

konparatibo handiagoa egin ahalko litzateke eta, hortaz, jarduera onak ikasi eta trukatzeko tarte handituko litzateke. Horrenbestez, sendotasun handiagoa bermatzeko esparru metodologikoa eta txantiloak ematen ditu tresna multzoak.

- **Ekintza eta ardura.** *Negozio plan horien helburua da ekintzak eta aldaketak planifikatzea, % 70eko birziklapen xedea betetzeko beharrezkoak diren neurrien barruan. Dokumentu biziak izan behar dira eta, beraz, ezarpenaren errealitateei erantzuteko gai izan behar dute.*
- **Xehea eta ordaindua.** *Negozio planek udal hondakinei begiratzen diete. Planak udal hondakinen kudeaketaren alderdi guztien estalduran integralak izatea da helburua, ikuspegi holistikoa ziurtatzeko. Negozio planek, halaber, inpaktu finantzarioak kontuan hartuko dituzte, 2045/25erako epera begira identifikatzen diren heinean.*
- **Ebidentzietan oinarrituta.** *Negozio planek justifikazio sendoa emango dute tokiko erakunde bakoitzak % 70eko birziklapen xedea eta funtsezko beste mugarri batzuk betetzeko hautatzen duen ikuspegi indibidualerako.*

Toki agintariek ez dute hondakinak kudeatzeko negozio planik zertan egin, baina biziki bultzatuko dituzte. Funtsean, honako printzipio giltzarri hauek negozio planen garapena gida dezatela espero da:

- *Hondakinak murrizteko, berrerabiltzeko prestatzeko eta birziklatzeko asmo handiko helburuak bete behar dira.*
- *Tokiko komunitateekin konpromiso handiagoa hartu behar da hondakinak prebenitzeko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko kontuetan.*
- *Beste toki erakunde batzuekin koordinatutako erantzuna eman behar da komunikazioetan, plangintzan eta zerbitzu ematean.*
- *Hondakinen kudeaketa zerbitzuak finantza mugen barruan eman behar dira.*
- *Estrategia orokor argi bat ezarri behar da, ekintza plan sendo eta oso zentratu bat eta Galesen garapen jasangarria errotzeko nahia bilduko dituena.*

4-1 TAULA: TRESNA SORTAREN PROZESUAREN LABURPENA

Tresnak	Tresnaren osagaiak		Azalpena
	Gida	Langileak	
Barne ebaluazio estrategikoa	✓	✓	<p>Egungo zerbitzuen ebaluazio kritikoa sustatzeko diseinatu da txantilo hori.</p> <p>Eguneroko eginkizunean "atzerapauso bat ematea" eskatzen zaie funtzionarioei, gaur egun zerbitzuak emateko dauden oinarrien inguruan hausnar dezaten.</p> <p>Galdera-sorta bati bai/ez erantzun ondoren, orientazioak egitasmo berrien, eskemen, kanpainen, zerbitzu konfigurazioen eta bilketa sistemen inguruan hausnartu eta eztabaidatzeko bidea irekitzen du.</p>
Zerbitzuaren gaineko ikuspegi orokorra	✓	✓	<p>% 70eko birziklapen xedea betetzeko asmoan, saihestezina da aldaketa ugari egitea. Zein aldaketa egin behar diren pentsatzean, askotan, egungo zerbitzua izango da abiapuntua.</p> <p>Beraz, gidaren atal honek egungo zerbitzuaren inguruan hausnar dezatela eskatzen die ofizialei, zerbitzua nola hobetu daitekeen edo eraginkorragoa nola bihurtu daitekeen pentsa dezaten. Zerbitzuari buruzko informazio orokorra biltzeko orientazioa ematen da.</p> <p>Hasiera batean, arrazoi politikoak edo operaziozkoak direla-eta, egungo sistema nahiago badute, egungo zerbitzuaren bertsio "optimizatua" garatzeko aukera ematen du atal honek. Hori aurrera eramanez daitezke eta geroko aukeren gaineko ebaluazio etapan modelatu.</p>
Aukerak lehenetsi eta garatu	✓	x	<p>Atal honetan, toki erakundeek aukeren gaineko ebaluazioak modelatzeko prozesuaren barruan sartu nahi dituzten aukerak garatuko dira.</p> <p>Aukeren lehenetspenak kontuan hartuko ditu autoebaluazio prozesu estrategikoan azpimarratutako mugaketa eta arrisku posibleak.</p> <p>Kostuen eta irabazien analisisa egiteko tresna etapa honetan ere erabil liteke, gutxi gorabeherako datuak erabiliz, hainbat aukeraren inpaktu erlatiboa neurtzeko.</p> <p>Orientazioak egungo mugaketen eta arriskuen gaineko ikuspegi errealistagoa izaten lagunduko du, negozio plana garatzeko egutegia dela-eta.</p>

<p>Oinarri lerroaren garapena eta datuen kudeaketa</p>	<p>✓</p>	<p>✓</p>	<p>Orientazioa eta txantiloiak konbinatuta, errazagoa izango da oinarri lerroa garatzea. Orientazioak udal hondakinen konposizioaren gaineko usteak garatzeko eta hondakinen hazkuntzari buruzko proiektzioak egiteko jarduera onen inguruko gomendioak jasotzen ditu.</p> <p>Oinarri lerroaren txantiloia 'datuen hub-a' da baita ere ('Interfazearen txantiloia' deiturikoa) eta, bertan, geroko modelatzerako datu guztiak sartu behar dira. Eskatzen den datuen formatua goiz ezartzen da, funtzionarioek barne langileak eta kanpo aholkulariak eraginkortasunez administratu ahal izan ditzaten, datuak behar bezala formateatuta sartze aldera.</p>
<p>Balorazio aukerak</p>	<p>✓</p>	<p>x</p>	<p>Aukeren ebaluazioa modelazio prozesu trinkoa da eta, horren bidez, Udal Plan Sektorialeko xedek betetzeko aukera jasangarrienak identifikatuko dira.</p> <p>Aukerak ebaluatzeko elementu bakoitzerako orientazioak jarduera onen inguruko printzipio orokorrak ematen ditu. Orientazioak ez du aukeren (zehazki, kobrantza zerbitzuen) ebaluazioa egin ahal izateko metodologia xehe bakarria eskaintzen, agintaritzak gehienek kanpoko laguntza behar izango dutela aurreikusten baita.</p> <p>Horrenbestez, funtzionarioen trebetasunak hobetzea da atal honen helburu nagusia, aukeren ebaluazio prozesu kanporatu bat konfiantzaz kudeatu ahal izan dezaten.</p>
<p>Kostuen eta irabazien analisia</p>	<p>✓</p>	<p>✓</p>	<p>Kostuen eta irabazien analisia erabakiak hartzen laguntzeko tresna bat da; errendimendu handieneko aukerak hartuko ditu, eta aukera horiek ingurumenean nahiz finantzetan dituzten inpaktuak ebaluatu. Tresna honek, bada, 'datuen hub-ean' ('Interfazearen txantiloia' deiturikoan) pilatutako datuak erabiliko ditu eta, beraz, tresna erabilerraza izango da ofizialentzat. Gainera, aukera bakoitzaren inpaktuak irudikatuko dituzten grafiko argiak ateratzen ditu, eta grafikook alderatzen.</p>
<p>Ekintza plana</p>	<p>✓</p>	<p>✓</p>	<p>Ekintzak planifikatzeko fasean, aukeren ebaluazioa eta kostuen eta irabazien gaineko analisiaren emaitzak etorkizuneko ekintza plan batean nola txerta daitezkeen eztabaidatuko du agintaritzak abiatutako proiektuko lantaldeak. Etapa honetan, agintaritzaren barruan erabakiak nola hartzen diren aztertuko da, eta horretarako estrategia bat garatuko. Negozio plana idazteko oinarria izango da.</p>
<p>Negozio plana</p>	<p>✓</p>	<p>✓</p>	<p>Tresna multzoaren azken etapan negozio plana garatzen da. Gidak negozio planaren kalkulu orria eta ohar laburren txantiloia betetzeko behar diren sarrerak deskribatzen laguntzen du.</p> <p>Negozio planak zein egitasmo abiatzen ari diren eta horrek % 70eko birziklapen xedea betetzeko orduan nola eragingo duen erakusten du, 2024-2025era arteko epemugan.</p>

4.2 Komunikazio kanpainak

Komunikazio aren ikonografia – WRAP, UK³¹

Beste antolakunde batzuen jarduera onen (adibidez, Erresuma Batuko WRAP erakundearena) ikuspegiak erabili behar dira nazio mailako ikonografia garatzeko, egoiliarrek seinaleztapen argi eta trinkoa izan dezaten garbiguneetan, birziklapenerako edukiontzietan eta birziklapen zerbitzuetarako komunikazioen liburuxketan.

Komunikazio kanpainetarako ikonografiaren adibidea ikus daiteke 4-2 irudian (Erresuma Batuan arrakasta handiz ezarritako “Birziklatu orain” kanpainaren programan kokatzen da).

4-2 IRUDIA: KOMUNIKAZIO KANPAINETARAKO IKONOGRAFIA KOHERENTE BATEN ADIBIDEA



Elikagai hondakinen bilketari buruzko komunikazio kanpaina – Milan

Arrakastaz ezarritako komunikazio kanpaina baten adibide modura, Milanek kontu handiz diseinatu eta iragarri zien elikagai hondakinen bilketa kontzeptu berria komunitateko familiei. Hor barruan, etxeetan kitak banatu zituzten, herritarrekin aurrez aurre aritzea eta gehiago sentsibilizatzea ahalbidetzen zutenak, baina baita hauek ere: bezeroaren arretarako zentroa, zuzeneko eta doako linea duena; webgunea eta informazioa hamar hizkuntzatan jasotzen duten liburuxkak; mugikorrerako doako aplikazio bat; komunikabideak eta publizitate pasiboa; eskola proiektuak; instalazioetarako bisita gidatuak...

Kanpaineak arazo espezifikoak konpontzeko helburua zuten; hala nola:³²

- Hondakin organikoetarako poltsa konpostagarrien kalitateak eta, zehazki, erabilerak duen garrantziari buruzko informazioa, plastikozko poltsen kutsadura saihesteari begira (plastikoarena da kutsaduraren % 90).

³¹ <https://partners.wrap.org.uk/material-stream-icons/>

³² <https://www.municipalwasteeurope.eu/sites/default/files/6.Danilo%20Vismara.pdf>

- Hamar hizkuntzatan idatzitako informazio dokumentuak, toki komunitateetako biztanleen antzeko jatorri etnikoak dituzten pertsonak aurrez aurre banatzen dituztenak.

AMSAko komunikazio taldeak sei hilabete behar izan zituen estrategia bat eta informazio pakete bat prestatzeko. Bada, informazio pakete hori hiriko sektore guztietan aurkeztu zen plan berria sartu baino lau aste lehenago. Dibulgazio publikoko bilerak antolatu ziren hiriko sektore guztietan, herritarrak informatzeko eta edozein kontu jorratzen laguntzeko plana ezarri aurretik.³³

4.3 Biohondakinen kalitate ziurtagiria – Vlaco³⁴

OVAM Flandriako Hondakinen Agintaritzak Vlaco izendatu zuen, biohondakinen tratamenduan kalitate kontrola ezartzeko. Vlaco ziurtapen sistema independente bat abiatu zuen 2006an (aurretik kalitatea laginketaren bidez ziurtatzen zen, eta amaierako produktuaren kalitatea aholkularitzaren bidez optimizatzen zen). Horrekin batera, Vlaco "Ziurtapenaren araudi orokorra", zenbait egiaztapen zerrenda (konpostajea eta digestio anaerobikoa) (2006tik aurrera) eta kontrol eta ziurtapen sistema bat garatu zituen.

Honako arlo hauek biohondakinak tratatzeko instalazioetan gainbegiratzen dira, laginketaren, analisiaren eta auditoretza operatiboen bidez:

- Kudeaketaren kalitatea,
- Sarrerako fluxuak,
- Prozesamendua eta
- Amaierako produktua


Instalazioetara bisitak egin behar dira aldizka (auditoretzak urtean behin) eta laginak noizean behin hartu behar dira (instalazioan egiten den tratamenduaren araberako maiztasunaz). 4-3 irudian, araudiaren bilakaera eta Vlaco lotutako jarduerak erakusten dira.³⁵ Vlaco ziurtatzen ditu estandar horiek betetzen dituzten instalazioak.

³³ https://issuu.com/giorgioghiringhelli/docs/food_waste_recycling_the_case_study

³⁴ <https://www.compostnetwork.info/wordpress/wp-content/uploads/Biowaste-management-in-the-Flemish-Region.pdf>
<https://www.compostnetwork.info/wordpress/wp-content/uploads/Presentation-of-Vlaco-and-the-QAS.pdf>

³⁵ Vlaco, *Presentation of Vlaco and the quality assurance system*, available at
<https://www.compostnetwork.info/wordpress/wp-content/uploads/Presentation-of-Vlaco-and-the-QAS.pdf>
<https://www.vlaco.be/sites/default/files/generated/files/page/vlaco-npo-2010-english.pdf>

4-3 IRUDIA: VLACOREN ZIURTAPEN ARAUDIAREN BILAKAERA



4.4 Ekoizlearen erantzukizun zabalduko sistemetako datuei buruzko txostenen hobekuntza – Estonia³⁶

Estoniak adibide interesgarria eskaintzen du merkaturatutako ontzien hondakin kopurua behar bezala identifikatzeko xedez auditoretza prozedura ezartzeko moduari dagokionez. Auditoretza prozesu horretan, zehaztasun handiagoz kalkulatu behar dira ontzien birziklapen tasak eta, aldi berean, ekoizleek ontzi hondakinen bilketaren gaineko ikuspegia berrikustea eta errendimendua hobetzea espero liteke. Gainera, ekoizleek ordaintzen dituzten tasen zenbatekoak gora egin ahala, finantzazioa hobetu egingo da. Ontziei buruzko Legearen 24. artikulua (*“Ontzien erregistroan aurkeztu behar diren datuen auditoretza”*) ezartzen du betekizunen oinarri juridikoa. Hasiera batean, ontzi ekoizle guztiek bermatu behar zuten merkaturatutako datuak urtero ikuskatzen zirela.

Auditoretzak ikuskatzaile egiaztatuek egin behar zituzten eta, batez ere, finantza ikuskaritzak egiten zituzten enpresak izaten ziren horiek. Enpresa horiek orientazioa eta gaikuntza jaso zituzten, auditoretzak txantilo estandar baten arabera egin zituzten.³⁷ Urteko auditoretza baten batez besteko kostua 1.000 eurokoa zen enpresa bakoitzeko. Hala ere, enpresak huts eginez gero, kostu gehigarriak sortzen ziren auditoretza sakonagoak egin zituzten. Lehenengo urtea igarotakoan, datuak benetan ikuskatuta enpresen % 50ek bakarrik zituztela, merkaturatutako kopuruak % 10 egin zuen gora (ia 15.000 tona). Dena dela, enpresa txikienetarako karga handia zela balioetsi zen eta, beraz, urtean bost tonako gutxieneko atalasea txertatu zen.

³⁶ https://www.interseroh.eu/check-the-pack/wp-content/uploads/2017/12/Estonia_law_packaging-ENG.pdf
https://www.oecd.org/environment/country-reviews/OECD_EPR_Estonia_Highlights.pdf

ESTATUAN:

HONDAKINAK PREBENITU ETA KUDEATZEKO AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO PLANEN ANALISIA

AURKIBIDEA

ERANSKINEN AURKIBIDEA (6. ZIRRIBORROA 21_09_13)	1
6.4.1 apartatua. Lehetasunezko korranteetarako jarduketak eta 19. eranskina	9
4.1.3.4 apartatua. Itsas hondakinak arazoa dira gaur egun	11
4.1.3.4 apartatua. Itsas hondakinak arazoa dira gaur egun	11
2.1 Xedeak eta zigorrak	35
2.2 Eskaini beharreko gutxieneko zerbitzuak	38
3.1 Zabortegeien/errefusa frakzioaren gaineko zerga	43
3.2 Biltegitratze, Itzulketa eta Itzulera Sistema (SDDR)	44
3.3 Hondakinak sortzeagatiko ordainketa	45
3.4 Elikagai-hondakinen bereizketa sustatzeko isunak – Milan	46
4.1 Laguntza eta gaikuntza	49
4.2 Komunikazio kanpainak	53
4.4 Ekoizlearen erantzukizun zabalduko sistemetako datuei buruzko txostenen hobekuntza – Estonia	55
1. Valentziako Komunitateko Hondakinen 2019-2022ko Plan Integrala (PIRCVA)	58
Valentziako Komunitateko Hondakinen 2019-2022ko Plan Integrala (PIRCVA)	58
2. Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)	64
Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)	64
3. Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana	82
Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana	82
4. Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)	101
Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)	101
1 SARRERA	170
2 BILKETA SISTEMA NAGUSIAK	171
2.1 Errefuserako edukiontzi itxia	171
2.1.1 Errefuserako edukiontzi itxi mugatua	171
2.1.2 Errefuserako edukiontzi itxi ez-mugatua	171
2.2 Atez atekoa	171
2.3 Jarri eta kentzeko edukiontziak	172
2.4 Hobaria duen edukiontzi organikoa eta errefusaren edukiontzi irekia	172

2.5	Errefuserako edukiontzi irekia	172
2.6	Landa eremuak	173
2.6.1	Itxitako bilketa guneak	173
2.6.2	Materia organikoa modu eksklusiboan kudeatzea, etxeko edota komunitateko konpostajearen bidez	174
2.7	Bilketa osagarriak	174
2.7.1	Tamaina handiko hondakinak	174
2.7.2	Tamaina handiko inausketa-hondakinak	175
2.7.3	Sortzaile handiak	175
2.7.4	Garbigune mugikorak	176
2.7.5	Garbigune finkoak	176
2.7.6	Hondakin arriskutsuak uzteko etxolak	176
2.7.7	Berrerabiltzeko edukiontzia	177
2.7.8	Etxeko konpostajea	177
2.7.9	Konpostaje komunitarioa	178
2.8	Hondakinen bilketa eraginkorren alderdiak	178
2.8.1	Biltzeko derrigortasuna	178
2.8.2	Ikuskaritza	179
2.8.3	Bilketei buruzko informazio eta sentsibilizazio kanpainak	179
3	EMAITZAK, BILKETA MOTAREN ARABERA	180
1.	ALTZAIRUGINTZAKO ZEPAK	205
2.	GALDAKETAKO HAREAK	206
3.	ORE ETA PAPER LOHIAK	207
4.	HONDAKIN UREN ARAZTEGIETAKO LOHIAK	207
5.	IJEZKETAKO HONDAKINAK	209
6.	MATERIAL ERREGOGORREN HONDAKINAK	210
7.	ZATIKATZEAREN FRAKZIO ARINA (ZFA)	211
8.	BURDINAZKOAK EZ DIREN ZEPAK	212
9.	ERABILTZEN EZ DIREN PNEUMATIKOAK	213
10.	HONDAKINEN TRATAMENDU MEKANIKOTIK DATOZEN BESTELAKO HONDAKINAK (MATERIALEN NAHASKETAK BARNE), 19 12 11 KODEAN ZEHAZTUTAKOAK EZ DIRENAK 214	
11.	PAPER ETA KARTOIZKO ONTZIEN HONDAKINAK	215

1. Valentziako Komunitateko Hondakinen 2019-2022ko Plan Integrala (PIRCVA)

Valentziako Komunitateko Hondakinen 2019-2022ko Plan Integrala (PIRCVA)	
Planaren dokumentua	http://www.agroambient.gva.es/va/web/calidad-ambiental/gva
Egitura	<p>PIRCVAK honako dokumentu hauek biltzen ditu: Informazio memoria, justifikazio memoria, antolamendu dokumentu ez-loteslea eta arauzko antolamendu dokumentu loteslea.</p> <p>Horiekin batera, laborpen dokumentu bat eta zenbait eranskin (taularen amaieran daude zerrendatuta) jasotzen ditu. Eranskinen artean, Herritarren Dibulgazio eta Informaziorako Programa eta Prestakuntza eta Enplegu Programa nabarmentzen dira, baita Ingurumen Jasangarritasunari buruzko Txostena ere, Lurralde Ekintza Plan gisara.</p> <p>Dokumentuen egitura horren barruan, PIRCV hiru talde nagusitan ardatzen da; hots, hondakinen jatorri nagusien inguruan: Hiri edo udal hondakinak, industria hondakinak (hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak) eta hondakin espezifikoa (eraikuntza eta eraispin hondakinak), bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuak (BBAI), erabiltzen ez diren pneumatikoak (EEP), industriako olio erabiliak, poliklorobifenioak (PCB) dituzten gailuen hondakinak, pilen eta metagailuen hondakinak, gailu elektriko eta elektronikoak (GEEH), ontzi hondakinak eta erabilitako ontziak, lurzoru kutsatuak, hondakin sanitarioak, nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak, araztegiak, lohiak eta biohondakinak).</p> <p><u>PIRCVaren edukiaren laburpena:</u></p> <p>PIRCVA ikuspegi integral batetik abiatzen da eta, zentzu horretan, egitura orokortasunetik zehaztasunera doa. Hala, printzipio orokor eta oinarritzko helburu batzuetatik abiatuta hondakin tipologia bakoitzaren analisia eta diagnostikoa eginez, helburu zehatzak, helburu horiek lortzeko neurri zehatzak eta adierazle sistema egituratua zehazten ditu (adierazle sistemak aipaturiko helburuen jarraipen eta ebaluazio etengabea egitea ahalbidetzen du). Azkenik, helburu zehatzak kontuan hartuta, laborpen gisara, ondorio orokorrak ematen dira.</p>
Oinarritzko helburuak	<p><u>Aurreko planetik datoz:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Generalitatearen eta toki erakundearen hondakinen kudeaketaren arloko jarduketaren plangintza orokorra, bi administrazioen arteko jarduera koordinatua, eraginkorra eta efizientea izateari begirakoa. • Tratamendurako eta deuseztapenerako azpiegiturak ezartzeko, finantzatzeko, kudeatzeko eta ustiatzeko irizpideen ezarpen orokor eta koherentea. • Jarduteko lehentasunen ezarpena eta justifikazioa eta hondakinak tratatu eta deuseztatzeko arloan jarraitu behar diren funtsezko ildoen ezarpena. • Lurraldeko inbertsio lehentasunen zehaztapena, hondakinak kudeatzeko politikari dagokionez, dauden premiak eta gabeziak estaltzeko begirakoa. <p><u>2019-2022ko PIRCVAK honako hauek zabalitzen ditu:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Hondakinen kudeaketan sartuta dauden ekonomia, gizarte, politika eta ingurumen agenteen adostasunaren eta parte-hartze aktiboaren sustapena, partzuergoen edo

Valentziako Komunitateko Hondakinen 2019-2022ko Plan Integrala (PIRCVA)

	<p>bestelako elkartze formulen bidez, edota sektore ekonomikoekiko borondatezko akordioen bidez.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ingurumen heziketari eta herritarren kontzientziarioari buruzko dibulgazio programen sustapena, bai hondakinen sorkuntzari buruzkoak, bai baliabideen kontsumo arduratsuari buruzkoak. Hondakinen kudeaketaren ikuspegia aldatzeko, egokitzapenak egin behar dira enpresen nahiz herritarren sinesmenetan, balioetan, ohituretan eta jardueretan, kontzientziario programen bidez. • Hondakinen sorkuntzan eta hondakinek gizakion osasunean nahiz ingurumenean eragiten duten kaltea prebenitu eta murrizteko sustapena. • Baloriza daitekeen hondakin oro horretara bideratuko dela bermatzea, jatorriko bereizketan, berrerabilpenean, birziklapenean eta energia aprobetxamenduan oinarrituz. • Valentziako Komunitatearen lurralde eremuan hondakinen kudeaketaren arloan autosufizientzia lortzea. • Materialki edo energetikoki balioztatu ezin daitezkeen hondakinetarako deuseztapen instalazioen sare integratu eta egokitu bat eduki behar da, ingurumen inpaktua ahalik eta txikiena izatea bermatzeko eta erabilgarri dauden eta ekonomikoki bideragarriak diren teknologiarik onenak erabiliz.
<p>Xede espezifikoak</p>	<p>PIRCVAN, jarraipena egiteko adierazleak askotariko hondakinei buruzko ataletan jasotzen dira, berariaz jaso ere, hondakin tipologien arabera banatuta.</p> <p>Valentziako Komunitateko Hondakinen Plan Integralaren berrikuspena onesten duen Consellen apirilaren 5eko 55/2019 Dekretuaren 22. artikuluan, askotariko hondakin tipologien birziklapen xedeak jasotzen dira.</p>
<p>Jarduketa giltzarriak</p>	<p><u>ETXEKO HONDAKINAK ETA ANTZEKOAK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen, Valentziako Komunitateko toki erakundeek, haien eskumen eremuaren barruan, pixoihalen eta higiene intimorako produktuen hondakinak etxe- eta antze-ko hondakinetatik bereizteko bilketa mota azertu eta ezarriko dute, hondakinen kudeaketan eskumena duen partzuergo edo erakundeak kudeaketarik onenera bideratu ditzan hondakinok. Gaikako bilketa hori errefusa frakzioaren bilketa bereiziarekin ordezkatu ahalik da, hondakinak balorizatze-ko instalazioetan errefusa frakzioa behar bezala kudeatzen dela bermatzen denean, zaborte-egian biltegitratzeko xedeak betez. • Arauz, ontzi eta edari jakin batzuk berrerabiltzeko prestaketa kopuruaren gutxieneko kopuruak edo xedeak finkatuko dira HORECA (hotelak, jatetxeak eta cateringa) sektorerako. • Zenbait frakzioen atez ateko bilketa edota material birziklatuak kontsumo ondasunak fabrikatzeko erabiltzea. Etxeko ontzien atez ateko bilketa ezartzeko toki erakundeek ordainketa bat jasoko dute, Generalitatearen eta delako Ekoizlearen Erantzukizun Zabalduaren Sistema Kolektiboaren (SCRAP) artean sinatutako hitzarmen esparruan ageri den zerbitzuan edo horren baliokidean, bertara sartzen diren unetik bertatik aurrera. • Ontzien eta beste material batzuen birziklagarritasunari eta konpostagarritasunari mesede egiteko neurriak ezartzea, ekodiseinuaren arlokoak batez ere, behin bakarrik erabiltzeko ontzietan eta bestelako materialei dagokienez. • Eragindako sektoreekin eta gainerako autonomia erkidegoekin eta estatuarekin ados jarrita, salmenta zentro fisikoetan, lineakoetan edo bestelakoetan jarriko diren ontzietan ingurumen etiketatutako ondo ikusteko moduan ipintzeko aukera aztertzea, alderdi-ko adostutakoaren arabera. • EBtik kanpora esportatzen diren ontzi birziklatuak Valentziako Komunitateko ontzi birziklatu gisa zenbatzeko mugak ezartzea.

Valentziako Komunitateko Hondakinen 2019-2022ko Plan Integrala (PIRCVA)

- Generalitatek, hondakinen arloan eskumena duen ministerioarekin, gainerako autonomia erkidegoekin eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioarekin batera, produktuak fabrikatzeko material birziklatua erabil dadila sustatuko dute. Besteak beste, ekoizlearen erantzukizun zabalduaren kostua murriztu edo modulatu dezatela eska dakieke SCRAP arduradunei, edota bestelako neurri ekonomiko eta fiskal bideragarriak ezar daitezela.
- Etxeko hondakinak eta antzekoak balioztatu eta deuseztatzeko zerbitzuetan eskumena duten partzuergoek, udal erakundeek eta udalerriaz gaindiko erakundeek balorizazio bereizle gehigarri bat (gutxienez, beirarako) ezarri beharko dute 2021 aurretik etxeko hondakinak eta antzekoak balorizatzeko instalazioetan, benetan berma dadin konpost materialetan, konpostajeetan edo zabortegira doan errefusean beira birziklagarriak ez dagoela.
- Erkidegoan egiten diren jaialdi guztiak, tokikoak, eskualdekoak, probintzialak, autonomikoak, nazionalak edo nazioartekoak izan, ontzien eta ontzi hondakinen gaikako kudeaketa egitera behartuta daude.
- Valentziako Komunitateko hondakinak jatorrian bereizteko bilketan eskumena duten toki erakunde guztiek atez ateko gaikako bilketa komertziala ezarri beharko dute, merkataritza txikirako paper eta kartoiarena gutxienez, SCRAPetik diru sarrerak jasotzen hasten diren unetik.
- Plana indarrean jarri eta sei hilabeteren barruan, ontzi arinak, papera eta kartoia, beira eta biohondakinak gaika bildu beharko dira nahitaez, kudeaketa publikoko edo publiko pribatuko establezimendu guztietan; hala nola, ospitaleetan, eguneko zentroetan, adinekoen egoitzetan, ikastetxeetan eta Valentziako Komunitateko administrazio publiko guztien eraikin, bulego eta egoitzetan.
- Bulego pribatuetan, aisialdirako zentroetan, saltoki guneetan, lantegietan, logistika eta banaketa zentroetan, supermerkatuetan, hipermerkatuetan eta jende asko hartzen duten zentroetan, hondakinak jatorrian bereizita bildu beharko dira nahitaez, gero birziklatzeko; gutxienez, ontzi arinak, ontziak ez diren plastikoak, beira, papera eta kartoia eta biohondakinak.

INDUSTRIA

HONDAKINAK

Industria ekoizleetan, jatorrian bereizi behar dira askotariko material birziklagarriak.

- Industria guneek hondakin arriskutsuak nahiz ez-arriskutsuak transferitzeko zentro bat eduki behar dute gutxienez, poligonoko industrietan (batez ere, ekoizle txikien lantegietan) sortzen diren hondakinei zerbitzu emateko edukiera nahikoa izango duena.³⁸
- Hurbiltasun eta autosufizientzia printzipioak aplikatzea, oro har, industriako hondakinen kudeaketan, ekoizpen eremuen inguruan kudeaketarako instalazioak ezartzea sustatzeko.
- Hierarkia printzipioa ezartzea industriako hondakinen kudeaketan, ingurumen tratamendu egokien inguruko informazioaren eta prestakuntzaren bidez.
- Industria sektore bakoitzean prebentzioari buruzko TEOen ezarpena sustatzea; bereziki, hondakin arriskutsuak sortzen dituzten sektoreetan.
- Hondakinak tratatzeko TEOen ezarpena sustatzea, baita industria hondakinak tratatzeko instalazioei eta hondakinak kudeatzen dituzten enpresei eska dakizkiekeen

³⁸ Transferentzia zentro horietarako finkatzen diren tarifek edo prezio publiko zein pribatuek emandako zerbitzuaren kostu guztiak islatu behar dituzte, merkatuko balioan; halaber, eta nolana ere, hondakin arriskutsu eta ez arriskutsuen gaineko zergak islatu beharko dituzte.

Valentziako Komunitateko Hondakinen 2019-2022ko Plan Integrala (PIRCVA)

	<p>irizpide teknikoen eta betekizunen ezarpena bultzatzea ere, Hondakinen Koordinazio Nazionalerako Batzordearen baitan, estatuko araudiarekin bat.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Industriako hondakinen sorkuntzari, kudeaketari eta kudeaketaren trazabilitateari buruzko informazioa hobetzeko kontrol prozedura administratiboak eta bitarteko telematikoak ezartzea, industriaren laguntzarekin eta estatuko araudiarekin bat eginez. <p><u>HONDAKIN ESPEZIFIKOAK (EEHak, BBAiak, industriako olio erabiliak, hondakin sanitarioak, PCB/PCTak)</u></p> <p>Industriako olio erabiliak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ingurumen arloan eskumena duen Conselleriak ekimen pribatuari lagunduko dio industriako olio erabiliak birsortzeko instalazioak ezartzen, garapen ahala duen eta Valentziako Komunitatean balio estrategiko berezia duen ingurumen jarduera delako, ez baitago horrelako instalaziorik. <p>Hondakin sanitarioak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hondakin sanitarioen kudeaketa hobetzeko manu tekniko batzuk zehaztea.
<p>Tresnak</p>	<p>PIRCVAk berak ez ditu neurriak eta tresnak bereizten. Bertan planteatzen diren neurri batzuk tresnen atalean sartu dira.</p> <p><u>ETXEKO HONDAKINAK ETA ANTZEKOAK:</u></p> <p>Generalitataren barruan etxeko hondakinen eta antzekoen kudeaketan eskumenak dauzkan Conselleriaren aholkularitza organoa izango da Partzuergoak Koordinatzeko Batzordea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, etxeetan behin baino gehiagotan erabiltzeko ontzien erabilera (ontzi berrerabilgarriak, birziklagarriak eta material birziklatuarekin egindakoak) indartzeko zerga pizgarriak ezarriko dira. • 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, atez ateko bilketa sistemak edo antzekoak ezarri beharko dira 50.000 biztanle baino gehiago errolatuta dituzten udalerrietan, biohondakinen eta ontzi arinen frakzioarako, eta herritarrei hondakinak sortzeagatiko ordainketa bezalako sistemak ezarriko zaizkie zuzenean. • Produktuak fabrikatzeko material birziklatuaren erabilera sustatuko duten neurriak aztertuko dira. Besteak beste, ekoizlearen erantzukizun zabalduaren kostua murriztu edo modulatu dezatela eska dakieke SCRAP arduradunei, edota bestelako neurri ekonomiko eta fiskal bideragarriak ezar daitezela. • 2020a baino lehen, etxeko hondakinak eta antzekoak balioztatu eta deuseztatzeko zerbitzuetan eskumena duten partzuergo eta toki erakunde guztiek herritarrek parte hartzeko kontseilu bat eduki beharko dute, behar bezala eratua eta funtzionamenduan, partzuergoko gobernu organoei erabakiak hartu eta akordioak egiteko unean aholku eman diezaien, aholku emateko eta herritarrek parte hartzeko organoa izango baita (funtzionamendu arauen eredu bat dago, eta PIRCVAren 8. eranskinean jaso da). • Etxeko hondakinak eta antzekoak kudeatzeko, zerga sistema espezifikoak abiatuko dira. Zerga egitatearen arabera, honako tasa hauek: <ul style="list-style-type: none"> ○ Udal eremuko tasak, etxeko hondakinak eta antzekoak jaso eta garraiatzeagatik. ○ Udalerriaz gaindiko tasak, eremu horretako hondakinak balioztatu, deuseztatu eta transferitzeagatik (hala badagokio) eta ekoparkeak kudeatzeagatik.

Valentziako Komunitateko Hondakinen 2019-2022ko Plan Integrala (PIRCVA)

- Generalitatearen administrazioaren kontratuak gidatuko dituzten administrazio klausuletan ingurumen betekizunak eta irizpideak txertatuko dira.

ONTZI HONDAKINAK

- Gaur egungo Kudeaketa Sistema Integratuak (SIG)/Ekoizlearen Erantzukizun Zabalduren Sistema Kolektiboak (SCRAP) osatzeko sistemak martxan jartzea sustatuko da, gaur egungo SIGaren emaitzak hobetze aldera; hau da, hondakinen sorkuntza murrizteko, hondakinak berrerabiltzeko prestaketa eta birziklapena areagotzeko (ekonomia zirkularraren printzipioekin bat eginez) eta hirietako nahiz natura inguruneetako kutsadura eta zikinkeria gutxitzeko.

INDUSTRIA HONDAKINAK

- Ingurumen arloan eskumena daukan Conselleriak industria hondakinak prebenitu eta murrizteko planen edukia emango du, arauz, hondakinetan eskuduna den conselleriaren aginduaren bidez, planak ebaluagarriak eta konparagarriak izateko moduan, xede zenbagarriekin, 2021eko uztailaren 1a baino lehen, hondakin murrizketaren benetako ehunekoak zehazteko, industria sektore jakin batzuetan gerta daitekeen hazkunde ekonomikotik bereizita. Halaber, planaren indarraldirako ezarpen egutegia zehaztuko du 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen.
- 2020ko urtarrilaren 1a baino lehen, beren eskumenen eremu hertsian, udal mugarteetan industrialdeak dituzten edo edukitzea aurreikusten duten udalek ordenantza bat idatzi beharko dute, material birziklagarriak jatorrian bereizteko betebeharra ezartzeko.
- Baimenik gabe jarduten duten legez kanpoko agenteei ikuskaritza espezifikoak egiteko kanpainak ezarriko zaizkie.
- Ikuskaritza kanpainak egingo dira, baimenik ez duten enpresek edo partikularrek hondakinak kudeatzea saihesteko eta jarduera hori desagerrarazteko, beste organismo publiko batzuekin batera; hala nola, ingurumen arloan eskumena duen ministerioarekin, Sepronarekin, polizia autonomikoarekin eta Aduanen Zuzendaritza Nagusiarekin.
- Hondakinen arloan eskumenak dituen zuzendaritza nagusiak azterlan tekniko, juridiko eta ekonomiko bat egingo du, fabrikazio prozesuetan material bakarreko elementuak (ondoren berreskuratzea errazteko) erabiltzen dituzten industria ekoizleentzat autonomia erkidegoaren mailako hobari fiskalak ezartzea bideragarria ote den ikusteko.

HONDAKIN ESPEZIFIKOAK**Eraikuntza eta eraispen hondakinak (EEH)**

- 2020ko martxoaren 1a baino lehen, Consellaren dekretu bidez, Valentziako Komunitatean EEHak ekoitzi eta kudeatzeko araubideari buruzko arau tekniko bat ezarriko da, eta kudeaketa eredia sektorizatuko, autonomia erkidegoko eremu guztiek EEHak kudeatzeko instalazioak eduki ahal izan ditzaten, hurbiltasun eta autosufizientzia printzipioak betetzeko. Dekretuak EEHak kudeatzeko ereduzko ordenantza bat proposatuko du.
- Agregakin birziklatuak behar bezala erabil daitezten sustatuko da eta arau tekniko espezifiko baten bidez, agregakin birziklatuak erabiltzeko eta EEHen balorizazio operazio baten produktu gisa eskuratutako eraikuntza materialak erabiltzeko betekizunak ezarriko dira.

ZEHARKAKOA

Valentziako Komunitateko Hondakinen 2019-2022ko Plan Integrala (PIRCVA)

- Hondakinak kudeatzeko instalazio baten inguru geografikoan bertan jazotako gertakariengatik (urtean bi edo gehiago) ingurumen arazoak sortzen direla egiaztatzen bada, estatuko oinarritzko araudian ingurumen gertakariari ematen zaien legezko definizioaren arabera eta legez ezarrita dagoen administrazio izapidea egin ondoren, Generalitateak, ingurumen arloan eskumena duen Conselleriaren bidez, Valentziako Komunitatean hondakinak kudeatzeko baimena kendu ahalko du aldi baterako edo betiko, behin-behinean. Ondorioz, baimena etenda edo erabat kenduta badago, hondakinen kudeatzaile horrek ezingo du aldi horretan hondakinak kudeatu Valentziako Komunitatean.

Etenaldia ezingo da altxatu, eragindako enpresak ingurumen gertakariak eragin zituzten arazo teknikoak, arazo teknologikoak, teknikari kopuruaren ondoriozko arazoak edo bestelakoak konpondu direla egiaztatu arte, eta, horretarako, administrazioaren erakunde kolaboratzaile baten txostena (EMCA) eta Generalitatearen barruan hondakinak kudeatzeaz arduratzen den zerbitzuaren oniritzia lortu beharko ditu.

Tresnatzat jotzen dira, era berean, PIRCVAren eranskin hauek: (<http://www.agroambient.gva.es/es/web/calidad-ambiental/gva>):

- 1.1 eranskina. Ekoparkeen ezarpena eta funtzionamendua arautzen dituen arau teknikoa (loteslea).
- 1.2 eranskina. Etxeko hondakinetarako eta antzekoetarako ekoparkearen erabilera eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantzaren eredia.
- 1.3 eranskina. Biohondakinen bilketa berezia ezartzeko gida.
- 2. eranskina. PIRCVA ezartzeko adierazleen sistema.
- 4. eranskina. Herritarrak informatzeko dibulgazio programa.
- 5. eranskina. Prebentzio jarduerak. Hemen barruan, Hondakinak prebenitzeko Agindua eta Etxeko nahiz komunitateko konpostajeari buruzko agindua sartzen dira.
- 7. eranskina. Gaikako bilketarako zerga ordenantzaren eredia.
- 8. eranskina. Consell Participació Ciutadana kontseiluak funtzionatzeko arauen eredia.
- 9. eranskina. Gaikako bilketetarako administrazio klausula partikularren eredia.

Aurreikuspena

“Justifikazio memoria” izeneko dokumentuan hiri hondakinen sorkuntzak izango duen bilakaeraren balioespen bat jasotzen da, aurreko planekoa, eta honako aldagai hauetan zentratzen da: Biztanleria karga, HHen sorkuntza eta HHen karakterizazioa.

Biztanleria karga zehazteko honako formula erabiltzen da:

$$\text{Carga de población} = \text{Población empadronada} + \text{Población no residente} + \text{Población turística}$$

Hiri hondakinen sorkuntza kalkulatzeko, sorkuntzaren tasa bateratua (kg/biz./egun) eta sortutako hiri hondakinak (t/urtea) erabiltzen dira.

Hiri hondakinen karakterizazioak, era berean, HHen konposizioari, hiri hondakin nahasiak karbono-nitrogeno erlazioari eta balorizazio instalazioan sortutako errefusen berotze ahalmenari begiratzen die.

Bestetik, plan berriaren **6. eranskinean**, biztanleria kargaren balioespen bat jasotzen da.

Valentziako Komunitateko Hondakinen 2019-2022ko Plan Integrala (PIRCVA)	
Konpromisoak (PIRCVAren eranskinak)	<p>Eranskina: Valentziako Komunitatean hondakinak kudeatzeko hamar ekintza-konpromiso</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Garapen jasagarria, gida eta jomuga 2. Autosufizientzia eta hurbiltasuna hondakinen kudeaketan 3. Ikuspegi integrala eta kudeaketa integratua: zero isurketarantz 4. Jatorrian gaika biltzearen aldeko apustu irmoa 5. Energia balorizazioaren beharra 6. Organo eskudunen koordinazioa berrikuntzarako, hobekuntza etengaberako eta hondakinen kudeaketaren arloko sinergietarako tresna gisa 7. Industria hondakinak transferitu eta tratatzeko instalazioen garapena 8. Sentsibilizazioa eta komunikazioa 9. Kostuen ikusgaitasuna, kudeaketaren gardentasuna eta justizia soziala 10. Lurralde oreka <p>PIRCVAren eranskinak: (http://www.agroambient.gva.es/es/web/calidad-ambiental/gva):</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1.1 eranskina. Ekoparkeen ezarpena eta funtzionamendua arautzen dituen arau teknikoa (loteslea). • 1.2 eranskina. Etxeko hondakinatarako eta antzekoetarako ekoparkearen erabilera eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantzaren eredu. • 1.3 eranskina. Biohondakinen bilketa bereizia ezartzeko gida. • 2. eranskina. PIRCVA ezartzeko adierazleen sistema. • 3. eranskina. Enplegu premien balioespena. • 4. eranskina. Herritarrak informatzeko dibulgazio programa. • 5. eranskina. Prebentzio jarduerak. Hemen barruan, Hondakinak prebenitzeko Agindua eta Etxeko nahiz komunitateko konpostajeari buruzko agindua sartzen dira. • 6. eranskina. Biztanleria kargaren balioespena. • 7. eranskina. Gaikako bilketarako zerga ordenantzaren eredu. • 8. eranskina. Consell Participació Ciutadana kontseiluak funtzionatzeko arauen eredu. • 9. eranskina. Gaikako bilketetarako administrazio klausula partikularren eredu.
Sortzen ari diren hondakinak eta tresnak	<p>PIRCVAN ez da informazio hori jaso.</p>

2. Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)

Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)	
Planaren dokumentua	https://www.caib.es/eboibfront/es/2019/11002
Egitura	Hondakin arriskutsuak plan honetatik kanpo daude.

Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)	
	<p>Proposamen estrategikoen dokumentuak honako hauek jasotzen ditu: arauzko alderdiak, xedeak, ildo estrategikoak, jarduketa plana, azpiegituren tipologia eta deskribapena, aurrekontua eta egin behar diren inbertsioak eta adierazleen sistema.</p> <p>Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko Plan Sektorial Gidariko dokumentuen egituraren barruan, xedeak eta jarduketak hondakinen hierarkia mailaren eta hondakin fluxuen arabera banakatzen dira.</p>
Oinarrizko helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Hondakinen sorkuntzaren prebentzioa sustatzea. • Hondakinen ekoizpena murrizteko, ondasunen eta produktuen berrerabilpena sustatzea birziklapenaren eta aprobetxamendu energetikoaren gaineratik. • Hondakin ez-arriskutsuen gaikako bilketa sustatzea birziklatzea errazteko. Frakzio bakoitzaren gaikako bilketan elementu ezegokiak murriztea tratamenduaren eraginkortasuna handitzeko. • Hondakinen birziklapena indartzea baliabideen kontsumoa murrizteko aprobetxamendu energetikoaren gaineratik. • Hondakin kopurua murriztea; bereziki, birziklatzen ez direnak eta materialki aprobetxatzen ez direnak. • Biztanleriaren eta ingurumenaren osasuna zaintzea hondakinen tratamendutik eratorritako ondorio kaltegarriak murriztuz. • Sorkuntza guneetatik hurbil berrerabilpenerako instalazioen sare bat ezartzen laguntzea. • Biztanleengandik hurbil hondakin organikoak tratatzeko sare bat ezartzea, hondakin horiek garraiatzearen inpaktua eta kostua murrizteko eta materiaren ziklo itxiera jatorrizko tokietara hurbiltzeko. • Mallorca irlako landa eta hiri ingurumena, kultura ondarea eta paisaia antolatu eta babestea, Europako Paisaiaren Hitzarmenarekin bat eginez, inguruko hondakinak prebenitu eta tratatzeko ekipamenduek eta azpiegiturek paisaiarekin bat egitea eta ekipamendu nahiz azpiegitura horien maila guztiak egotea ahalbidetuz.
Xede espezifikoak	<p><u>HIERARKIA MAILAREN ARABERA:</u></p> <p><u>Hondakinen prebentzioa:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Hondakinen sorkuntza % 10 murriztea 2020a baino lehen eta % 20 murriztea 2030a baino lehen, 2010arekin alderatuta, biztanle bakoitzak urtean sortutako kilogramoetan oinarrituta eta giza presioaren indizearen arabera kalkulatuta. • Merkataritza sektorean eta herritarren artean heziketa eta kontzientziazio neurriak sustatzea, behin bakarrik erabiltzeko poltsak erabil ez ditzaten. • Elikagai xahuketa % 50 murriztea 2030erako. • Ekonomia zirkularra sustatzea, Mallorcako hondakinen kudeaketarako oinarri gisa. <p><u>Berrerabiltzeko prestaketa:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Hiriko garbiguneen ezarpena sustatzea.³⁹ • Administrazio publikoek etsenpluzko papera izatea produktuen berrerabilpena eta konponketa sustatzeko orduan. • Adierazleak eta datu erregistro bat izango dituen jarraipen sistema bat ezartzea, berrerabiltzeko prestaketari eta birziklapenari dagokienez. • Irlako eta udalerrietako hondakinak kudeatzeko instalazioen sarea aprobetxatzea. • Berrerabiltzeko prestaketara bideratzen diren GEEHen kopurua handitzea.

- ³⁹ Parke berde bat da, edo bilketa zentro bat, baina hiri bilbean dagoena; ohiko bilketa zentroak baino txikiagoa izan daiteke.

Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)

Birziklapena:

- Balorizazio materialaren xedeak, hondakin tipologiaren arabera

Materialaren tipologia	2020rako birziklapen xedearen ehuneko	2030erako birziklapen xedearen ehuneko
Biohondakinak	50	65
Metalak	50	65
Plastikoak	50	65
Papera eta kartoia	70	70
Beira	60	65
Egurra	50	65
Brikak	50	65
Ehunak	50	65

- Frakzio bakoitzaren pisuaren gutxienez % 65 birziklatzea 2030a baino lehen, frakzio hauetan: papera, metala, beira, plastikoa, biohondakinak eta beste frakzio birziklagarri batzuk, eta etxeko hondakinekin parekagarriak diren merkataritzako eta industriako hondakinak.
- Ontzien birziklapen xedeak. Industriakoak ez diren ontzien hondakinen % 75 gutxienez birziklatzea 2030a baino lehen (sortutako hondakinen balorizazio materiala).
- Ontzien Gordailu, Itzulketara eta Itzulera Sistema (SDDR) bat araz ezartzen laguntzea.

Hondakinaren tratamendua:

- Biztanleengandik hurbil hondakin organikoak tratatzeko sare bat ezartzea, hondakin horiek garraiatzearen inpaktua eta kostua murrizteko eta materiaren ziklo itxiera jatorrizko tokietara hurbiltzeko.
- Berrerabiltzeko prestaketa eta gaikako bilketak indartzea ahalbidetuko duten instalazioen sare bat ezartzen laguntzea, garraioari eta tratamenduari lotutako inpaktuak optimiza daitezten.
- Azpiegitura sarearen kokapena zehaztea, hondakinak tratatzeko zehaztuta dauden egungo erreserbak erabiliz eta, horrela, lurzoru gehiago okupatzea saihestuz.

HONDAKIN FLUXUEN ARABERA

Plastikozko poltsak:

- Behin bakarrik erabiltzeko poltsa arinen kontsumoa debekatzen dela ziurtatzeko neurriak.

Biohondakinak:

- Mallorcako udalerrri guztietara udal hondakinen frakzio organikoaren (UHFO) gaikako bilketa hedatzea eta, isolatuta egoteagatik edo biztanleriaren dentsitateagatik komenigarria den tokietan, komunitateko konpostajea sustatzea, plan sektorial gidariko betekizunei jarraikiz.
- Sortzen den materia organikoaren % 50 gaika biltzea 2020an eta 2030ean % 65era igotzea.
- Biztanleengandik hurbil hondakin organikoak tratatzeko sare bat ezartzea, hondakin horiek garraiatzearen inpaktua eta kostua murrizteko eta materiaren ziklo itxiera jatorrizko tokietara hurbiltzeko.

Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)

- Ekoizle handiak UHFOnen bilketan eta ezarpenean inplikatzeari, arreta berezia jarriz hotel eta sukaldaritza sektoreari (HORECA).
- Autokonpostajearen sustapena indartzea erraz egin daitezkeen tokietan (familia bakarreko etxebizitzak eta landa ingurunea).

GEEHak:

- Urtero, aurreko hiru urteetan Mallorcara sartutako GEEHen batez besteko pisuaren % 65 bildu beharko litzateke gutxienez, edo Mallorcan sortutako GEEHen % 85.
- GEEHak berrerabiltzeko prestaketarako operazioak sustatzea.

EEHak:

HELBURUA	2020	2030
- Arriskutsuak ez diren eta berrerabiltzeko prestaketara, birziklapenera eta bestelako balorizazio operazioetara bideratzen diren EEHen ehunekoa (lur eta harri garbiak kenduta) (gutxienez)	70	80
- Arriskutsuak ez diren eta deuseztatzen diren EEHen ehunekoa (gehienez)	30	20
- Lurreko lanetan eta zaharberritze, egokitze edo betegarri lanetan erabiltzen diren lur eta harri garbien (LER 170504) ehunekoa (gutxienez)	90	90
- Deuseztatzen diren lur eta harri garbien (LER 170504) ehunekoa, induskatzen diren material naturalen gutzizko bolumenari dagokionez (gehienez)	10	10

Nekazaritzako hondakinak:

- Material konpostagarriak eta biodegradagarriak sustatzea.
- Nekazaritzako hondakinen bilketa hobetzea, bilketa guneen eskuragarritasuna eta egokitasuna garatuz eta hondakinak jatorrian bereizteko sistema ezarri (bilketa bidez).
- Jarduera onen gidak egitea.
- Nekazaritzako eta administrazio publikoko askotariko hondakinak kudeatzeko alternatibak aztertzea.
- Nekazaritzako plastikoen hondakinen prebentzioan aurrera egitea.
- Nekazaritza ustiapenetako hondakinak bildu eta garraiatzeko logistika garatzea, sorkuntza gunean bereizi daitezkeen.
- Bilketa bereiziko sistemen esperientzia pilotuak egitea.

Araztegietako lohiak:

- Sortzen diren eta ongarri gisa erabil daitezkeen lohien % 100 tratatzea konpostajearen edo digestio anaerobikoaren bidez.

Pneumatikoak:

HELBURUA	2020
Berrerabiltzeko prestaketa (bigarren erabilerarako eta birkautxutatzeko) (gutxienez) (ehunekoa)	15
Birziklapena (gutxienez) (ehunekoa)	45

Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)

	<table border="1"> <tr> <td data-bbox="451 320 1332 392"></td> <td data-bbox="1332 320 1513 392"> Altzairua: 100 </td> </tr> <tr> <td data-bbox="451 392 1332 421">Energia balorizazioa (gehienez) (%)</td> <td data-bbox="1332 392 1513 421">40</td> </tr> </table>		Altzairua: 100	Energia balorizazioa (gehienez) (%)	40
	Altzairua: 100				
Energia balorizazioa (gehienez) (%)	40				
<p>Jarduketa giltzarriak</p>	<p><u>Landare olioia:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Sortutako olio erabilien % 95 biltzea. • Bildutako olio erabilien % 100 balorizatzea. • Bildutako olio erabilien % 65 birsortzea. <p>Ekintza plan batean jasotzen dira hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko jarraibideak zazpi ildo estrategikotan banatuta (Atik Era) eta, ildo horietan, 37 jarduketa ildo daude. Atal honetan jarduketa ildo batzuk baino ez dira aipatuko, eta jarduketa giltzarritzat joko, besteak tresnen atalera igaro baitira. Honako hauek dira:</p> <p>A. Baliabideen aurrezpena eta hondakinen prebentzioa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Herritarrak elikagai xahuketaren inguruan kontzientziatzea -Herritarrak elikagai xahuketaren kontra kontzientziatzeko kanpaina <ul style="list-style-type: none"> -Kontsumitzaileek galdu aurretik jan ditzaketenak baino elikagai gehiago ez erostea -Jatetxeetako, cateringetako eta abarretako kontsumitzaileek benetako premien arabera eskatzea eta soberakinak kudeatzeko politikei heldzea -Nutrizio dentsitate handiagoko elikagaien kontsumoa sustatzea, beharrezkoak ez diren elikagai produktuen kontsumoa murriztearekin batera -Jarduera didaktiko eta erakusgarriak: <ul style="list-style-type: none"> -Berraprobetxamendurako sukaldaritza tailerrak -Elikagaien kontserbazioari buruzko hitzaldiak -Berraprobetxamendurako errezeta gidak - Elikagaien soberakinak berraprobetzeko zirkuituen hobekuntza: <ul style="list-style-type: none"> - Egoera onean egon arren, askotariko arrazoiengatik salgai jartzen ez diren elikagaiak aprobetxatzeko bideen sorrera eta errefortzua sustatzea, gizarte erakundeen eta ongintzako erakundeen edo udal jantoki sozialen laguntza aktiboarekin. Toki administrazioak egitasmo horiei lagundu diezaieke, emaileen sarbidea sustatu eta erraztuz, banaketa zirkuituak indartuz, udal jantoki sozialen kudeaketarekin lagunduz edo askotariko sektoreetako elikagai xahuketari buruzko aldizkako diagnostikoak eginez. Zehazki, udal azokekin lan egin daiteke, prebentzioaren inguruan etsenplu eman dezaketelako eta mezua herritarren artean zabaltzen lagundu. - Elikagai banku bat sortzea, non elikagaien emaileak nahiz hartzaileak, bitarteko agente laguntzaile eta boluntario gisa, harremanetan egongo diren eta elikagaiak jasotzeko, elikagaien egoera egiaztatzeko edota elikagaiak antolatzeko jarduerak egingo dituzten; askotan, irabazi asmorik gabeko elkarteek eta erakundeek eta gizarteratzen laguntzeko elkarteek hartzen dute parte. - Behin bakarrik erabiltzeko poltsen orde, elementu berrerabilgarriak jartzeko bidean aurrera egitea. 				

Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)

- Erosketak egiteko kapazuak, orgak, poltsa berrerabilgarriak eta/edo konpostagarriak erabil daitezten sustatzea eta merkataritzan erabiltzen diren beste bilgarri batzuetara hedatzea (hala nola, arrautza ontziak, ogirako poltsak eta zakote ontziak).
- Behin bakarrik erabiltzeko poltsak zehatzeko neurrietan aurrera egitea, beste material mota batzuen erabilera sustatzea eta behin bakarrik erabiltzeko poltsak dendetan doan emateko debekua ezartzea, 8/2019 Legearen 23. artikuluekin bat.
- Solteko salmenta eta erosketa sustatzea.
 - Ontzi gutxiagoko produktuen eskaintza sustatuko duten neurriak garatzea eta, halaber, gizartean material horien eskaria sustatzea. Adibidez:
 - Ontziratutako gabeko produktuak (higienea, garbiketa, elikadura eta abar) indartzea.
 - Ontzi kontzentratuak eta edukiera handikoak indartzea.
 - Banakako ontziak edo beharrezkoak ez diren ontziak dauzkaten produktuen erabilera saihestea.
- Informazioa desmaterializatzea eta paperaren erabilera arduratsua sustatzea.
 - Bitarteko elektronikoak erabiltzea barne mailako zirkularretarako, prentsarako, albisteetarako, dokumentuetarako, informazio pertsonalerako eta abarrerako. Horrelako bitartekorik eduki ezean, dokumentuak eta txostenak eskuz esku ibil daitezten eragitea, banakako kopia egin ordez.
 - Administrazio elektronikoa (fakturak, aurrekontuak, hornidura eskaerak eta abar).
 - Sinadura digitala ezartzea izapide edo jakinarazpen mota batzuetarako.
 - Administrazioetan jarduerak onak sustatzea.
- HORECA kanalean eta beste establezimendu batzuetan beirazko ontzi berrerabilgarriak sustatzea.
 - Sukaldaritzaren, ostalaritzaren eta cateringaren sektorean beirazko ontzi berrerabilgarriak erabil ditzaten sustatzea; zehazki, edarien ontziei eta elikagai likido batzuei dagokienez, ontzi berrerabilgarriak erabiltzeko egokientzat jotzen baitira horiek. Neurri honekin, beirazko ontzien berrerabilpena sustatu nahi da, HORECA kanalean beirazko ontzientzat dauden gordailu, itzulketa eta itzulera sistemak erabiliz.
 - Komunikazio jarduerak sustatzea, beirazko ontzi berrerabilgarriak dauzkaten produktuen erabilera bultzatzeko. Komunikazio jarduerekin, hondakin mota horiek sortzeko ahal handiagoa duten eragileei (hala nola, sukaldaritza establezimenduei) egitasmoaren berri eman nahi zaie; izan ere, horietan dira jarduerak modu eragingarrian ezartzeko kolektibo egokiena.
- Bigarren eta hirugarren mailako bilgarri berrerabilgarri eta itzulgarriak eta alderantzizko logistika sistemak indartzea:
 - Hornitzaileek honako neurri hauek bete ditzaten sustatzea:
 - Bilgarriak eta ontziak salgaien bolumenari edo pisuari doitzea.

Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)

- Paketatze bateratua eta arina erabiltzea, eta ez banakakoa.
- Banaketan kartoizko edo plastikozko kutxa berrerabilgarriak erabiltzea (porexpanezkoen orde), edota beste bilgarri berrerabilgarri batzuk.
- Egurrezko kutxen kopurua eta zigiluaren nahiz film plastikoaren erabilera murriztea.
- Palet berrerabilgarri eta homologatuak erabiltzea, horiek berrerabiltzea errazteko.
- Bilgarri hutsak dendan bertan beste zerbaiterako erabil daitezkeen ikertzea (adibidez, kartelak egiteko, erosketak garraiatzeko poltsak ordezkatzeko, eta abar).
- Bilgarriak kudeatzeko ekonomia jardueretan alderantzizko logistika jarduerak sustatzea.
- Arauan egin behar diren aldaketen azterketa egitea, aurreko ekintzan sustatzen diren neurriak nahitaezkoak izan daitezen.
- Eraikuntza eta eraispen hondakinen sorkuntzan prebentzioa sustatzea.
 - Eraikuntza jarduera jasangarriagoak ezar daitezen sustatzea. Jarduera horietako batzuek zerikusia izan dezakete beste obra batzuetako materialak erabiltzearekin, birgaiketa eta hautatutako eraispenarekin edo tartean dauden agenteen artean jarduera onak hedatzearekin (besteak beste, kudeaketa hierarkia aintzat hartzen duten eskuliburuak eta protokoloak eginez).
 - Obra publikoko kontratazioen baldintza orrietan prebentzioko eta kudeaketa jasangarriko irizpideak txerta daitezen sustatzea. Esaterako, xedetzat duten erabilerarako kalitate egokia duten material birziklatuen gutxieneko ehuneko bat erabiltzera behartzen duten neurriak.
 - Eraikuntzarako erraz birzikla daitezkeen materialen erabilera sustatzea elkargo profesionalen eta eraikuntza sektoreko elkarteen bidez.
- Ondasunen eta produktuen berrerabilpena indartzea.
 - Udal erakundeek tresna elektrikoak eta elektronikoak konpontzeko eta altzariak zaharberitzeko tailer okupazionalak antola ditzaten bultzatzea.
 - Etxeetan konponketa sustatzea, etxeko konponketa eta brikolaje tailerren bidez.
 - Alokairua eta ondasunen partekatzea (bizilagunen komunitatea etab.) sustatzea (borondatez).
 - Objektuak konpontzeaz eta bigarren eskuko produktuak saltzeaz arduratzen diren enpresak sortzea eta zabaltzea (online).
- Trukerako eta alokairurako guneak eta tresnak sustatzea.
 - Erakusleiho birtual baten bidez (webgunea) berrerabil daitezkeen ondasunei balioa ematea; webgune horretan objektuak erakutsiko lirerateke, eta erabiltzaileen eskaria nahiz eskaintza kudeatu. Erakusleihoan sartzen diren materialek konponketa

Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)

zentroetan eta partikularren zein erakundeen dohaintzetan eta trukeetan izango dute jatorria.

- Trukerako guneak ezartzea udalerrietan horri begira prestatutako tokietan, intereseko askotariko agenteen artean maila lokalagoan dauden loturak aprobetxatzeko.

-Trukerako azokak eta bigarren eskuko azokak antola daitezen sustatzea, berrerabilpena bultzatzeko tresna gisa. Herritarrek oso harrera ona egiten diete horrelako truke sareei, egoera onean dauden ondasunak kostu txiki-txikiarekin erostea ahalbidetzen dutelako. Antolatzen diren bigarren eskuko azoketan, gero eta jende gehiago elkartzen da.

- Bulegoko materiala (inprimagailuak, eskanerrak, ordenagailuak eta abar) dohaintzan emateko sare bat sortzea. Jarraitu beharreko prozedura bat sortuko da, materiala doan lagatzea eta datuen konfidentzialtasunari eustea bermatzeko.

- Kontsumitzaileek produktuak banaka erosi behar ez izateko mekanismoak ezartzea; hau da, produktuak partekatze edo aldi baterako alokatze mekanismoak ezartzea.

- Zerbitzu edo ondasun immaterialen kontsumoa bultzatzea.

- Saihestu daitezkeen material/objektu guztien kontsumoa prebenitzea; hau da, ekonomia desmaterializatu bihurtzea.

- Administrazioa ingurumenarekin kontzientzia dadin sustatzea.

- Ingurumen prestakuntzarako saioa: Jarduera onak gogoraraztea, langileei administrazioa ingurumen arloan kontzientziatzeko aholkuak emateko (aholku horiek baliagarriak dira etxerako ere eta, horrela, udalerrri jasangarriagoak lortuko dira).

- Ingurumen arloko jarduera onen gida egin eta argitaratzea, eskema honi jarraikiz:

- Hondakin gutxiago sortzen dituzten produktuak kontsumitzea.

- Beirazko ontzi berrerabilgarriak kontsumitzea.

- Bulegoko materialak eta kontsumi daitezkeen materialak modu eraginkorrean erabiltzea.

- Leasing edo alokairu zerbitzuak eta materiala partekatze zerbitzuak erabiltzea.

- Ondasunak eta produktuak berrerabiltzea eta konpontzea.

- Iturriko ura edatea.

- Administrazioaren jardueretan bilgarri gutxiago erabiltzea eta bilgarri gutxiago daukaten produktuak erostea.

- Eremu espezifikoetan (turismo sektorean) hondakinak murrizteko ekintzak.

- Jarduera horietan hondakinen sorkuntza gutxitzeko jarduera onetan trebatzea; hala nola:

Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)

- Establezimenduetan elementu berrerabilgarriak erabiltzea: azukre ontziak eta oihalezko mantelak eta ahozapiak.
 - Ontzi berrerabilgarriak erabiltzea norbera garbitzeko produktuekin (xaboia, xanpua eta abar) betetzeko.
 - Iturriko ura pitxerretan erabiltzea.
 - Elikagai xahuketa murriztea (jarduera onak zabaltzea elikagaiak erosi, biltegitatu eta manipulatzeko eta soberan geratutako janaria etxera eramateko aukera sustatzea).
 - Solteko elikagai produktuak edo edukiera handiko bilgarriak dauzkatenak kontsumitzea.
 - Beirazko eta berrerabili nahiz itzul daitezkeen bestelako materialekin egindako ontziak erabiltzea.
 - Hondakin mota bereziak sortzen dituzten produktuak ordezkatzeari.
 - Autokonpostajea sustatzea, eremu honetan hondakinen kudeaketa hobetzeko tresna boluntario gisa.
- Zero hondakineko ekitaldiak indartzea.
- Aurreko jarduketetan azaldutako neurriekin bat egiten duten neurriak ezartzea (komunikazio digitaleko materiala, ingurumenarekin begirunetsua den merchandisinga, elikagai soberakinen dohaintzak edo kudeaketa), baita arkitektura galkorretik datozen hondakinak murrizteari begirako neurriak ere. Neurriak garatu aurretik, xehetasun handiz aztertu behar dira ekitaldiaren eta tokiaren ezaugarriak, hasierako diagnostiko baten bidez; gero, hortik abiatuta, fluxu bakoitzerako prebentzio neurri egokienak planteatuko dira. Proiektzioei (proiektorea, pantailak, argiztapen sistema moldakorrak...) lehentasuna ematea material galkorren gainetik.
 - Ekitaldi Publikoiei buruzko 8/2019 Legean jasotzen den moduan, edari ontziratuak eta behin bakarrik erabiltzeko basoak ez saldu eta banatzeko alternatibak ezarri behar dira eta, nolahi ere, ontziratu gabeko edo botila berrerabilgarrietan ontziratutako ura lortzeko aukera eman behar da (ekitaldi publikoetan, administrazio publikoen babesaren kirol ekitaldiak ere sartzen dira; babes hori babesletzaren, antolaketaren edo bestelako formula baten bidezkoa izan daiteke). Gainera, ontziak eta basoak uzteko sistema bat ezarri behar da, horiek edonon uztea edo behar ez bezala kudeatzea saihesteko.
- Prebentzio arloko berrikuntzari eta ikerketari laguntzea.
- Ingurumen inpaktua eta hondakinen sorkuntza murriztea ekarriko duten ikerketa eta produktuen garapena sustatzea, Balear Irlako Hondakinei buruzko Legeak jasotzen duen moduan.
 - Sariak sortzea, hondakinen prebentzioaren arloan adierazgarrienak eta berritzaileenak diren jarduketak eta proiektuetarako. Erakundeek, enpresek edo bestelako organismoek sustatutako proiektuez gain, herritarrei zuzendutako aitortza bat sortzea planteatzen da prebentzio arloko jarduerak onak saritzeko.

B. Berrerabilpena eta berrerabiltzeko prestaketa (BxP)

Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)

- Instalazioak egokitzea eta B eta BxP sustatzeko zentroak izateko guneak sortzea.
 - B eta BxP arloko ekintzak egiten dituzten gizarte erakundeak sustatu eta babestea. B eta BxP arloko jarduerak bultzatzeko dirulaguntzak diseinatzea. Berrerabilpenerako eta konponketarako zentro baimenduen sorrerari laguntzea.
 - Garbiguneak egokitu eta eraikitzea, B-rako instalazioak izan daitezten. Udalerri guztiek garbiguneen zerbitzua bermatu beharko diete herritarrei, modu independentean edo mankomunatuan, berrerabiltzera bideratu diren eta ondorengo tratamenduen zain (hala nola, berrerabiltzeko prestaketaren zain) dauden produktu erabiliak jasotzeko, gaika biltegitzeko eta aurretik sailkatzeko. Bilketarako zentroek Balear Irlako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legeak finkatzen dituen gutxieneko betekizunak bete beharko dituzte.
 - Truke sare bat sortzea gizarte zerbitzuen bidez. Gizarte laguntzako zerbitzua eskatzen duten herritarren premiak eta instalazioetan konpondutako objektuak elkarlotzeko sistema bat sortzea.
 - Merkatu berdea sustatzea eta sektore ekonomiko gisa dinamizatzea.
 - B eta BxP-arekin zerikusia daukaten enpresa jardueren garapena sustatzea. B eta BxP-ari lotutako enpresa eta erakundeen ezarpenari laguntzea. Berrerabilpenerako eta trukerako guneen sareak sor daitezten sustatzea.
 - BxP-tik datozen produktuak onartzea eta kudeatzea ahalbidetuko duten guneak edo jarduerak sustatzea. Konpondutako materialen erabilera sustatzea, B eta BxP-ari lotutako enpresen direktorioa eguneratuta edukitzea eta konponketa guneen gidak eta sareak sortzea.
 - Ekonomia zirkularreko irizpidearen pean mugitzen diren negozio ereduak indartzea.
 - C. Gaikako bilketa
 - Etxeko eta ekoizle berezien frakzio organikoaren bilketa bereizia ezartzea.
 - Udalerrietan UHFOa gaika biltzea nahitaezkoa izatea 2021eko martxoaren baino lehen, 8/2019 Legearen hirugarren xedapen iragankorrarekin bat.
 - UHFOa tratatuzetik lortutako konpostaren erabilera sustatzea eta hondakin organikoak nekazaritzan aplikatzeko eskuliburu bat egin edo hedatzea. Kalitatea bermatzeko eta ezaugarriak nahiz garatu beharreko jarduerak zehazteko sistemak bultzatzea, behar bezala aplikatu dadin. Konposta erabiltzeari lotutako ingurumen onuren balorazioa.
 - Organikoaren gaikako bilketa ezartzeko euskarri teknikoa eta jarduera onen trukea.
 - Konpostaje komunitarioa eta banakakoa sustatzea.
 - Autokonpostajea sustatzea, ezarpenaren, aholkularitzaren eta prozesuaren jarraipenaren bidez, baita emaitzen hedapenaren bidez ere.
- Jarduera horrek, hondakin organikoaren autokudeaketari bide egiteaz gainera (frakzioaren zikloa ixten da), borondate didaktiko garrantzitsua dauka, herritarrak frakzioaren tratamendu bereziaren nahiz gaikako bilketaren garrantziari buruz kontzientziatzea ahalbidetzen duelako.

Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)

- Toki nahikoa duten eskola zentroetan konpostagailuak ezartzeko programa bat sor dadin sustatzea. Bi alderdi dauzka: ikasleei bideratutako jarduketa da (ingurumen heziketaren ingurukoa) eta, aldi berean, zentroan sortzen den materia organikoa (landare nahiz elikagai hondakinak) in situ kudeatzen laguntzen du.
- Banakako autokonpostajea hedatzea, organikoaren birziklapenean duen eginkizun garrantzitsuaren berri emanez eta frakzio hori prebenitzeko xedeak lortzeko orduan giltzarria dela adieraziz.
- Etxeko hondakinen eta produktu berezien gaikako bilketa areagotzea eta udal bilketak optimizatzea.
 - Gaikako bilketarako gida bat egin edo banatzea. Edukian, hondakinak behar bezala bereizteko gomendioak eta irizpideak, askotariko bilketa sistemei lotutako kostuen azterketa eta zerbitzua diseinatu eta hobetzeko tresnak jaso daitezke.
 - Merkataritzako bilketen garapena sustatzea. Merkataritzako hondakinak gako dira hondakinak eraginkortasunez kudeatu nahi badira. Hondakin asko sortzen dituzten saltokietako hondakinei tratamendu espezifikoak eman behar zaie, irlak urtaroen arabera gorabeherak izaten dituela kontuan hartuta. Toki erakundeei zuzendutako jarduera onen gidak egitea proposatzen da, merkataritza jarduerarekin zerikusia duten egitasmo espezifikoak garatu ditzaten (hala nola, atez ateko bilketak, edukiontzi propioak, VACRI sistema...).
 - Etxeko eta merkataritzako hondakinen inguruko udal ordenantza baten eredu egitea, hondakinen bilketa bereizia hobetzeko kontzeptuak jasoko dituen (ekoizlearen erantzukizunaren printzipioa, kutsatzen duenak ordaintzeko printzipioa...) eta saltokien eta zerbitzuen betebeharrak eta eskubideak zehaztuko dituen.
 - Toki publikoak garbitzetik sortutako hondakinak kudeatzea. Hondakin mota horiek kudeatzeko jarduera onak hedatzea, hondakinak garbiketa prozesuetan behar bezala bereizten direla ziurtatzeko xedez.
 - Bilketa guneetan GEEHen gaikako bilketa sustatzea. Etxetresna elektrikoak saltzeko guneetan haien betebeharrei, kudeatzaile baimenduei eta erabili behar duten dokumentazioari buruzko prestakuntza ematea.
 - Ehunen bilketa sustatzea. Tartean dauden askotariko agenteen artean akordioak garatu eta ezartzea, dendetan ehunen hondakinak gaika biltzeko sistemak ezar ditzaten.
 - Diagnostikoaren emaitzetatik abiatuta, landare olioak sustatzeko mekanismoak aztertzea.
 - Zerbitzuak optimizatzeko azterlan bat egitea, askotariko bilketa eredu eta sistemen alderdi tekniko, ekonomiko eta ingurumenekoak jasoz. Azterlanean, gaur egungo bilketa eredu eta sistemen diagnostikoa, zerbitzuan eragiten duten ezaugarrien analisia, gabezien eta hobetzeko aukeren identifikazioa eta udalerrri bakoitzerako sistema onenaren proposamena jaso daitezke.
 - Irlako zerbitzu publikora sartzeko desegokiak diren edukien maximoak betetzen ez dituzten operadoreentzako tarifa bidezko zigorrak ezartzea.

Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)

- Udal hondakinen gaikako bilketa areagotzea garbiguneen bidez.

- Herritarren artean bilketa zentroen erabilera indartzea. Herritarrek bilketa zentroak erabiltzea errazteko ekintzak (hala nola, hedapena areagotzea, sarbidea hobetzea...).

- Garbiguneen funtzionamendua eta erabilera arautzea. Askotariko tresnen bidez; adibidez, ordenantza arautzaileak sortuz edo herritarrek eta ekoizle bereziek (industrialdeak barne) garbiguneak nola erabili zehaztuz, behar bezala funtziona dezaten.

D. Balorizazio materiala eta tratamendua

- Konposta egiteko instalazioen sare deszentralizatu bat eratzea.

- Konposta egiteko edo metanizazio instalazioen sarea frakzio organikoaren bilketaren ezarpenarekin lotuta dago. PDSRNP berriak instalazio berrien proposamena jasotzen du.

- Instalazioen funtzionamendua eta sarrerako baldintzak betetzeko premiak azaltzeko saio teknikoak egitea.

-Transferentzia estazioak egokitzea, bilketa fluxuetan eta hondakinak hautatzeko instalazioko fluxuetan oinarrituta.

- Transferentzia estazioen sarea egokitzeko programa egitea.

- Instalazioen funtzionamendu programa zehaztea ahalmenak maximizatzeko helburuarekin, instalazioaren askotariko erabiltzaileen sarbidea (egunak eta ordu tarteak) arautuz. Gaikako bilketa Kontseiluarekin koordinatuta egongo da.

- Ontziak hautatzeko instalazioaren tratamendu ahalmena handitzea.

- Garbiguneen sarea handitzea.

- Garbiguneen sare bat sustatzea, herritarrei frakzio txikien gaikako bilketa hurbiltzeko.

- Zerbitzua optimizatzeko aholkularitza teknikoa ematea.

- Hiriguneetan garbiguneen ezarpena indartzea, herritarrengana hurbiltzeko.

- Lohien tratamendua.

- Lohiak tratatzeko instalazioak hobetzea (PDSRNPmak jasotzen duen bezala).

- Kudeaketa prozeduren jarraipen eta hobekuntza etengabea egitea (programan jasotako prozedurena).

E. Sentsibilizazioa eta heziketa

- Askotariko intereseko agenteak hondakinen inguruan sentsibilizatu eta heztea.

- Hondakin fluxu guztien prebentzioa eta gaikako bilketa sustatzeko behar diren eremu guztiei bideratutako material egokia egitea (gida teknikoak, irakasleentzako elementu didaktikoak, liburuxkak eta abar).

- Prebentzioa eta gaikako bilketa sustatzeko behar diren eremu guztiei bideratutako sentsibilizazio kanpainak egitea.

Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)

Kolektibo jakin batzuetarako prestakuntza eta komunikazio jarduera espezifikoak egitea; hala nola, eskoletarako, etxetresna elektrikoen dendetarako, toki erakundeetarako, hondakinen sektoreko langileentzako eta beste sektore batzuetarako.

- Bisitak, tailerrak eta jardunaldiak antolatzea.
- Ingurumen heziketako programa.
- Komunikazio kanpaina bat garatzea, Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko Plan Sektorial Gidariaren onespeneren harira, hitzaldiak, webgunearen hedapena, prentsa oharrak eta herritarren parte-hartzea barne hartuko dituena.
- SCRAPekin eta hondakinen kudeatzaileekin lankidetzaz hitzarmenak egitea komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak abian jartzeko.
- Aurrekontu partidetan eta kontratuetan kanpainak eta sentsibilizazio jarduerak sartzea.

Ildo bakoitza bere atalean garatzen da, edukia eta lotutako neurriak, ezarpen eremua, xedek eta abar adieraztearekin batera. Hona hemen ekintza planaren deskribapen fitxa bat:

ACTUACIÓN		
Flujo de residuos Flujo de residuo que implica la acción	Línea de actuación	código
Ámbito de aplicación Agentes receptores de la actuación: ciudadanía, entidades, actividades económicas y equipamientos (en general, Ayuntamiento o centros educativos).		
complejidad Indica el nivel de complejidad de desarrollo de la acción: alta, media, baja	objetivo Indica el objetivo (cuantitativo o cualitativo) a quien va dirigida la actuación	
Descripción Objeto de la actuación, explicando en qué consistirá y qué motivos justifican su implantación.		
Propuesta de indicadores de seguimiento Definición de un conjunto de posibles indicadores para evaluar y valorar el desarrollo y resultados de las medidas aplicadas.		
Indicadores de resultados Adicionalmente, se definen unos indicadores relacionados con los resultados de la gestión de residuos de la actuación.		

Halaber, proposatutako jarduerak zerrendatzen dituen taula bat egin da, material fluxuen eta ildo estrategikoen araberakoa.

Tresnak

Planak berak ez ditu neurriak eta tresnak bereizten; jarduketa ildo deitzen die guztiei. Bertan planteatzen diren neurri batzuk tresnen atalean sartu dira.

A. Baliabideen aurrezpena eta hondakinen prebentzioa

Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)

- Ikastetxeetan behin bakarrik erabiltzeko ontziak eta bilgarriak prebenitzeko politikak txertatzea.
 - Ikasleak kontzientziatzea eta tresnak ematea (hala nola, zakote ontziak, bilgarri berrerabilgarriak eta informazioa, etxeetan ingurumen arloko jarduera on horien berri izan dezaten).
 - Eskolak sustatzea, ontzi berrerabilgarriak erabil ditzaten (adibidez, ur pitxerrak), ontzi berrerabilgarria duten produktuak edo solteko produktuak eros ditzaten, ingurumen arloan jarduera onak egiten dituzten hornitzaileak bila ditzaten, eta abar.
- Erosketak, kontratazioa eta emakidak ingurumen edukiz hornitzea, hondakinak prebenitzeko irizpideekin.
 - Produktuak erosteko irizpide batzuk txertatzea: berrerabiltzeko aukera, hondakin gutxiagoren sorkuntza, toxikotasunaren iraunkortasuna eta murrizketa, eta abar. Era berean, beste irizpide batzuk gehitu daitezke, hala nola, produktu birziklatuak edo bidezko merkataritza ekologikoko produktuak erostea.
 - Administrazio publiko bakoitzaren sail guztietan nahiz zerbitzu publikoekin zuzenean lotuta dauden jardueretan (elkarteak, zerbitzuen enpresa pribatuak...) erosketa berdea sustatzea.
- B. Gaikako bilketa
 - UHFOa kontrolatzeko eta kalitatea hobetzeko plana.
 - UHFOa karakterizatzeko plana. UHFOaren bilketa hobetzeko eta elementu ezegokien kopurua murrizteko neurriak. UHFOa karakterizatzeko plana PDSRNPMAren II. eranskineko jarraipen estrategien zati da.
 - Irlako Kontseiluak euskarri teknikoak ematea. Xedea lortzeko, Kontseiluak UHFOa kontrolatu ahalko du eta beharrezkoa izanez gero, UHFOaren kalitatea hobetzen lagunduko duten neurriak eta aholkuak emango ditu.
 - Jarduera onak trukatzeko saioa. Kontseiluak xedea lortzeari begirako saioak eman ahalko ditu.
 - Zigor politika bat ezartzeko aukera aztertzea.
 - Irlako zerbitzu publikora sartzeko desegokiak diren edukien maximoak betetzen ez dituzten operadoreentzako tarifa bidezko zigor neurriak ezartzea.
- C. Sentsibilizazioa eta heziketa
 - Irlako Kontseiluaren hondakinei buruzko komunikazio plan bat sortzea.
 - Premiak ebaluatuko dituen sentsibilizazio eta kontzientziazio estrategia bat egitea eta behar diren kanpainak programatzea. Estrategian honako hauek sartuko dira:
 - Informazioa bateratzeko zeharkako mezu garrantzitsuenen, komunikazio bideen eta publiko edo sektore hartzaileen identifikazioa.
 - Erabilgarri dauden komunikazio materialen identifikazioa eta karakterizazioa (hala nola, ikasgela berdea, erakusketak eta abar).
 - Hedapenean sartuta dauden agente guztiak koordinatzeko metodoak.
 - Ingurumen arloko boluntarioritza jardueraren plangintza.
 - Kanpainak egiteaz arduratzen diren askotariko agenteen koordinazioa.
 - Komunikaziorako tresna berrien ezarpena.
 - Toki erakundeek komunikazio tresnak ezar ditzaten sustatzea, hondakinak –ikuspegi praktiko eta baliagarri batetik– herritarrengana hurbiltzeko xedez.
 - Planaren esparruan garatutako ekintzak kontsultatzeko webgune espezifiko bat egitea.
 - Eremu ezberdinetako agenteen artean jardunaldiak antolatzea. - Hondakinaren kudeaketaren inguruan ikuspegi orokor eta osoa edukitzeko bilerak egitea proposatzen da, sektoreko askotariko agenteen artean sinergiak bilatzeko.
 - Komunikazio estrategia bat sortzea sare sozialen bidez.

Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)

- Urteko birziklatzaile onenarentzako saria sortzea. Datuak gordetzeko base bati esker, udalerrri onenak identifikatu ahalko dira.

- CIEAn elementu berritzaileak sor daitezen sustatzea.

D. Ingurumen fiskalitateko estrategiak

- Udal mailan zerga tresnak garatzen laguntzea.

- Zerga tresnak ezartzea gaikako bilketa bultzatzeko. Gaikako bilketan emaitza onenak dauzkaten sortzaileentzako zerga pizgarriak ezartzea edo, kontrara, bilketa sisteman behar bezala parte hartzen ez dutenei zerga zigorrak ezartzea proposatzen da. Ekoizle bereziei eta/edo herritarrei zerga tresna positibo nahiz negatiboak ezarri gero, eragile guztiak zuzenean inplikatu dira hondakinen kudeaketa egokian. Tresna horiek arautzeko udal ordenantzak egin beharko dira.

- Sortzeagatiko ordainketa sistemak ezartzeko aukera aztertzea. Hondakin tasa finkoa ordaintzeak ez du ez prebentzioa, ez hondakinak behar bezala bereiztea sustatzen; beraz, hondakinak sortzeagatiko ordainketa sistemak kontuan hartzeko alternatiba dira. Hondakinak sortzeagatiko ordainketa neurriak etxeetan eta merkataritzan aplikatu ahalko dira. Sistema ezberdinak aztertzea proposatzen da, bilketa sistemekin eta hiri dentsitatearekin egokienak direnak hautatzeko.

- Hondakinak egoki kudeatzearekin zerikusia duten zerga neurriak ezartzea. Hondakinen kudeaketa jasangarrian izandako inplikazio mailarekin (garbigunearen erabilera, autokonpostajea, eta abar) zerikusia daukaten hobariak eta zigorrak sartzea ordenantzetan.

- Toki erakundeei ingurumen arloko zerga kontzeptuak jasotzen dituzten udal ordenantzak egiten laguntzea. Ordenantza horiek ekoizleen erantzukizun printzipioa eta "kutsatzen duenak ordaintzen du" printzipioa ezartzea ahalbidetuko dute eta hondakinen bilketa bereizia hobetzea sustatzeko tasak ezartzeko aukera jaso.

- IKT tresnak ezartzea hondakinen kudeaketa kontrolatu eta kudeaketa horren jarraipena egiteko.

- Hondakinen kudeaketari eta ekoizpenari dagozkien informazioa eta tratamendua erregistratzeko aplikazio informatiko bat zehaztu, garatu eta ezartzea. Aplikazio horrekin, besteak beste, informazioa erregistratu, estatistikak atera eta ikuskapen jarduera erraztu ahalko da eta bereziki azpimarratuko da ekoizle handien informazioa.

- Administrazio elektronikoaren moduluak txertatzea toki erakundeekin eta beste administrazio batzuekin hondakinei buruzko datuak trukatzeko.

- IKT tresnen inguruko prestakuntza eman eta tresnok hedatzea hondakinen kudeaketa kontrolatu eta kudeaketa horren jarraipena egiteko.

- Ingurumen arloko neurriei eta zaintzari buruzko planaren bisore bat sortzea, hondakinak tratatzeko instalazioetara loturikoa.

- Garbiguneetan baskulak jartzea instalaziora sartzen diren hondakinei buruzko datuak hobeto kontrolatzeko.

- Hondakinen kudeaketari, sorkuntzari eta trazabilitateari buruzko ezagutza areagotzea.

- Hondakinen kudeatzaileek eta ekoizleek ingurumen administrazioari urteko aitorten baten bidez eman behar dioten informazioa erregulatzea (alderantzizko logistika sistema barne).

- Informazioa software informatikoarekin sartzeko sistema bat sortzea bildutako hondakinekin zerikusia duten datuak sartzeko.

- Hondakinei buruzko informazio erabilgarriaren diagnostikoa eta aldizkako eguneraketa. Erreduzko poltsaren urteko kalkulua, udal hondakinak kudeatzeko askotariko kudeaketa bideen diagnostikoa eta errefusa frakzioko elikagai xahuketaren karakterizazioa.

Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)

- Landare frakzioaren, landare olioaren eta ehunen sorkuntzari eta kudeaketari buruzko diagnostikoa. Egungo sorkuntza eta kudeaketa aztertuko dira problematikak eta hobekuntza posibleak identifikatzeko, frakzioa behar bezala kudea dadin.
 - EEHen kudeaketari buruzko dokumentazioaren jarraipena eta analisia indartzea, sorkuntza, jatorria, helmuga eta tipologia zein den jakiteko.
 - GEEHetarako informazio sistema bat ezartzea kudeaketaren trazabilitatea bermatzeko.
 - Datuen behatoki bat sortzea. Kudeatzaile pribatu handien bidez kudeatutako hondakinen datuak eta trazabilitatea lortzeko lan egitea.
 - Hondakinen kudeaketari buruzko datuekin gardentasunez jokatzeko eta datuok hedatzea.
 - Hondakinen kudeaketako plangintza tresnei buruzko webgune espezifiko bat abian jartzea, xedeen lorpenean eta ezarritako neurrietan izandako aurrerapenak ikusteko.
 - Hondakin bereziak entregatzeko gune hurbilak (adibidez, oliorako, GEEHetarako edo piletarako edukiontzi hurbilak) lokalizatzeko tresna bat sortzea.
 - Komunikabideekin lankidetzan eta koordinatuta ibiltzea, hondakinen kudeaketari buruzko informazioa emateko eta hondakinei buruzko albisteak, jarduerak eta jardunaldiak horietan txerta ditzaten sustatzeko.
- E. Hondakinak abandonatzea
- Ontzien Gordailu, Itzulketak eta Itzulera Sistemak (SDDR) sustatzea.
 - SDDR baten ahalak aztertuko dituen ezarpen plan bat egitea, Mallorcaren berezitasunak aintzat hartuko dituen.
 - EEHak kudeatzeko fidantza sistema erabiltzea, hondakinak kontrolik gabe isuri ez daitezen.
 - EEHen eta EEPen sorkuntzak eta azpiegiturak duten egoeraren gaineko azterlan xehea.
 - Agregakinak birziklatu eta berrerabiltzeko irizpideak aztertu eta zehaztea.
 - Kontratazio orrietan EEHak eta EEPak murrizteko eta behar bezala kudeatzeko neurriak sar daitezen sustatzea. Zehazki, EEHen kasuan, fidantza sistema erabiltzea kontrolatu gabeko isurketak saihesteko.
 - Toki erakundeekin koordinatzeko kanalak ezartzea, kontrolatu gabeko isurketa guneak nahiz erantzuleak identifikatzeko.

Gainera, Balear Irlako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko [otsailaren 19ko 8/2019 Legea](#) daukate. Illes Balears-eko Gobernuak sorturiko Balear Irlako Hondakinen Entitateak hondakinak prebenitzeko bulego bat izango du, eginkizun hauekin:

- a) Prebentzioa sustatzea.
- b) Berrerabilpena, birziklapena, materiala balorizatzeko bestelako moduak eta 8/2019 Legearen 22.2 artikuluan aurreikusten diren neurri guztiak sustatzea.
- c) Hondakinei eta ekonomia zirkularrari buruzko datuen behatokiak hondakinen karakterizazioa eta xedeak kalkulatzeko behar den bestelako informazioa sustatuko ditu.
- d) Hondakinen kudeaketan lan egiten duten agenteen artean aliantzak bilatzea.
- e) Hondakinen inguruko lantaldeak sortu eta dinamizatzea.
- f) Balear Irlako hondakinak prebenitu eta kudeatzeko plan sektorial gidarien eta programen jarraipena egitea.
- g) Hondakinei eta ekonomia zirkularrari buruzko kontsulta orokorrak bideratzea.
- h) Hondakinen arloko jarduera onen inguruko komunikazio, sentsibilizazio eta ingurumen alorreko heziketa kanpainak bultzatzea.
- i) Udalei laguntzea 8/2019 Legea garatzeak dakarren gutzian.

Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)

Legearen esteka: <https://www.boe.es/eli/es-ib/l/2019/02/19/8>

Eginkizun sorta horrek, 8/2019 Legearen 36. artikuluan aurreikusten den finantzazioarekin batera (Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Funtsaren bidez), planeko kudeaketa eta prebentzio ekintzen multzoa eraginkortasunez betetzea ahalbidetuko du.

Gainera, udal mailan nahiz udalaz gaindi aplikatzeko ingurumen adierazleen sistema bat dauka, jarraipena egitekoa, zeinaren xedea baita hondakinen sorkuntza –tipologiaren arabera– eta kudeaketa monitorizatzea, irlako zerbitzua osatzen duten ekipamenduen bidez.

LÍNEA ESTRATÉGICA	FLUJO MATERIAL	INDICADOR	DESCRIPCIÓN	UNIDAD DE MEDIDA
Ahorro de recursos y prevención de residuos	Conjunto de residuos	Generación de residuos municipales y totales	Cantidad de residuos urbanos recogidos por habitante de hecho y año. El indicador se calcula mediante el cociente entre los residuos recogidos mediante diferentes vías (fracción resto, selectiva, puntos limpios y otras instalaciones) y el Índice de Presión Humana (IPH).	Cantidad total de residuos recogidos (generados) por flujo de residuos (Tn / año) % de reducción total y por flujo de residuos con respecto al año base de referencia (Tn / año) Cantidad de residuos evitados por medidas específicas de prevención (Tn)
		Información, sensibilización y concienciación en medidas de prevención	Implicar y formar a los diferentes agentes implicados del valor de los productos, sobre la importancia de la prevención de residuos y del cumplimiento de la jerarquía de gestión para la reducción de la huella ecológica.	N.º de acuerdos alcanzados con Entidades para la prevención de residuos N.º acciones de formación, campañas, etc. realizadas
		Instrumentos de promoción de la prevención	Potenciar instrumentos y herramientas que incentiven la prevención de residuos como parte fundamental de los planes y políticas públicas, con el enfoque de minimizar los impactos ambientales generados y desarrollar oportunidades de empleo	N.º de medidas de prevención implantadas en la Administración

Aurreikuspena

HONDAKIN FLUXUEK ETORKIZUNEAN IZANGO DUTEN BILAKAERAREN EBALUAZIOA:

Hondakinen ekoizpena 2016ko ekitaldiko datuetatik abiatzen da eta aldatu egin da hainbat agertoki osatzeko, kontuan hartutako hondakin mota bakoitzaren erreferentziako ekoizpenaren gainean koefiziente sinpleak aplikatuz.

Landutako agertokiak, gutxi gorabehera, honako hauek kuantifikatzeko baino ez du balioko: egungo tratamendu ahalmenen balioespen desberdinei lotutako defizitak eta zenbait jarduketak balantzeetan izan dezaketen eragin kualitatiboa, ekoizpen batzuek gora egingo dutelako hipotesiaren arabera.

Honako hipotesi eta emaitza hauek sortu dira eta aplikatzea erabaki da:

1. Lehenengo hipotesirako, udal hondakinak beste fluxuetatik berezita tratatzea erabaki da.
2. Giza presioaren indizea (GPI) kontuan hartuta hondakinen sorkuntza ahalik eta gehien doitzeko, biztanle bakoitzak (GPI) urtean sortutako kg-ak kalkulatzeko, fluxuka, datuak dauzkaten fluxuen arabera. Ondoren, balio horien batez bestekoa egiten da,

Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)

	<p>fluxu guztietarako azken 5 urteak kontuan hartuta, nekazaritzako plastikoetan izan ezik, horietarako azken bi urteak soilik hartu baitira kontuan, daturik ez dagoelako. Eremu batek jasaten duen karga demografikoa egunero neurtzen duen adierazlea da GPIa. 2030eko GPIa lortzeko, lehenik eta behin, 2005-2016 aldiko igoeraren ehunekoaren batez bestekoa kalkulatu da eta, ondoren, ehuneko hori urteen arteko aldearekin biderkatu da, hau da, jatorrizko balioaren eta xedearen artean igarotako urteekin. 2030erako GPIa 1.370.880koa da.</p> <ol style="list-style-type: none"> 3. Beste hipotesi batean, fluxu bakoitzaren per capita sorkuntza kalkulatzeko orduan, kontuan hartu dira bai biztanle bakoitzak urtean sortutako kg-en batez bestekoa, bai xede urterako kalkulaturako GPIa, indize horrek fluxu guztiei berdin eragiten diela suposatuz (arazketa lohiei izan ezik, alor horretan ezin baitira hondakinak prebenitzeko neurriak aplikatu). 4. 2020an sortutako tonak kalkulatzeko, % 20ko murrizketa aplikatzen da, urtean per capita sortutakoaren batez bestekoari dagokionez (kg/bizt. urt.). 5. Azkenik, Balear Irlako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legearen aurreproiektuan ezarritako gaikako bilketaren helburuak aplikatzeko lanean ari dira. Markatzen diren gaikako bilketaren ehunekoak behar bezala kalkulatu ahal izateko, ereduzko poltsaren aurretiko azterketatik lortutako emaitzetan oinarritutako kalkuluak egiten dira. Errefusa frakzioa ateratzeko, gaikako bilketa kendu zaie udal sorkuntzaren guztizko tonei. <p>Azkenik, hipotesiak eginda, fluxu tipologia bakoitzetik sartu diren tonak kalkulatu dira.</p> <p>Tratamendu instalazioetan dauden edukiera premiak kalkulatzeko, instalazioen urtarokotasun faktorea (eta, beraz, puntarako edukiera eskakizuna) eta irteerak (errefusa barne) hartzen dira kontuan.</p>
<p>Sortzen ari diren hondakinak eta tresnak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hautaketa instalazio berriek diseinu modularra izan beharko dute instalazioaren edukiera handitzeko eta/edo material berriak hautatzeko. • Planaren ezarpen eremuko hondakin ez-arriskutsuak behar bezala kudeatzeko azpiegituren sarea definitzea, gaur egungo eta etorkizuneko kudeaketa premietan oinarrituta, autonomia erkidegoan, estatuan eta European adierazitako hondakinen kudeaketa helburuen arabera.

3. Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana	
Planaren dokumentua	http://www.gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/3295_plan_pigrn_anexo.pdf
Egitura	<p>Planak Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean kudeaketa planetarako eta prebentzio programetarako adierazitako edukiak biltzen ditu, 8 kapituluren eta 13 hondakin fluxuren bidez eta, gainera, isurketa murrizteko estrategia, kutsatutako lurzoruen gaia eta hondakinen mugaz gaindiko lekualdaketa ere jorratzen ditu.</p> <p>Honako hauek dira hondakin fluxuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Etxeko eta merkataritzako hondakinak. 2. Ontziak eta ontzi hondakinak. 3. Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak. 4. Bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuak. 5. Bizitza baliagarriaren amaieran dauden pneumatikoak. 6. Olio erabiliak. 7. Pilak eta metagailuak. 8. Eraikuntza eta eraispen hondakinak eta induskatutako material naturalak. 9. Araztegiko lohiak. 10. Poliklorobifeniloak eta polikloroterfeniloak. 11. Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak. 12. Industria hondakinak. 13. Hondakin sanitarioak. <p>Gainera, Hondakinen Planak Hondakinak Prebenitzeko Programa garatzen du. Programa hori kapitulu independente gisa sartzen da eta zeharka eragiten die hondakin fluxu guztiei, baina aplikazio neurri eta egutegi bereziak ditu, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legearen IV. eranskinean adierazitakoak eta egokitzen dituzten diren beste batzuk adibidetzat hartuta.</p> <p>Hondakinen Planak 7 xede estrategiko eta 51 xede espezifiko ezartzen ditu planaren garapena zuzentzeko eta, aldi berean, 78 neurritan eta 239 ekintzatan zehazten dira 40 jarraipen adierazlerekin.</p>
Oinarrizko helburuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. EKONOMIA ZIRKULARRA ETA KLIMA ALDAKETA: Baliabideen erabilera eraginkorra sustatzea, hondakin gutxiago sortzeko eta saihestu ezin direnak baliabide gisa erabiltzeko aukera emanez, lehiakortasunaren nahiz enplegu sozialaren eta berrikuntzaren sorrera bultzatuz eta klima aldaketaren aurkako estrategian lagunduz. 2. PREBENTZIOA: Ekoizpen jasangarria sustatzea, produktuen eta zerbitzuen ikerketa eta ekodiseinua produktuaren bizi zikloaren ikuspegitik sustatuz; halaber, kontsumo arduratsua eta hondakinen prebentzian parte-hartze aktibo eta elkarlanekoa bultzatzea. 3. GOBERNANTZA: Etxeko hondakinen kudeaketa publikoaren gobernantzan oinarritutako eredu bat ezartzea. Eredu horrek, gainera, zergen bidez arautuko ditu tratamendu aukerak eta sortzeagatiko ordainketa; gainera, ezarritako helburuak gainditzen dituzten aukerei hobariak emango dizkie eta kontuan hartuko du aukera berdintasuna. 4. KOMUNIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA: Hondakinen sorkuntzari eta kudeaketari eta horien ondorioei buruzko informaziorako sarbide zabala, gardena, estandarizatua eta ez-sexista eskaintzea eta horiei buruzko prestakuntza eta sentsibilizazio ahalik eta aurreratuenak garatzea (baita curriculum-erakoa ere), prebentzioarekin eta birziklatzearekin konprometitua eta aktiboa izango den gizarte bat lortzeko, hondakinen sorkuntza eta arriskugarritasuna gutxituko dituen eta hondakinak baliabide gisa erabiltzeko geroz eta aukera handiagoa izango duena.

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

	<p>5. BERRERABILITZEKO PRESTAKETA: Kalitate handiko gaikako bilketa baterantz aurrera egitea. Bilketa sistema horrek hondakinen berreskurapena eta birziklapena maximizatuko ditu; hondakin sortzaileen (herritarrak, enpresak etab.) erantzunkidetasuna bermatuko du eta genero berdintasunaren printzipioa kontuan hartuko du, ohiko kudeaketa bideetatik eta prozesatzeko bide berrietatik abiatuta; bereziki, etxeko biohondakinei eta industria hondakinei dagokienez. Horretarako, beharrezkoa izango da kostu txikiko eta hurbileko azpiegitura publikoen zuzkidura nahikoa izatea etxeko hondakinak (biohondakinak etab.) tratatzeko, bai eta dauden tratamendu instalazioen eraginkortasuna handitzea ere.</p> <p>6. GAIKAKO BILKETA ETA BIRZIKLAPENA: Kalitate handiko gaikako bilketa baterantz aurrera egitea. Bilketa sistema horrek hondakinen berreskurapena eta birziklapena maximizatuko ditu; hondakin sortzaileen (herritarrak, enpresak etab.) erantzunkidetasuna bermatuko du eta genero berdintasunaren printzipioa kontuan hartuko du, ohiko kudeaketa bideetatik eta prozesatzeko bide berrietatik abiatuta; bereziki, etxeko biohondakinei eta industria hondakinei dagokienez. Horretarako, beharrezkoa izango da kostu txikiko eta hurbileko azpiegitura publikoen zuzkidura nahikoa izatea etxeko hondakinak (biohondakinak etab.) tratatzeko, bai eta dauden tratamendu instalazioen eraginkortasuna handitzea ere.</p> <p>7. DEUSEZTAPENA: Ahalik eta hondakin gutxien uztea zabortegean (bereziki, birziklagarriak), eta ez dadila tratatu gabeko hondakinik iritsi; hau da, zuzeneko zero isurketa.</p>
<p>Xede espezifikoak</p>	<p>1. PREBENTZIOA.</p> <ul style="list-style-type: none"> -Hiri hondakinak. Hondakin kopurua eta materialetako nahiz produktuetako gai kaltegarrien edukia murriztea, 2020an hondakinen % 10eko murrizketa lor dadin 2010ean sortutakoen aldean, eta 2027an % 12ko murrizketa lor dadin lehen aipaturiko urte berean sortutakoen aldean. - Biohondakinak. <ul style="list-style-type: none"> a. Bilketa bereiziko frakzio organikoa (BBFO) 2020rako % 75ekoa izatea eta 2022rako % 100ekoa. b. BBFOen gaikako bilketa nahitaezkoa izatea: 2020an % 50, eta 2022an % 70. c. 2020an elementu ezegokiak % 20 izatea eta 2027an % 10. - Ontziak ez diren metalak eta plastikoak. Etxeko eta merkataritzako hondakinak materialen arabera (ontziak eta bestelakoak) gaika biltzeko joeran aurrera egitea, gaikako bilketa ezartzeak dituen inpaktuak aztertu eta bestelako bilketa aukerak ikertu ondoren. - Etxeko HAK. Garbiguneen sarea indartzea, eskala handiagoko gainerako gaikako bilketen kalitatea hobetzeko moduan. - Tamaina handikoak, GEEHak eta ehunak. Etxeko bilketa 2020an % 25ekoa izatea, 2022an % 50ekoa izatea eta 2027an % 100ekoa izatea. - EEHak. <ul style="list-style-type: none"> d. Obra xeheetatik datozen hondakinak biltzeko sarea indartzea; 2020an % 75 eta 2022an % 100. e. Eraikuntza, eraispen- eta/edo birgaiketa lanetatik datozen hondakinak ondo bereiz daitezten lortzea, gero baliabide gisa aprobetxatu ahal izan daitezten. -Ontzi hondakinak. Ontzien gaikako bilketa maximizatzea; 2020an % 5 eta 2027an % 10. - Merkataritzako eta industriako ontzien hondakinak. Merkataritzako eta industriako ontzien bilketa bereizirantz eta zenbaketa bereizirantz aurrera egitea, toki erakundeek etxeko hondakinen kudeaketan dituzten eskumenak mugatuz. - Zeharkakoa. Planean ezartzen diren gaikako bilketa eredu berriein espero den eraginkortasuna lortzea.

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

- Pilak eta metagailuak. 106/2008 Errege Dekretua betetzea, 710/2015 Errege Dekretuak emandako idazketan. Gutxienerako bilketa indizeak.
- Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak. Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinetarako bilketa sistema egonkorak sustatzea.
- Industria hondakinak. Gaikako bilketa maximizatzea, industria hondakinen nahasketak saihestuz.
- Etxeko eta merkataritzako hondakinak. PEMARen ezarritako xedeak lortzea eta etxeko nahiz merkataritzako hondakinen kasu batzuetan, xede horiek gaintzea.
- GEEHak. 110/2015 Errege Dekretuan berrerabiltzeko prestaketarako eta birziklapenerako ezartzen diren xedeak betetzea.
- Erabiltzen ez diren ibilgailuak. Erabiltzen ez diren ibilgailuen piezak eta osagaiak berrerabiltzeko prestaketan aurrera egitea; 2020an, % 5.
- Erabiltzen ez diren pneumatikoak. Bizitza baliagarriaren amaieran dauden pneumatikoak berrerabiltzeko prestaketa sustatzea, PEMARen ezarritako gutxienerako xede kuantitatiboetara mugatuz.

2. BIRZIKLAPENA-BALORIZAZIOA.

- Etxeko eta merkataritzako hondakinak. Biohondakinak. Bildutako kopuruaren birziklapena eta/edo balorizazioa maximizatzea.
- Etxeko eta merkataritzako hondakinak: ontziak. Birziklapena maximizatzea.
- Etxeko eta merkataritzako hondakinak: guztiak. PEMARen ezarritako xedeak lortzea eta zuzentarauan ezarritako estrategian aurrera egitea.
- Etxeko eta merkataritzako hondakinak: tamaina handikoak. Birziklapen xedeak lortzea bildutako kopuruari dagokionez: 2022an % 50 eta 2027an % 60.
- Etxeko eta merkataritzako hondakinak.
 - a. Errefusa frakzioaren tratamendua 2027a baino lehen % 100ekoa izatea.
 - b. 2027an % 75 birziklatzea.
 - c. 2027an balorizazioa % 80koa izatea.
- GEEHak.
 - a. 110/2015 Errege Dekretuan berrerabiltzeko prestaketarako eta birziklapenerako ezartzen diren xedeak betetzea, kategoriaka.
 - b. 110/2015 Errege Dekretuan ezartzen diren xedeak betetzea, kategoriaka.
- Olio erabiliak.
 - a. 2027an balorizazioa % 100ekoa izatea.
 - b. 2027rako berreskurapena % 95ekoa izatea.
 - c. 2027rako birsorkuntza % 65ekoa izatea.
- EEHak.
 - a. 2020an EEHen balorizazioa % 70ekoa izatea.
 - b. Induskatutako material naturalen (IMN) balorizazioa 2020an % 90ekoa izatea.
- Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak. Bildutako hondakinen birziklapena eta/edo balorizazioa maximizatzea.
- Industria hondakinak.
 - a. Balorizazio bide berriak bilatzea.
 - b. Bildutako hondakinen birziklapena eta/edo balorizazioa maximizatzea.
- Hondakin sanitarioak. Fluxu horren erregularizazioa.

3. DEUSEZTAPENA TXIKIAGOTZEA.

- Etxeko eta merkataritzako hondakinak.
 - a. Hondakinen frakzio birziklagarrien zero isurketa.
 - b. Hondakinak zabortegian onartzeko prozesuak betetzea.

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

	<ul style="list-style-type: none"> c. Hondakin biodegradagarrien isurketa murrizteko estrategian aurrera egitea. d. Zaborte-gira tratatu gabeko hondakinik ez iristea lortzea; hau da, zuzeneko zero isurketa. e. Hondakinak zaborte-gietan uzteko joera ahal denik eta gehien murriztea. <p>- EEHak.</p> <ul style="list-style-type: none"> f. Zaborte-gian deuseztatzen diren EEHen HEA kopurua mugatzea. g. Hondakin geldoen zuzeneko isurketa. h. Zaborte-giko deuseztapena mugatzea. <p>- Industria hondakinak. Uzten diren hondakinen eta zaborte-giko hondakinen kudeaketari buruzko informazioa kontrolatzeko mekanismoak hobetu eta indartzea.</p> <p>4. KOMUNIKAZIOA. Zeharkakoa. Hondakinak prebenitu eta kudeatzeari buruzko komunikazio neurri eta ekintzen bidez sustatzea, agente giltzarri guztien laguntzarekin.</p> <p>5. JARRAIPENA ETA KONTROLA. Zeharkakoa. Jarraipen eta kontrol ekintzen bidez hondakinen kudeaketa egokia izan dadin laguntzea, baita kutsatu dezaketen jardueretan eta lurzoru kutsatuei buruzko ikerketetan ere.</p> <p>6. GENERO BERDINTASUNA. Zeharkakoa. Hondakinen kudeaketan aukera berdintasuna bermatzea.</p> <p>7. ENPLEGUA. Zeharkakoa. Kalitateko enplegua sortzen dela bermatzea, Hondakinen Plana ezarriz.</p>
<p>Jarduketa giltzarriak</p>	<p><u>PREBENTZIOA. Zeharkakoa:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Europar eta estatuan hondakinen prebentzioari bideratuta dauden egitasmoak eta proiektuak sustatu eta babestea. - Udal esparrua erabiltzea, Tokiko Agenda 21 programen eta Kontsumitzaileari Informazioa emateko udal bulegoen bidez, hondakinak prebenitu eta kontsumo jarraibideak aldatuko dituen ekonomia zirkularrago bateranzko ekintzak sustatzeko, toki mailan. - Erosketa publikoetan zirkulartasun alderdia txertatzea. - Nafarroan hondakinak prebenitzeko dagoen ahala eta merkatu aukerak ikertzea. - Toki erakundeei laguntzea 2020rako haien jardun eremuan prebentzio planak egin ditzaten. - Planaren jarraipena egiteko batzordean prebentziorako lantalde bat sortzea. - Nafarroako Foru Komunitateak hondakinak prebenitzeko plan eta estrategia europar nahiz estataletan parte hartzea. - Gobernuko erakundeetan hondakinak kudeatzeko planak ezartzea. - Informazioa hobetzeko tresnak garatzea Nafarroan oinarritzko prebentzio ildo egokia egon dadin. - Biohondakinetan dauden kutsatzaile arriskutsu eta berriak aztertzea. - Lortutako ongarrietan dauden kutsatzaile arriskutsu eta berriak murrizteko neurriak garatzea. <p><u>PREBENTZIOA. Biohondakinak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Funtsezko hainbat erakundek bultzatutako ekimenak babestea, Nafarroa osoan elikagai aprobetxagarriak nahiz aprobetxatu ezin daitezkeenak biltzea ahalbidetzeko, edukiontzira edukia bereizi gabe isurtzea saihesteko eta funtsezko erakundeek dagoeneko funtzionamenduan dauzkaten esperientziak zabaltzeko. - Administrazio publikoen, ikastetxeen eta sukaldaritza zerbitzu kolektiboen agerietan hondakinak prebenitzeko irizpideak dituzten sukaldaritza zerbitzu kolektiboek zuzendutako eredu-zko pleguak egitea, Nafarroako Udalerrien eta Kontzejunen Federazioarekin, Elikagaien Bankuarekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan. - Agente giltzarriek prestakuntza eta aholkularitza ematea elikagai xahuketa murrizteari begira.

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

PREBENTZIOA. Ontziak:

- Estatuan Gordailu, Itzulketak eta Itzulera Sistemak (SDDR) arautzeko eta ezartzeko dauden ekimenen inplikazioak aztertzea eta Nafarroan SDDR-ren erreferentziako esperientziak ezartzearen bideragarritasuna aztertzea.
- Enpresek, gizarteak eta toki erakundeek ontziak murriztu eta berrerabiltzeko abiatzen dituzten egitasmo berritzaileak bultzatu eta indartzea (esnea saltzeko makina jartzea, iturriko uraren kontsumoa bultzatzea eta jaietan, ekitaldietan eta abarretan berrerabil daitezkeen produktu eta objektuen erabilera sustatzea).
- Enpresei eta erantzukizun zabalduko sistemari jarraipena egin eta laguntza ematea eta ontzien urteko aitorpena nahiz enpresako prebentzio plana egin behar duten enpresen erregistroko informazioa hobetzea, urtero lortutako emaitzen jarraipena egin eta horien berri emateko.
- Industria sektorean funtsezkoak diren agenteei ekodiseinuaren arloko eta ekonomia zirkularraren printzipioei buruzko prestakuntza ematea, erantzukizun zabalduko sistemekin koordinatuta.
- Nafarroan ekotzitako ontzietan ekodiseinua sustatzeko neurriak eta jarduera onak atzeman eta hedatzeko tresnak abiatzea (hala nola, sariak), erantzukizun zabalduko sistemekin koordinatuta.
- Postaz jasotzen den eta nahi ez den doako publizitatearen datu errealak lortzeko azterlanak egitea (jatorria, izenduna ala ez, nahi ez denaren balioespina etab.), berrerabiltzeko ahala ebaluatzea eta publizitate hori minimizatzeko neurriak proposatzea.
- Nafarroako Foru Komunitateak ontziak prebenitzeko lantalde, plan eta estrategia europar nahiz estataletan parte hartzea.
- HORECA (hotelak, sukaldaritza eta kafetegiak) sektoreko ontzi berrerabilgarriak: ontzi eta edari jakin batzuk berrerabiltzeko gutxieneko kopuruak edo helburuak finkatzea eta ostalaritzak merkataritza-ekintzailatza gisa ordaintzen dituen tasak ontzi berrerabilgarrien erabileraren mende egoteko aukera aztertzea, baita egungo edo etorkizuneko irizpideen mende egoteko aukera aztertzea ere; hala nola, konposta biltzen parte hartzea, jaietan ere kristalezko edo plastikozko edalontzi berrerabilgarriak erabiltzea etab.).
- Herritarrek ontzi berrerabilgarriak erabiltzea: Erabilera helburuak ezartzea eta merkataritza establezimenduetan ordaindu beharreko tasak proposatzeko irizpideetako bat honako hau izateko aukera aztertzea: apalategietan dituzten ontzi berrerabilgarrien kopurua, ontzi horien ikusgarritasuna eta guztizkoarekiko saldutako kopurua. Berrerabilpenaren gutxieneko ehunekoak ezartzeko aukera baloratzea, ehuneko horietara iristen ez diren markei tasa bereziak kobratzeko aukerarekin.
- Tamaina handiko hondakinak, liburuak, bestelako objektuak, GEEHak eta ehunak konpondu eta berrerabiltzeko egitasmoak (trukerako guneak eta azokak, adibidez) sustatu eta babestea.
- Tamaina handikoei eta ehunei buruzko azterlan bat egitea, prebentzio ahala eta horretarako har litezkeen neurri egokiak zehazteko.

PREBENTZIOA. Tamaina handikoak, GEEHak, erabiltzen ez diren pneumatikoak eta ibilgailuak, nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak:

- Administrazio publikoan bigarren eskuko pneumatikoak erabil daitezkeen eta kontratazio publiko jasagarrian EEPetatik datozen materialak erabil daitezkeen sustatzea.
- EEletatik datozen eta berrerabilpenera bideratzen diren piezei buruz dagoen informazioa hobetzea, ehunekoak material moten arabera emanez.
- Tratamendurako zentro baimendu guztiei berrerabilpenera bideratutako piezak kudeatzeko eta merkaturatzeko dagoen softwarea ematea; zentro batzuetan erabiltzen dute dagoeneko.
- EEletatik datozen eta berrerabilpenera bideratzen diren piezei buruz dagoen informazioa hobetzea, ehunekoak material moten arabera emanez.

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

- Produktuen eta osagaien konponketa, zaharberritzea eta birmanufaktura sustatzea, ordezeko piezen eskuragarritasuna erraztuz, produktuen bizitza baliagarria handitzeko aukera ematen baitute, eta prebentzioa kuantifikatzeko jarraipena egitea.
- Nekazaritzan eta abeltzaintzan plastiko konbentzionalen eta fotodegradagarrien ordezeko plastiko konpostagarriak eta biodegradagarriak erabil daitezten sustatzea.
- Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak minimizatzen bideratutako teknologia eta teknika erabilgarri onenak (TEO) sustatzea.
- Nekazaritza sektorea prestatzea, nekazaritzan erabiltzeko plastikoen (NEP) erabilera ona sustatzeko eta horien kopurua minimizatzen, funtsezko agenteekin koordinatuta (sindikatuak, INTIA etab.).
- EEPen pilaketa abandonatuen inbentarioa egitea eta behar bezala kudeatzea.

PREBENTZIOA. EEHak:

- Ekimen publiko nahiz pribatu bidez sustatutako eraikuntza proiektuetako baldintza teknikoaren agerian honako hauek sar daitezten sustatzea: agregakin birziklatuen gutxiengo ehuneko bat eta higiezinaren eraikuntza fasean, ustiapen fasean eta bizitza baliagarriaren amaierako fasean hondakin gutxiago sortzen bideratutako diseinu eta eraikuntza alternatibak.
- Hondakinak sortzea prebentzeko, ondoren materialak birziklatzea errazteko eta material birziklatuak sartzeko neurriak jasotzen dituzten proiektuei bide egiteko balorizazio prozedura bat ezartzea.

PREBENTZIOA. Bestelako fluxuak:

- Kontratazio publiko jasangarrian birsortutako olioak erabil daitezten sustatzea.
- Kutsatzaile berriek hiriko hondakin-uren araztegiatiko lohien kalitatean izan dezaketen eragina eta afekzioa aztertzen azterlanak egitea.
- Kudeaketan, baimenetan eta administrazio egintzetan hierarkia printzipioa ezartzea industria hondakin ez-arriskutsu (IHEA) mota bakoitzerako.
- Sektorea/jarduera erreferentziako ratio berriak ezartzea, hondakin arriskutsuen sorkuntza zenbatzeko eta, horrela, sektore/jarduera berean hondakin gehiago sortzen duten enpresak identifikatzeko, hondakinen murrizketa dinamizatze aldera.
- Nafarroako Gobernuaren askotariko sail eta sekzioen artean komunikazio kanalak sortu eta sustatzea, azpiproduktuak eta bigarren mailako lehengaiak erabil ditzaten, IHEAen ekoizpena eta lehengai berrien kontsumoa murrizteari begira.
- HAen urteko inbentarioa berrikustea, LER kode bikoitza edo "ispilu kodea" duten hondakinak identifikatzeko eta hondakin horiek ahalik eta kudeaketa onenera bideratzeko, desklasifikazio proposamen bat eginez eta desklasifikazio gida bat argitaratuz.
- Sektorea/jarduera erreferentziako ratio berriak ezartzea hondakin ez-arriskutsuen sorkuntza zenbatzeko eta, horrela, sektore/jarduera berean hondakin gehiago sortzen duten enpresak identifikatzeko, hondakinen murrizketa dinamizatze aldera.
- Baimen berrien bidez, hondakinak in situ tratatzeko ekipamenduak eta hondakinak murriztu eta kudeaketa hobetzeko teknologiak ezar daitezten sustatzea, enpresa onenetan ezarritako barne kudeaketako neurri buruzko informazioa emanaz.
- Ontzien urteko aitortzea nahiz enpresako prebentzio plana egin behar duten enpresen erregistroa ezartzea jarraipena eta kontrola hobetzeko.
- Ekoizpen prozesu batetik eratorritako eta erabilera espezifiko bakar batean erabilgaitako substantzia edo objektu bat azpiproduktutzat hartu ahal izateko baldintzak betetzeko neurriak bultzatzea. Azpiproduktuen merkatua indartzea.
- Industria sektore bakoitzean prebentzioari buruzko TEOen ezarpena sustatzea; bereziki, hondakin arriskutsuak sortzen dituzten sektoreetan.

GAIKAKO BILKETA. Biohondakinak:

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

- Toki erakundeek materia organikoaren gaikako bilketarako proposamenak eguneratzea, 2020-2022 aldirako kronogramarekin bat (% 75 -% 100).
- Autokonpostajea sustatzea, erraz egin daitekeen tokietan (etxeko konpostajea hiri eta landa inguruneetako etxebizitza horizontaletan, komunitateko konpostajea eta autokonpostajea garbiguneetan).
- Eskalako kudeaketarako jarduerak sustatzea egokitu daitekeen eremuetan, sinergiak ezarritz nekazaritza eta abeltzaintzako ustategien edo lotutako beste jarduera mota batzuen eta materia organikoaren gaikako bilketaren artean.

GAIKAKO BILKETA. Ontziak ez diren metalak eta plastikoak:

- Ontzi arinen edukiontzia prestatzea, ontziak ez diren metalak eta plastikoak jasotzeko.

GAIKAKO BILKETA. Etxeko HAK. Merkuriodun hondakinak. Tamaina handikoak:

- Garbiguneen kopurua handitzea, biztanleak/garbiguneak ratio onargarrietara iritsi arte.
- Garbiguneetan jasotzen diren hondakinen helmugari buruzko prestakuntza eta informazioa ematea garbiguneetan.
- Hondakinen atari tematikoan garbiguneekin zerikusia duen informazioa argitaratzea. Birziklapena tresnaren edukia iraultzea.
- Mankomunitateetako datuak eskatu eta berrikustea.

GAIKAKO BILKETA. Tamaina handikoak, GEEHak eta ehunak:

- Etxeko gaikako bilketa ezartzea; ahal dela, ekonomia sozialeko enpresen bidez.

GAIKAKO BILKETA. EEHak:

- Toki erakundeek bideratutako informazio eta/edo sentsibilizazio jarduerak egitea, bilketa egokia sustatze aldera.
- Toki erakundeek garbiguneak eta/edo bilketa zentroak prestatzea.
- Ordenantzei jarraipena egin eta eguneratzea.

GAIKAKO BILKETA. Ontzi hondakinak:

- Hondakinen kudeaketa hobetzeko planak ezartzea, asmo honekin:
 - o Papera eta kartoia: jarduketak sortzaile handiei (administrazioa, bulegoak, unibertsitateak, hezkuntza-zentroak...) zuzentzea, etxeetan hondakinak hobeto bereiz daitezen sustatzea eta edukiontzietan material hau gutxiago lapurtzeko mekanismoak ezartzea.
 - o Beira: jarduketak sortzaile espezifikoei (ekitaldiak, jaiak, elkarte gastronomikoak...) bideratzea.
 - o Plastikoa, brikak eta metalak: jarduketak sortzaile handiei (ostalaritza, administrazioak, bulegoak, unibertsitateak eta hezkuntza-zentroak, jolas-zentroak, ekitaldiak...) eta sortzaile espezifikoei (ekitaldiak, jaiak, elkarte gastronomikoak...) bideratzea eta etxeetan bereizketa hobea sustatzea.
 - o Nafarroan SDDR-ren erreferentziako esperientziak ezartzearen bideragarritasuna aztertzea.
 - o Egurra: bereizita jasotzen den egur kopurua handitzea; jarduketak, batez ere, HORECA sektorera, banaketa kanaletara eta azoketara bideratuko dira.
 - o Ehunak: mankomunitateek koordinatutako bilketa sare bat (atez ateko bilketa, garbiguneak eta/edo edukiontzi espezifikokoak) ezar dadin sustatzea.

GAIKAKO BILKETA. Merkataritzako eta industriako ontzien hondakinak:

- Kudeatzaileen informazioa jasotzen duen dokumentazioa hobetzea.
- Dauden baimenak aldatzea.

GAIKAKO BILKETA. Zeharkakoa:

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

- Ezarrita dauden bilketa ereduen eraginkortasuna aztertzea bildutako materialaren kopuruari eta kalitateari dagokienez eta aldaketak egiteko aukera baloratzea.
- Urtean behin gutxienez bilketa frakzio guztien eta zabortegira bideratzen diren errefusen aldizkako karakterizazio adierazgarri eta independenteak egitea. Horretaz gain, bost urtetik behin gutxienez, karakterizazioen oinarritzko azterlan oso bat egitea, inbentarioak egiteko eta azpiegiturak planifikatzeko erreferentzia eta lagungarri izango dena. Oinarritzko azterlan horren eta egindako karakterizazioen emaitzak Nafarroako Gobernuaren webgunean argitaratuko dira.
- Hondakinak biltzeko jarduerarik onenak jendarteratzea.
- Herritarrei hondakinen kudeaketaren kostuen berri ematea, baita kudeaketa ezegokiari lotutako ekonomia eta ingurumen inpaktuen, enplegu berdeen eta abarren berri eman ere.

GAIKAKO BILKETA. GEEHak:

- GEEHak biltzeko garbiguneak egokitzea, 110/2015 Errege Dekretuarekin bat.

GAIKAKO BILKETA. EEHak:

- Obretan bereizketa egokia egitea sustatzeko sentsibilizazio-ekintzak zehaztea.
- Hautatutako eraispenaren inguruko prestakuntza eta informazioa ematea.

GAIKAKO BILKETA. Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak:

- Sektore profesionalekin (albaitariak, laborategiak...) eta/edo toki erakundeekin akordioak eta/edo hitzarmenak egitea, alderantzizko logistikara begira.
- Kooperatibetan edo antzekoetan nekazaritzako plastikoa biltzeko guneak sustatzea.

GAIKAKO BILKETA. Industria hondakinak:

- Ekoizleak trebatzeko aldizkako kanpainak egitea, sortzen dituzten hondakinak behar bezala identifika ditzaten eta hondakinon kudeaketaren inguruko betebeharrak bete, bai eta, hala badagokio, hondakinon arriskugarritasuna identifika dezaten ere, hondakin bakoitzari tratamendurik egokiena aplikatzeko, haien ezaugarriekin eta konposizioarekin bat, hierarkia printzipioa ahal den neurrian aplikatuz.
- Enpresekin, enpresa elkarteekin, klusterrekin eta produktuen balio katearekin lan egitea, bilketa selektiboagoa izan behar duten produktu eta materialei lehentasuna emateko, hondakinaren balioan eta berrerabiltzeko, konpontzeko, zaharbertzeko edo berriz manufacturatzeko aukeran oinarrituta.

BERRERABILTZEKO PRESTAKETA. Etxeko eta merkataritzako hondakinak:

- Herritarrei hondakinen kudeaketaren kostuen berri ematea, baita kudeaketa ezegokiari lotutako ekonomia eta ingurumen inpaktuen berri eman ere.
- Tratamendu instalazioetan eskuratutako materialen esleipenak (kontratu publikoak) egin daitezen sustatzea, Hondakinen Foru Lege berri baten bidez.
- Berrerabiltzeko prestaketatik datozen produktuak kontsumi daitezen eta hondakinetatik datozen kalitate handiko materialak ekoizpen prozesuetan sar daitezen sustatzea, kontratu publikoetan erosketara berdea egiteko gida berri baten bidez.
- Garbiguneei berrerabilpenerako eta birziklapenerako elementu aktibo gisa begiratzea.
- Hondakinen atari tematikoan hondakinei egiten zaizkien tratamenduen eta amaierako helmuguen berri ematea (birziklatze iraulketa).
- Garbiguneak egokitzea, berrerabiltzeko prestaketarako eta birziklapenerako elementu aktibo bihurtzeko.
- Tamaina handikoen, ehunen eta GEEHen bilketa sustatzea, foru komunitate osoan berrerabiltzeko prestaketa eta kalitateko enplegu soziala maximizatzen.

BERRERABILTZEKO PRESTAKETA. GEEHak:

- Baimenak berrikustea.

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

- Berrerabiltzeko prestaketari, konponketari, zaharberritzeari eta birmanufakturari buruzko prestakuntza.

- Instalazioak 110/2015 Errege Dekretura egokitzea, hondakinak azaleratu daitezen.

BERRERABILTZEKO PRESTAKETA. Erabiltzen ez diren ibilgailuak:

- Tratamendurako zentro baimenduei materialei buruzko prestakuntza eta informazioa ematea.

- Baimenak berrikustea, xedeak lortze aldera.

BERRERABILTZEKO PRESTAKETA. Bizitza baliagarriaren amaieran dauden pneumatikoak:

- Birkautxutatutako pneumatikoen erabilera sustatzea, giza osasuna eta ingurumena arriskuan jartzen ez bada.

BIRZIKLAPENA-BALORIZAZIOA. Biohondakinak:

- BBFOak tratatzeko azpiegiturak sortzea.
- BBFOen konpostaren/digestatoaren kalitatea eta elementu ezegokiak zehazteko karakterizazioak egitea.

- BBFOtik datorren konposta sustatzea.

- Biohondakinen tratamenduaren ondoriozko konpostaren erabilerari gutxieneko ehuneko bat ezartzea administrazio publikoen jardueretarako (lorenzaintza, errepedeen mantentze lanak eta abar).

- Hondakin izaeraren amaierari buruzko dokumentazioa aplikatzea, kalitateko konposta/digeritua egiteko eta produktu gisa erabiltzea sustatzeko, argitaratzen den unean.

BIRZIKLAPENA-BALORIZAZIOA. Etxetako ontzien hondakinak:

- Baterako lana mankomunitateekin eta SCRAPEkin.

BIRZIKLAPENA-BALORIZAZIOA. Gaikako bilketatik datozen ontzien hondakinak:

- Karakterizazioa eta neurketa egiteko irizpideak ezartzea.

BIRZIKLAPENA-BALORIZAZIOA. Errefusa frakzioa:

- Dauden instalazioak Nafarroa osoko errefusa frakzioa jasotzeko egokitzea eta, hala badagokio, Iruñerrian errefusa frakziorako tratamendu instalazio berri bat sustatzea.

- Harrobiak, legar hobiak eta zabortegeak lehengoratzeko orduan material bioegonkortua erabil dadin sustatzea (estaldura, ezpondak landareztatzea).

BIRZIKLAPENA-BALORIZAZIOA. Ontzi hondakinak:

- Baterako lana mankomunitateekin eta SCRAPEkin.

- Karakterizazioa eta neurketa egiteko irizpideak ezartzea.

BIRZIKLAPENA-BALORIZAZIOA. GEEHak:

- Baimenak berrikustea.

- Berrerabiltzeko prestaketari, konponketari, zaharberritzeari eta birmanufakturari buruzko prestakuntza.

- Instalazioak 110/2015 Errege Dekretura egokitzea, hondakinak azaleratu daitezen.

BIRZIKLAPENA-BALORIZAZIOA. EEHak:

- Erosketa eta kontratazio berdeak egiteko tresnak garatzea.

- Etxebizitza Departamentuarekin, Garraio Departamentuarekin, eraikuntza enpresa handiekin, arkitektoekin eta udalekin akordioak egin daitezen sustatzea.

- Urbanizazio lanetan eta lan publikoetan agregakin birziklatuak kategorien arabera erabiltzeko gutxieneko ehunekoak ezartzea: Betegarrietan, % X gutxienez. Trinkotze lanetan, % X gutxienez. Hormigoietan, % X gutxienez.

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

- Material naturalen ordez EEH balorizagarrietatik datozen materialak erabiltzea erraztuko duten baldintzak sartzea baldintza teknikoan agirietan eta kontratazio publikoko eskaintzen balorazioan.
- Eraikuntza eta eraispen hondakinen prebentzioa, ekoizpena eta kudeaketa eta eraikuntza jasangarria arautzen dituzten ordenantzak garatzen laguntzea udalei.
- Isurketa tasak igotzea, EEH balorizagarriak (instalazioetako errefusak) zabortegean uzteko joerari pizgarriak kentzeko, Hondakinen Lege berriaren bidez.
- Eremu narriatuak eta meatzaritzako ustiategiak lehengoratzeko jardueretan eraikuntza hondakinak erabiltzea eta mealekuak bete eta lehengoratzeko jardueretan agregakin birziklatua erabiltzea, Hondakinen Lege berrian zerga neurriak finkatuz.
- Meatzaritzako baoen, meatzaritzako ustiategien eta meatzaritzako hondakinen instalazioen inbentarioa egitea, baldin eta lehengoratzeko plan operatiboak badituzte edo lehengoratzeko behar badute eta eraikuntza eta eraispen hondakinak balorizatzen instalazioetatik datorren material betegarria erabiltzeko baldintza egokiak betetzen badituzte, material onargarriaren bolumena zenbatetsita.
- Baimen berriak ematea instalazio mugikorretarako.
- EEHak instalazio mugikorretan bildu eta tratatzeko zentroak sustatzea, toki erakundeen bidez, toki urrundueta.
- Ikuskapen Planean lehenetsutako jotzea EEHen kudeaketa egokia, 3 urtez.

BIRZIKLAPENA-BALORIZAZIOA. IMN:

- Kudeaketa erregularizatzea kudeatzaile baimenduen/helmuga erregistratuen bidez.
- Ezagutzen diren toki narriatuak publiko egitea (SPADE).
- Legar hobiak eta harrobiak lehengoratzeko planak eguneratzea, IMNa berariaz kontuan har dezaten; hau da, R10 eragiketak sustatzea, R5 eragiketak gutxi baitira krisiaren ondoren.
- Nariatutako eremuak lehengoratzeko programa bat egitea.

BIRZIKLAPENA-BALORIZAZIOA. Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak:

- Plastikoa konpostagarri eta biodegradagarrien erabilera aurrera egitea.

BIRZIKLAPENA-BALORIZAZIOA. Industria hondakinak:

- Jardunaldi teknikoak antolatzea.

BIRZIKLAPENA ETA BALORIZAZIOA. Hondakin sanitarioak:

- Sortzen diren hondakin sanitarioen kudeaketa egokiari buruzko prestakuntza ematea, hondakinen bereizketa errazteko eta geroko tratamenduari bide egiteko.

DEUSEZTAPENA TXIKIAGOTZEA. Zeharkakoa:

- Ekoizleen eta zabortegeen ingurumen baimen integratuetan hondakinak zabortegean uzteko aukera mugatzea, balorizatzen aukera eta ahalmen nahikoak dauzkaten hondakinatarako.
- Baloriza daitezkeelako zabortegean gorde ezin diren hondakinen zerrenda orientagarri eta ez-lotesle bat egitea.
- Hondakinak zabortegean onartzeko dokumentazioaren jarraipena eta kontrola egitea, baita 1481/2001 Errege Dekretuan eta dekretu hori aldatzen duen AAA/661/2013 Aginduan ezarritakoa betetzen dela kontrolatzea ere.

DEUSEZTAPENA TXIKIAGOTZEA. Etxeko eta merkataritzako hondakinak:

- Biohondakinen gaikako bilketari eta biohondakinak berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzen prestaketari buruzko planetan jarduketak egitea.
- Ingurumen baimenak eta zabortegeko onarpen kontrolak berrikustea, plana behin betiko onartzen denetik aurrera, Nafarroako Gobernuaren zerbitzu teknikoekin eta zerbitzu juridikoekin koordinatuta.

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

- Zaborteziak bizitza baliagarriaren amaieran ingurumen arloan lehengoratzeko eta epe luzean zaintzeko kudeaketa kostuak aztertzea, denboran atzeratzen diren kostuak barne, isurketaren benetako kudeaketa kostua ikusi eta balorizazioaren kostuekin alderatu ahal izateko.

DEUSEZTAPENA TXIKIAGOTZEA. EEHak:

- EEHak berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzeko prestaketari buruzko planetan jarduketak egitea.
- Zaborteziak ixteko eta ingurumen-arloan lehengoratzeko planetan jarduketak egitea.
- IMNak berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzeko prestaketari buruzko planetan jarduketak egitea.

DEUSEZTAPENA TXIKIAGOTZEA. Industria hondakinak:

- Industria hondakinak zaborteziaren onartzeko prozedurak eta irizpideak egiaztatu eta baliozkotzea: oinarriko karakterizazioa, arauak betetzen direlako frogak eta bertatik bertarako egiaztapena.

JARRAIPENA ETA KONTROLA. HAK eta HEAk:

- Isurketekin eta airearen kalitatearekin zerikusia daukaten TEOak sustatzea, hondakinak tratatzeko instalazioei (2010/75/EB Zuzentarauak babesten ez dituen instalazioei) baimenak emanez.
- Hondakinak tratatzeko instalazioetan erabilgarri dauden teknologia onenen inguruko ondorioak aplikatzea, industriako isurketei buruzko 2010/75/EB Zuzentarauaren ezarpen eremuan.
- Hondakinak lekualdatzeari buruzko 180/2015 Errege Dekretura atxikitzea.
- Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketa Erregistro berria sortzea eta aurrekoak baliogabetzea (ESIR plataforma / E3P).
- Kontrol eta jarraipen dokumentua identifikazio dokumentura egokitzea, lekualdaketen jakinarazpena E3Lren 3.0 bertsiora moldatzea eta hondakinen sorkuntzari nahiz kudeaketari buruzko datuen estandarizaziorantz aurrera egitea. Hondakinen ekoizpenaren eta kudeaketaren inguruko kalkuluak egiteko irizpideak bateratzea, Ministerioarekin eta Europar Batasunarekin bat.
- Jazartzea, salatzea, zigortzea eta behin-behineko neurriak ezartzea; hala nola, dagokion baimenik ez duten instalazioak ixtea eta kudeaketa jarduerak etetea.

JARRAIPENA ETA KONTROLA. PCB/PCT:

- Gailu operatiboak dauzkaten edukitzaileei jarraipena egitea, gailuon bizitza baliagarria amaitu arte.
- Nafarroako Industria Jarduera Ikuskatzeko Planean sartuta dauden enpresetan PCBdun gailuak egoteko aukera berrikustea.
- Baserri eta enpresa txikietan PCBa eduki dezaketen gailuak dauden ikustea.
- PCBdun gailuak dauzkaten inbentarioa eguneratuta edukitzea ondoz ondoko urteetan.

JARRAIPENA ETA KONTROLA. Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak:

Jarraipena, ikuskapena eta kontrola, tipologiaren arabera.

GENERO BERDINTASUNA. Zeharkakoa:

- Administrazio publikoek eta hondakinen kudeaketan nahiz prebentzioan lan egiten duten gainerako pertsona juridikoek hizkuntzaren erabilera sexistatik ez egitea komunikazioetan, iragarkietan eta abarretan.
- Genero bakoitzari tradizionalki esleitu izan zaizkion rola betikitzen dituzten estereotipoak heziketa, informazio eta sentsibilizazio kanpainetan ez errepikatzea.
- Gizarteak berrerabilpena eta birziklapena nola hautematen dituen jakiteko azterlanetan eta egiten diren gainerako azterlanetan sexuaren aldagaia txertatzea, datuak bananduta

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

	<p>eduki ahal izateko, emakumeek eta gizonek hondakinen kudeaketaren eta prebentzioaren aurrean duten portaera ezagutzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ahal dela, datuak sexuaren arabera bananduta lortzen eta tratatzen saiatzea. - Bilketa eremuak egokitzea, argiztapen nahikoa izan dezaten eta erraz iristekoak izan daitezten. - Egungo egoeraren azterlan bat egitea, aukera berdintasunaren inguruko neurriak eta ekintzak ezartzeko. <p>ENPLEGUA. Zeharkakoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nafarroako hondakinen kudeaketarekin lotutako enpleguaren egungo egoeraren azterketa egitea, enplegu berdeari eta enplegu sozialari dagokien zatia jasoko duena. Kudeaketa hierarkiaren arabera eta jarduera sektoreen arabera egituratuta egongo da eta jarraipen adierazleak ezarri ahal izateko oinarritzko ildoak izateko balioko du. - Hondakinen kudeaketari lotutako obra eta zerbitzuen lehiaketen lizitazioa lehenestea loteetan, bai prebentzioari dagokionez, bai hondakinen bilketari eta tratamenduari dagokienez, zerbitzu motaren edo jarduketa eremuen arabera bereizita. Lehiaketa horiek gizarte klausulak izango dituzte. - Hondakinen kudeaketarako kontratazio publikoan merkatu erreserba sustatzea, bilketa edo tratamendu zerbitzuak sektoreetan banatzeko gomendioarekin, kolektibo sozialek lehiaketatan parte hartu ahal izan dezaten, eta ez enpresa handiek bakarrik. - Beste administrazio publiko batzuekin koordinatuta, pertsona horien enplegua eta gizarteratzea sustatzea, kolektiboen tokiko elkarteekin lan eginez.
<p>Tresnak</p>	<p>Planak berak ez ditu neurriak eta tresnak bereizten. Bertan planteatzen diren neurri batzuk tresnen atalean sartu dira.</p> <p>PREBENTZIOA. Zeharkakoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zirkulartasunera eta hondakinen prebentziora bideratutako I+G+b proiektuetarako dirulaguntzak ezartzea. - Foru lege baten proiektua egitea, kudeaketako antolamendu neurriak eta tresna ekonomikoak jasoko dituena, zirkulartasuna sustatzeari begira. Zabortegiko deuseztapena zergapetuko duen kanona ezartzea. - Departamentuen arteko akordioak egitea, eskumenak departamentu bakar batean zentralizatuta ez dauzkaten sektoreetan sortutako hondakinen kudeaketa hobetzeko. - Erantzukizun zabalduko sistemekin, hondakinen kudeatzaileekin eta hainbat hondakin korrante kudeatzen parte hartzen duten bestelako eragileekin akordio sektorialak egitea, sektorean prebentzio neurriak ezartzeko. - Departamentuen arteko lantalde bat eta Prebentzioko eta Ekonomia Zirkularreko Bulego bat sortzea, Jarraipen Batzordearen esparruan. - Funtsezko agenteekin akordio estrategikoak egitea. <p>PREBENTZIOA. Bihondakinak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elikagai katean hondakinak prebenitzeko ekintza plan bat egin eta hedatzea, "Elikagai xahuketaren kontrako aliantzaren" ildoan. - Sektorearteko lan mahai bat sortzea (Elikagaien Bankua, Nafarroako Supermerkatuen Elkartea eta abar), elikagai hondakinen prebentzioa sustatu eta dinamizatzeko. - Sektore estrategikoetako funtsezko agenteekin akordioak egitea, elikagai soberakinak aprobetxatzeko bide egonkorrak sortzeko, ekoizleengandik eta sukaldaritza erakundeetatik hasi eta banaketa entitateetarako. <p>PREBENTZIOA. Ontziak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - HORECA sektorean (ostalaritza, sukaldaritza eta kafetegiak), mahastizaintzako eta ardogintzako industrian, nekazaritzako sektorean eta kontsumoko beste kanal batzuetan ontzi berrerabilgarriak erabiltzea azterlana egitea bideragarria ote den jakiteko. Ontzien

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

- tipologiari eta kantitateari, egungo berrerabilpen ehunekoei, karbono aztarnari eta bestelakoei buruzko informazioa biltzea, berrerabiltzeko ahala zenbatesteko.
- HORECA sektorean (ostalaritza, sukaldaritza eta kafetegiak), mahastizaintzako eta ardogintzako industrian, nekazaritzako sektorean eta kontsumoko beste kanal batzuetan ontzi berrerabilgarriak erabiltzea bideragarria den jakiteko azterlana egitea.
 - SDDRen esperientzia bat prestatzea Iruñerriko herri edo auzo batean, 2017an, gaiari buruzko jarrera bat finkatzeko, esperientzia horren emaitzen eta antzeko beste esperientzia batzuen emaitzen harira.
 - Landa Garapenerako Departamentuaren, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuaren eta Osasun Departamentuaren artean akordioak egitea, ontziak berrerabiltzea errazteko berme sanitario guztiekin.
 - Tartean dauden askotariko agenteekin akordioak egitea, ontzi berrerabilgarriak erabil ditzaten sustatzeko.
 - Saltoki handiekin, banku erakundeekin, alderdi politikoeekin eta bestelakoekin akordioak egitea, posta eta nahi ez den doako publizitatea gutxitzeko jarduketa berritzaileak zehazteari begira (ideien lehiaketak, besteak beste).
 - Ekitaldi publikoei eta hondakinei buruzko araudia sortzea. Eremu publikoan behin bakarrik erabiltzeko ontziak erabiltzea debekatuko duen eta, antolakundea garbiketaz arduratzen ez bada, geroko garbiketarako fidantzak eskatuko dituen araudi orokorra sortzea. Zentzu berean, behin bakarrik erabiltzeko poltsen erabilera mugatuko da, 2016-2022ko PEMARen ezarritakoa betetzeko eta 2015/720/EB Zuzentarauak aurreikusten duen xederantz abiatzeko (2020a baino lehen biztanle bakoitzak gehienez ere 90 poltsa erabiltzea eta 2025erako 40 eta poltsa horiek doan ematen ez direla ziurtatzeko tresnak edukitzea).
 - Erantzukizun zabalduko sistemekin (GEEHen SCRAPak) akordioak egitea, GEEHak prebenitzeko ekimenak sustatzeko.
 - Tartean dauden elkarteekin (ANTRV, besteren artean) akordioak egitea, bigarren eskuko pneumatikoen berrerabilpenak duen egoera aztertu eta berrerabilpen hori sustatzeko neurriak ezartze aldera.

PREBENTZIOA. Tamaina handikoak, GEEHak, erabiltzen ez diren pneumatikoak eta ibilgailuak, nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak:

- Bizi zikloaren azterlan bat egitea, ibilgailuetako pieza jakin batzuk birziklatzeko xedez desmuntatzearen irismena zehaztuko duena, zatitu aurretik zein pieza bereizi behar diren ezartzeko, berrerabilpen eta birziklapen xedea betetzen laguntzeko bereziki, ekonomia eta ingurumen faktoreak kontuan hartuta.
- Tamaina handikoei eta ehunei buruzko azterlan bat egitea, prebentzio ahala eta horretarako har litezkeen neurri egokiak zehazteko.

PREBENTZIOA. EEHak:

- Eraikuntzaren sektorearekin borondatzeko akordioak sinatzea, prebentzio-arloko jarduera onak ezartzeko eta sektorean dauden jarduera onei balioa eman eta zabaltzeko.
- Enpresei prestakuntza teknikoa ematea eta ezagutza helaraztea, eraikuntza eta eraipen jardueretan prebentzioa eta berrerabilpena txertatzeko.

PREBENTZIOA. Bestelako fluxuak:

- Hondakinen Esparru Zuzentaruaren ezarritako irizpide berrien ezarpena aztertzea, hondakin izaeraren amaiera eta azpiproduktu kontzeptuak behar bezala aplikatzeko.
- Ekoizleen, elkarten eta tartean dauden bestelako agenteen artean lan-mahaiak ezartzea, akordioak egiteko eta hondakinen prebentzioa sustatuko duten eta hondakinen kudeaketa optimizatuko duten neurriak sektoreka ezartzeko xedez.
- Industriako sektoreen araberrako akordioak egitea, hondakinen prebentzioa sustatzeko eta industria hondakin ez-arriskutsuen azpiproduktuak eta bigarren mailako lehengaiak erabil daitezten sustatzeko.

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

GAIKAKO BILKETA. GEEHak:

- Banaketa kanaletan GEEHen bilketa ikuskatu eta kontrolatzeko kanpaina egitea.

GAIKAKO BILKETA. EEHak:

- Obrako bereizketa ikuskatzea.
- Eraispin eta/edo birgaiketa lanak ikuskatzea.

GAIKAKO BILKETA. Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak:

- Fitosanitarioak ez diren nekazaritza ontziak -lehen aldiz merkaturatzeko arduraren dutenak-ekoizlearen erantzukizun zabalduko sistemetara atxiki daitezen sustatzea.

BERRERABILITZEKO PRESTAKETA. Etxeko eta merkataritzako hondakinak:

- Hondakinak sortzeagatiko ordainketa sistemetarantz aurrera egitea, udal tasa bereziak ezarri. Ordenantzak aldatzea.
- Ingurumen fiskalitatean aurrera egitea; lehenik eta behin, isurketari pizgarriak kenduz eta, gero, errausketari pizgarriak kenduz. Horretarako foru lege bat sortzea.

BERRERABILITZEKO PRESTAKETA: Etxeko hondakinak, GEEHak eta erabiltzen ez diren ibilgailuak:

- Komunikazio eta informazio kanpainak egitea, herritarrek berrerabiltzeko prestaketaren ingurumen eta gizarte onurak ezagut ditzaten eta gizartean garrantzi handiagoa duen zaintzaren eta kontserbazioaren kulturean aurrera egin dezaten.

BIRZIKLAPENA-BALORIZAZIOA. Biohondakinak:

- Sektoreko lan mahai bat sortzea nekazaritzako elkarrekin, INTIArekin eta beste batzuekin, biohondakinen tratamendutik datorren konposta nekazaritzan erabiltzen laguntzeko.

BIRZIKLAPENA-BALORIZAZIOA. Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak:

- Jarduera onen gida bat egitea eta nekazariei, nekazaritzako erakunde profesionali eta beste eragile ekonomiko batzuei zuzendutako sentsibilizazio eta informazio kanpainak garatzea.

BIRZIKLAPENA-BALORIZAZIOA. Industria hondakinak:

- Gaiarekin zerikusia daukaten gida teknikoak egitea.

BIRZIKLAPENA-BALORIZAZIOA. EEHak:

- Isolatutako eta/edo urrundutako herriei garraioaren zati bat finantzatzea, etorkizuneko Hondakinen Legean sartu beharreko zerga neurrien bidez.
- Meatzaritza erakundearen eta EEHak balorizatzeko instalazioen artean lan esparru bat ezartzea, lehengoratzeko beharrak balioztatutako materialaren aprobetxamendurekin behar bezala sinkronizatu ahal izateko.
- Meatze antolamenduko ikuskatzaileek nahiz ingurumen kalitatekoek ikuskapen eta kontrol neurriak ezartzea, egiaztatuko dutenak meatze zuloak betelane tarako balioztatutako materialarekin soilik betetzen direla, ez baitago baimenduta plastikoak, metalak, beira, materia biodegradagarria edo balioztatu daitekeen beste edozein material sartzea.

BIRZIKLAPENA-BALORIZAZIOA. Hondakin sanitarioak:

- Araudi berria egitea.

DEUSEZTAPENA TXIKIAGOTZEA. Etxeko eta merkataritzako hondakinak:

- Hondakinen isurtze sari bat ezartzea, hondakinen arloko zerga neurriei buruzko foru lege baten arabera.

DEUSEZTAPENA TXIKIAGOTZEA. Industria hondakinak:

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

- Isurketaren kostuak egokitzea, kudeaketa aukera horren benetako kostua isla dezaten eta Hondakinen Foru Legearen bidez isurketari zerga bat ezartzeko bidean aurrera egin dadin.

KOMUNIKAZIOA. Prebentzio programa Zeharkakoa:

- Dauden komunikazio tresnak hobetzea (enpresentzako eta herritarrentzako ingurumen arloko informazio webguneak eguneratzea) eta berriak garatzea, herritarrak hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren inguruan informatzeko eta sentsibilizatzeko.
- Hondakinen Planarekin lotutako edukiak eguneratzea eta hobetzea Nafarroako Gobernuaren, mankomunitateen eta beste agente estrategiko batzuen webguneetan, bai eta gobernuaren beste komunikazio tresna batzuetan ere (hondakinen buletina etab.).
- Lortutako emaitzen eta aurrerapenen urteko komunikazio tresnak garatzea ("hondakinometroa", "prebentzionometroa", "birziklometroa" etab.) eta hondakinak biltzeko jarduera onenak edo hondakinen kudeaketa desegokiak gizartean, ingurumenean eta ekonomian dituen ondorioak jendarteratzeko tresnak garatzea.
- Intereseko sektoreei Hondakinen Plana eta bere inplikazioak helaraztea, xede horretarako egindako dibulgazio materialen bidez.
- Toki erakundeak indartzeko prestakuntza programa osatzea: esperientzia berritzaileak trukatzeko eta hondakinen bilketa eta tratamendu ereduen, berrerabiltzeko prestaketa ereduen, komunikazio ereduen, sare sozialen eta abarren arloan jarduera onenak hedatzeko jardunaldiak antolatzea.

KOMUNIKAZIOA. Prebentzio programa Biohondakinak:

- Hezkuntza eta sentsibilizazio kanpainak egitea, kontsumo arduratsua eta "alferrik galdu gabeko" produktuekin sukaldaritza sustatzeko (etxeak, jantoki kolektiboak, elkarte gastronomikoak eta ekitaldiak), mankomunitateekin, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteekin eta abarrekin koordinatuta.

KOMUNIKAZIOA. Prebentzio programa Ontziak:

- Ontzi hondakinak murriztera bideratutako informazio eta sentsibilizazio kanpainak egitea mankomunitateekin koordinatuta.
- Funtsezko eragileekin adostutako ekintzak inplementatzeko kanpainak egitea, nahi ez den publizitatea murrizteko, mankomunitateekin eta beste erakunde batzuekin koordinatuta.
- Erosketa poltsa berrerabilgarriak sustatzeko, saltoki txikietan poltsak minimizatzeko eta saltoki handien ekimenei laguntzeko kanpainak egitea, inplikaturako agenteekin (ASUNA, beste batzuk...) lankidetzan.

KOMUNIKAZIOA. Prebentzio programa Tamaina handikoak eta etxeko nahiz merkataritzako**GEEHak:**

- Bigarren eskuko produktuak trukatzeko yonolotiro.es webgune instituzionala sustatzea eta zabaltzea, mankomunitateekin koordinatuta.
- Gizarteak berrerabilpenari buruz duen pertzepzioari buruzko azterlanak egitea (aurretiko jarrera, motibazioak, pizgarriak, oztipoak etab.).
- Herritarrei, saltokiei eta industriei zuzendutako informazio eta sentsibilizazio kanpainak egitea, produktuak berrerabiltzearen, bitzta baliagarria luzatzearen eta programatutako nahiz hautemandako zaharkitzapenaren aurka borrokatzearen ondoriozko onuren berri emateko, mankomunitateekin koordinatuta.

KOMUNIKAZIOA. Prebentzio programa EEPak:

- Herritarrentzako prestakuntza kanpainak egitea, gidatze eraginkorra sustatzeko eta pneumatikoak behar bezala mantentzeari begirako jarraibideak ezagutarazteko (horrela, pneumatikoen bitzta baliagarria luzatzea lortzeko).
- Pneumatikoak berrerabiltzea sustatzeko kanpainak egitea, sektore potentzialei zuzendutakoak.

KOMUNIKAZIOA. Prebentzio programa Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak:

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

- Nekazaritza sektorea prestatzea, nekazaritzan erabiltzeko plastikoaren (NEP) erabilera ona sustatzeko eta horien kopurua minimizatzeko, funtsezko agenteekin koordinatuta (sindikatuak, INTIA etab.).
- Nekazaritzan erabiltzeko plastikoa behar bezala erabiltzea, maneiatzea eta kudeatzea sustatzeko jardura egokien eskuliburua egitea eta argitaratzea, plastikoa horiek ahalik eta gehien murrizteko.
- Ongarri mineralen ordez biohondakinetatik datorren konpostaren erabilera sustatzeko kanpainak egitea.

KOMUNIKAZIOA. Prebentzio programa EEHak:

- EEHak minimizatzen bideratutako alternatibak jasoko dituen gida bat egitea, obra proiektuetan eta higiezin baten diseinu, eraikuntza eta eraspen faseetan kontuan har daitezkeenak.
- Obra xeheko proiektuetan prebentzioa eta, batez ere, berrerabilpena txertatzeko sentsibilizazio kanpainak abiatzea.

KOMUNIKAZIOA. Prebentzio programa Olio erabiliak:

- Komunikazio eta prestakuntza kanpainak egitea, besteak beste lubrifikatzailea behar bezala aukeratzeko delak eta behar bezala erabiltzeko delak ziurtatzeko, erabilitako olioen sorrera minimizatuz, SCRAPekin koordinatuta.

KOMUNIKAZIOA. Prebentzio programa Pilak eta metagailuak:

- Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak, kontsumo efiziente eta arduratsuan (ingurumen errendimendu hobea eta substantzia arriskutsuen kantitate txikiagoa) eta hondakinen kudeaketa arduratsuan arreta jarritz.
- Pilak modu eraginkorrean erabiltzeko gida egitea, SCRAPekin lankidetzan, gero jendarteratzeko.

KOMUNIKAZIOA. Prebentzio programa HUAetako lohiak:

- Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak, etxeetan sendagaiak, produktu kimikoak eta detergenteak arduraz erabili ditzaten; besteak beste, lohiaren kalitatea hobetzeko xedez, erabilera agronomikoa izan dezaten.

KOMUNIKAZIOA. Prebentzio programa Industria hondakinak:

- Ekoizpen sektoreen arabera prestakuntza kanpainak, hondakinen sorkuntza murrizteko jardura onak hartzeari begirakoak.
- Prestakuntza kanpainak egitea, klusterren eta elkarten bidez, ekonomia zirkularraren printzipioei buruzkoak eta hondakinetan sortzen diren balio ihesak balio kate desberdinetan identifikatzeari buruzkoak, negozio berrien bidez berreskura daitezkeen.
- Prestakuntza kanpainak egitea, klusterren eta elkarten bidez, zero hondakinekin ekoizteko negozio eredu berriei buruzkoak.

KOMUNIKAZIOA. Gaikako bilketa Etxeko eta merkataritzako hondakinak:

- Bilketa eredu berriak ezartzeari eta daudenak hobetzeari buruzko sentsibilizazio kanpainak.
- Sentsibilizazio eta informazio kanpainak, etxeetan hondakinak (arriskutsuak, tamaina handikoak, merkurioa dutenak etab.) behar bezala bereiztea sustatzekoak.
- Ikastetxeetan hondakinei eta gaikako bilketaren garrantziari buruzko tailerrak egitea.
- Mugikorretarako ReciclApp aplikazioan mantentze lanak egitea eta aldi behin eguneratzea. Web-orri bat egitea bertan jasotako informazioarekin.
- Kontzientziazio kanpainak garatzea, hondakinak jatorrian bereizteari buruzko prebentzioari eta herritarren parte hartzeari begira, elementu ezegokien ehuneko kontrolatuta edukitzeko.
- Herritarrei zuzendutako kontzientziazio eta sentsibilizazio kanpainak, hondakinak jatorrian behar bezala bereiztea eta biltzea sustatzeko, bai eta horretarako garbiguneak

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

erabiltzea sustatzeko ere. Halaber, garbigunek gizarteari ekartzen dizkioten ingurumen, gizarte eta ekonomia onurak sustatu beharko lirateke.

KOMUNIKAZIOA. Gaikako bilketa Biohondakinak:

- Biohondakinen kudeaketa desegokiarekin eta gaikako bilketarekin lotutako ekonomia, gizarte eta ingurumen inplikazio eta eraginei buruzko sentsibilizazio kanpaina.
- Materia organikoaren gaikako bilketa edo autokonpostajea ezartzeari, hedatzeari eta finkatzeari lotutako sentsibilizazio kanpainak, hondakinak behar bezala gordetzera bideratuak.

KOMUNIKAZIOA. Gaikako bilketa Ontzien hondakinak:

- Materialen araberako bilketari buruzko informazioa eta/edo sentsibilizazioa, ontzien eta ontziak ez diren plastikoa batera biltzea ahalbidetu eta horretarako materialen edukiontzi bat prestatzeko.
- Papera eta kartoia: jarduketak sortzaile handiei (administrazioa, bulegoak, unibertsitateak, hezkuntza zentroak...) zuzentzea, etxeetan hondakinak hobeto bereiz daitezten sustatzea eta edukiontzietan material hori gutxiago lapurtzeko mekanismoak ezartzea.
- Beira: jarduketak sortzaile espezifikoei (ekitaldiak, jaiak, elkarte gastronomikoak...) bideratzea.
- Plastikoa, brikak, metalak: jarduketak sortzaile handi espezifikoei bideratzea eta etxeetan bereizketa hobea sustatzea.
- Sentsibilizazio eta informazio kanpainak egitea, plastikozko poltsa arin gehiegi erabiltzearen ingurumen-inpaktu kaltegarriari buruzkoak, tartean dauden agenteekin (ASUNA, beste batzuk...) lankidetzan.
- Sentsibilizazio eta informazio kanpainak, zaborra nonahi ez uzteko ("littering"), ontzi guztiei eta gainerako hondakinei dagokienez.
- SCRAPen bilketa osagarriari lotutako sentsibilizazio kanpainak (natura parkeak, beste batzuk...).

KOMUNIKAZIOA. Gaikako bilketa GEEHak:

- Kontzientziazio eta sentsibilizazio kanpainak egitea, GEEHen kudeaketa desegokiak ingurumenean duen eragin negatiboari buruz sentsibilizatzeko eta hondakin horiek biltegitratzeko kanalak ezagutarazteko, birziklatzeari begira.
- Ikastetxeetan hondakinei eta gaikako bilketaren garrantziari buruzko tailerrak egitea.
- Komunikazio jarduerak garatzea, banaketa sektorea gaikako bilketaren hobekuntzan inplikatzeko. (Lehiaketak, kanpainak eta abar).
- Birziklapenaren aldeko banaketa establezimenduen sare bat sustatzea.

KOMUNIKAZIOA. Gaikako bilketa EEPak:

- Birkautxutatutako pneumatikoen erabilera sustatzeko kanpainak.

KOMUNIKAZIOA. Gaikako bilketa Pilak eta metagailuak:

- Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak, erantzukizun zabalduko sistemen bilketa eta kudeaketa prozedurei buruzkoak.

KOMUNIKAZIOA. Gaikako bilketa EEHak:

- Eraikuntzako eta etxe konponketako obra txikietako EEHak sortzeko eta kudeatzeko jarduera onei buruzko informazio-kanpainak; bereziki, garbiguneeen kokapenari eta EEHak onartzeko baldintzei buruzkoak.
- Bereizketa egokia sustatzeari begirako komunikazio kanpainak.

KOMUNIKAZIOA. Gaikako bilketa Araztegiko lohiak:

- Hondakin urak jatorrian ez kutsatzeko eta, ondorioz, arazketa lohiak ez kutsatzeko prebentzioari buruzko sentsibilizazio eta informazio kanpainak.

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

	<p><u>KOMUNIKAZIOA. Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Nekazaritzako hondakinen kudeaketa egokiari eta lohien nekazaritza balorizazioari buruzko sentsibilizazio eta informazio kanpainak. - Nekazaritzako hondakinen kudeaketari lotutako jarduera onen gidak egitea (erosketa planifikatzea, dosifikazioa hobetzea, etab.). - Bilketa bereiziko esperientziei lotutako informazio kanpainak. <p><u>KOMUNIKAZIOA. Gaikako bilketa Industria hondakinak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Behar bezala biltegitratzeko sentsibilizazio kanpainak. <p><u>KOMUNIKAZIOA. Berrerabiltzeko prestaketa. Etxeko hondakinak, GEEHak eta erabiltzen ez diren ibilgailuak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio eta informazio kanpainak egitea, herritarrek berrerabiltzeko prestaketaren ingurumen eta gizarte onurak ezagutu ditzaten eta gizartean garrantzi handiagoa duen zaintzaren eta kontserbazioaren kulturaren aurrera egin dezaten. <p><u>KOMUNIKAZIOA. Birziklapena eta balorizazioa. Industria hondakinak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Industria hondakinen ekoizleak trebatzeko kanpainak egitea, sortzen dituzten hondakinak behar bezala identifika ditzaten eta hondakinon kudeaketaren inguruko betebeharrak bete, bai eta, hala badagokio, hondakinon arriskugarritasuna identifika dezaten ere, hondakin bakoitzari tratamendurik egokiena aplikatzeko, haien ezaugarriekin eta konposizioarekin bat, hierarkia printzipioa ahal den neurrian aplikatuz. <p><u>KOMUNIKAZIOA. Birziklapena eta balorizazioa. Hondakin sanitarioak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Sortzen diren hondakin sanitarioen kudeaketa egokiari buruzko prestakuntza ematea, hondakinen bereizketa errazteko eta geroko tratamenduari bide egiteko. - Sektorearen konpromisoa areagotzeko jarduketak, hondakin horien bilketa indartzeari begirakoak, ezarritako bilketa ereduarekin bat. <p>Gainera, Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legea dago, tresna arauemaile gisa. (2018-06-22ko NAO, 120. zk.)</p> <p>Legearen esteka:</p> <p>https://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Residuos/Ley+Foral+142018+de+residuos+y+su+fiscalidad.htm</p> <p>Legearen laburpen betearazlea: https://oprec-navarra.com/wp-content/uploads/2018/08/LeyResiduos-Cast-NAVEG.pdf</p>
<p>Aurreikuspe na</p>	<p>Nafarroako Planak hondakinen sorrerari eta kudeaketari buruz eta horiek tratatzeko behar diren azpiegiturei buruz aurreikusitako agertokiaren deskribapena jasotzen du; gainera, bi agertokiak hondakin korrontearen arabera deskribatuta daude. (Planaren 6.9 eta 6.10 apartatuak).</p> <p>Hondakinen sorrera % 10 murriztuko da 2020an 2010eko sorrerarekin alderatuta eta 22/2011 Legean ezarrita dagoen bezala eta, gainera, 2027rako % 12ko murrizketa ezarri da helburu gisa.</p> <p>Gaikako bilketara bideratutako etxeko hondakinak 2010ean % 38 izatetik 2027an % 67 izatera igaroko dira, materialen bilketa berriarengatik eta materia organikoaren gaikako bilketa maximizatu izanagatik.</p> <p>Ondorioz, errefusa frakzioa murriztu egingo da, 2010ean % 62koa izatetik 2027an % 32koa izatera igaroko baita; halaber, errefusa frakzioak duen materia organikoa gutxitu egingo da.</p>

Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana

	<p>Ikuspegi ekonomiko batetik begiratuta oreka lortzeko, konpostaren erabilerak eta eskaria areagotu behar dira, baita prezioa ere (erabilerak lorezaintzan, baratzezaintzan...). Gainera, tresna ekonomikoak (isurketaren benetako prezioa, isurtze saria...) eta legalak (zabortegeira botatzen diren udal hondakin biodegradagarriak, hondakinen hierarkia, eta abar) sortu eta aplikatu behar dira. Hortaz, beharrezkoa eta ezinbestekoa da alderdi horiek guztiak erregulatuko dituen Hondakinen Foru Legea sortzea.</p>
<p>Sortzen ari diren hondakinak eta tresnak</p>	<p>Sortzen ari diren hondakinak: A priori, ez da espero korrante berri batek sorkuntza adierazgarri izatea, baina, nolana ere, arreta berezia jarri beharko zaio hondakin berrien kudeaketari; hala nola, iturri berriztagarrietatik abiatutako energia sorkuntzaren ondoriozkoen kudeaketari (haize sorgailuak, eguzki xafiak eta abar) eta grafenodun baterien kudeaketari.</p> <p>Bestalde, 2027rako Planak etxeko eta merkataritzako hondakinen sorkuntzaren % 75 teknika tradizionalen eta/edo azaleratzen ari diren tekniken bidez balorizatzeko helburu maximoa ezartzen du eta gainerako % 25a zabortegean deuseztatzera bideratzen du, tratamendu instalazioetan balioztatu ezin diren errefusei dagokiena.</p> <p>Halaber, honako ekintza hauek ezartzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Biohondakinetan dauden kutsatzaile arriskutsu eta berriak aztertzea. - Lortutako ongarrietan dauden kutsatzaile arriskutsu eta berriak murrizteko neurriak garatzea. - Kutsatzaile berriek hiriko hondakin uren araztegiatiko lohien kalitatean izan dezaketen eragina eta afekzioa aztertzeke azterlana egitea.

4. Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)	
Planaren dokumentua	http://www.juntadeandalucia.es/medioambiente/portal_web/web/temas_ambientales/evaluacion_integracion_planificacion/evaluacion_ambiental/evaluacion_planes_programas/otros_planes_programas/PIRec/Borrador_PIRec_indentidad_corporativa.pdf
Egitura	<p>Jarduketa eremuak 2020-2030 aldia hartzen du, plana 12. atalean garatzen den moduan berrikusi eta eguneratuko duela kontuan hartuta; era berean, goragoko mailan arau berriak edo plangintza elementuak xedatzen badira, berrikusi eta eguneratu egingo da. 2030a hartzen da jomugatzat, Europako Batzordearen Ekonomia Zirkularraren Paketea jasotzen diren xede jakin batzuekin bat egiteko.</p> <p>Bestalde, Andaluziako Hondakinen Plan Integralak autonomia erkidegoan sortzen eta kudeatzen diren hondakinak hartzen ditu gogoan, baina baita beste eskualde batean sortu arren Andaluzian kokatutako instalazioetan kudeatzen direnak ere, uztailearen 28ko 22/2011 Legearen 2. artikuluan aipatzen diren hondakinak kenduta. Era berean, hondakinei buruzko 2008/98/EE Zuzentaraua aldatzen duen 2018/851 Zuzentarau (EB) argitaratu berria kontuan hartu da, udal hondakinen definizio berriak txertatu baititu eta, besteren artean, eraikuntza eta eraispin hondakinak hortik kanporatu.</p> <p>Hortaz, honako hondakin hauek jasotzen dira planean: Udal hondakinak, ontziak eta ontzi hondakinak, gailu elektriko eta elektronikoak hondakinak (GEEH), bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuak (BBAI), bizitza baliagarriaren amaieran dauden pneumatikoak (lehen, erabiltzen ez diren pneumatikoak), olio erabiliak, pilak eta metagailuak, eraikuntza eta eraispin hondakinak (EEH) eta hondakin plastikoak. Hiriko hondakin uren araztegiatiko lohiak. Nekazaritzako hondakinak, industria hondakinak (legedi espezifikorik gabeak), PCB eta PCT eta elementu horiek dauzkaten gailuak, MARPOL hondakinak eta hondakin sanitarioak.</p>
Oinarrizko helburuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Lurraldean sortzen eta lekualdatzen diren hondakin guztiak behar bezala kudeatzen direla bermatzea, hondakinei buruzko Batasunaren zuzentzarauan ezarritako ordena hierarkikoa zorrotz betetzen saiatuz. 2. Berrikuntza sustatzea, baliabideak modu eraginkoragoan erabiltzera eta hondakin gutxiago sortzera, produktuen eta materialen balioa ahalik eta denbora luzeenean mantentzera eta, deuseztapena murrizteari begira, berrerabilpena, birziklagarritasuna eta balorizazio materiala handitzera bideratutako ekoizpen prozesuak hobetzen laguntzen duten ekimenen esparruan. 3. Sinbiosi industrialak bultzatzea, jarduera batzuetan sortutako azpiproduktuak beste batzuen lehengai bihurtzeko. Enpresek bigarren mailako lehengaiak erabil ditzaten sustatzea, hondakinetan dauden baliabide materialak eta energetikoak ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta, ahal den neurrian, baliabide naturalen kontsumoa murrizteko. 4. Ekoizlearen erantzukizun printzipioa aplikatzea merkaturatzean hondakin bihurtuko diren produktuak merkaturatzen dituzten agenteei, eta "kutsatzen duenak ordaintzen du" printzipioa aplikatzea hondakin sortzaileei. 5. Balorizazio prozesuetatik eta birziklagarriak ez diren hondakinen frakzioetik datozen errefusoen isurketa gutxitzea, errefusa balioztatuz. 6. Egungo bilketa sistemen eraginkortasuna aztertzea, tratamenduak optimizatzea eta kudeaketa prozesu osoen ebaluazio integratua egitea, ekoizpenetik amaierako kudeaketaraino.

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)	
	<p>7. Beharrezkoak diren balorizazio eta deuseztapen instalazio guztien eraikuntza bultzatzea, Andaluzia buruaskia izan dadin hondakin guztien kudeaketari dagokionez.</p> <p>8. Hondakinen sorkuntzari eta kudeaketari lotutako jarduerak klima aldaketari egiten dioten ekarpena murriztea.</p>
Xede espezifikoak	<p>PEMAREan eta erosketa eta kontratazio berdean ezarritako helburuak sartzen ditu hondakin frakzio bakoitzerako xede espezifiko gisa, ondoren adierazten direnez gain.</p> <ul style="list-style-type: none"> - <u>PREBENTZIOA. Udal hondakinak:</u> <ul style="list-style-type: none"> o Udal hondakinen sorkuntza gutxienez % 10 murriztea, 2010. urtearekin alderatuta (2020rako helburua). o Udal hondakinen berrerabilpen maila hobetzea eta konponketa eta berrerabilpen jarduerak sustatzen dituzten sistemak ezartzea (batez ere, altzariak, jostailuak, liburuak eta ehunak). o Behin bakarrik erabiltzeko produktuen kontsumotik datozen hondakinen kopurua murriztea. o Elikagai hondakinen sorkuntza murriztea, sukaldaritza zerbitzuetan nahiz etxeetan. Elikagai hondakinak 2025erako % 30 murriztea eta 2030erako % 50. (Hondakinei buruzko zuzentaraua). - <u>PREBENTZIOA: Ontziak:</u> <ul style="list-style-type: none"> o Ontzien kopurua eta ontzietan erabiltzen diren materialen ingurumen inpaktuak murriztea. o Ontzi hondakinen sorkuntza prebenitzea. o Ontzien berrerabilpena sustatzea. o Birziklatu ezin daitezkeen ontzien eta gehiegizko ontzien kontsumoa murriztea. o Berrerabilpenerako diseinua hobetzea eta ontzien kalitate handiko birziklapena sustatzea. - <u>PREBENTZIOA. GEEHak:</u> <ul style="list-style-type: none"> o GEE-en bititza baliagarria luzatu dadin sustatzea, etxeko konponketaren bidez eta gailuak gizarte erakundeei emanez, bigarren eskuko salmenta guneetan sal ditzaten. o Eremu andaluziarrean urtero sortzen diren etxeko GEEHen eta GEEH profesionalen kopuruak murriztea. o GEEak ekoizten dituzten entitateek prebentzio azterlanak egitea, ekoizpen prozesuetan, ekodiseinuan eta bizi zikloaren analisietan dauden teknika erabilgarriak hobetzeko. o Enpresa sektorean borondatezko akordioak sina daitezkeen sustatzea, GEE-en diseinuan substantzia arriskutsuen erabilera gutxitzeko. o GEEHen berrerabilpena eta bigarren eskuko erosketa salmenta sustatzea, GEEHen prebentzioa indartzeko. - <u>PREBENTZIOA. Bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuak.</u> <ul style="list-style-type: none"> o Andaluzian autoak desegiteko tokietako jarduerak sortzen dituen hondakin arriskutsuen prebentzioa sustatzea. o Andaluzian bizitza baliagarriaren amaieran dauden pneumatikoen sorkuntza murriztea. o Bizitza baliagarriaren amaieran dauden pneumatikoen berrerabilpena indartzea. - <u>PREBENTZIOA. Industriako olio erabiliak.</u> <ul style="list-style-type: none"> o Industriako olio erabilien sorkuntza murriztea. o Industriako olio erabiliek dauzkaten substantzia kaltegarrien kopurua eta eduki horrek giza osasunean eta ingurumenean eragiten duen inpaktua murriztea.

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

- Olio erabilien proportzioari buruzko informazioa eta datuak hobetzea, merkaturatzen den kg olio bakoitzari dagokionez.
- PREBENTZIOA. Pilak eta metagailuak.
 - Andaluzian pilen eta metagailuen hondakinak prebenitzea.
 - Ingurumen errendimendu hobea duten eta materia arriskutsu edo kutsatzaile gutxiago dauzkaten pila metagailuak eta bateriak merkaturatu daitezzen sustatzea.
- PREBENTZIOA. EEHak.
 - Andaluzian EEHen sorkuntza prebenitzea.
- PREBENTZIOA. Hondakin plastikoak.
 - Hondakin plastikoen sorkuntza eta hondakin horien ingurumenean uzteko joera etetea.
 - Behin bakarrik erabiltzeko plastikozko hainbat gairen erabileran ordezkapena eta ohitura aldaketak sustatzea; zehazki: mahai tresnak (sardexkak, aiztoak, koilarak eta zotzak), platerak, lastotxoak, kotoi-txotzak, poliestireno hedatuzko elikagai-ontziak, poliestireno hedatuzko edari-ontziak, poliestireno hedatuz egindako edalontziak eta plastiko oxodegradagarriko produktuak.
 - 2030erako merkatuan jarritako plastikozko ontzi guztiak erraz berrerabil daitezkeela edo modu errentagarrian birzikla daitezkeela bermatzea.
 - Plastikozko poltsen kontsumoa murriztea.
 - Hondakin plastikoen sorkuntza eta hondakin horiek ingurumenean uzteko joera etetea. Behin bakarrik erabiltzeko plastikozko hainbat gairen erabileran ordezkapena eta ohitura aldaketak sustatzea; zehazki: mahai tresnak (sardexkak, aiztoak, koilarak eta zotzak), platerak, lastotxoak, kotoi txotzak, poliestireno hedatuzko elikagai ontziak, poliestireno hedatuzko edari ontziak, poliestireno hedatuz egindako edalontziak eta plastiko oxodegradagarriko produktuak.
 - 2030erako merkatuan jarritako plastikozko ontzi guztiak erraz berrerabil daitezkeela edo modu errentagarrian birzikla daitezkeela bermatzea.
 - Plastikozko poltsen kontsumoa murriztea.
- PREBENTZIOA. Hiriko hondakin uren araztegi-tako lohiak.
 - Andaluzian sortzen diren hiriko hondakin uren araztegi-tako lohien kopurua murriztea.
 - Jatorriko kutsadura prebenitzeko, HUAetara iristen diren hondakin uren karga kutsatzaile gutxituz.
- PREBENTZIOA. Nekazaritzako hondakinak:
 - Sortutako hondakinen kopurua % 5 murriztea 2019an, 2008an sortutakoen aldean.
 - Nekazaritzako hondakin plastikoen sorkuntza eta hondakin horiek ingurumenean uzteko joera etetea.
 - Nekazaritzan erabiltzeko plastikoen bilketa eta balorizazioa sustatzea.
- PREBENTZIOA. Industria hondakinak:
 - Andaluzian sortzen diren industria hondakinen kopurua murriztea.
- PREBENTZIOA. Bestelako hondakinak:
 - Andaluzian sortzen diren hondakin sanitarioen kopurua murriztea.
- KUDEAKETA. Udal hondakinak:
 - Udal hondakinen bilketa bereiziko sistema hobetzea. Papererako, metaletarako, plastikorako eta beirarako bilketa bereizia ezartzen dela ziurtatzea eta ezarpena hobetzea.

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

- Bilketa bereiziari buruzko jarduera onen gida bat egitea toki erakundeentzat.
- Biohondakinetatik ekoiztako materialen erabilera sustatzea.
- Garbiguneen sarea indartzea.
- Udal hondakinak tratatzeko instalazioen sarea bilketa sistemen aldaketa premietara egokitzea eta sarea hobetzea.
- Berreskuratzeko eta konpostatzeko instalazioetan (BKI) balioztatu daitezkeen materialen berreskurapena hobetzea.
- Ontziak hautatzeko instalazioen eraginkortasuna hobetzea, 2025erako ontzien % 10 eta 2030erako % 5 deusezta dadin gehienez ere (instalaziora sartzen diren ontziei dagokienez, desegokiak kontuan hartu gabe).
- BKIetatik datozen errefusen balorizazio energetikoa areagotzea, sortzen diren udal hondakinei dagokienez.
- KUDEAKETA. Ontzien hondakinak.
 - Etxeko ontzi hondakinen bilketa bereizia areagotzea, birziklatutakoaren % 70 gutxienez bereizita bildutako ontzi hondakinetatik etor dadin 2020an.
- KUDEAKETA. GEEHak.
 - GEEHen ekoizpen eta kudeaketan zaintza eta ikuskapena ezartzea.
 - Otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan tratamendu instalazioetarako ezarritako tratamendu zehaztapen teknikoak betetzea eta baimenak errege dekretu horretan ezarritakoaren arabera egokitzea.
 - Garbiguneak egokitzea, otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan ezarritako baldintzen arabera.
 - Kudeaketa instalazioak teknika erabilgarri onenetara egokitzen laguntzea.
- KUDEAKETA. Bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuak:
 - TZBetan hondakinak berrerabiltzeko prestaketa eta birziklapena indartzea.
 - Andaluzian sortzen diren BBAIen kudeaketa egokia dela bermatzea, hala urtarrilaren 20ko 20/2017 Errege Dekretuaren eremuan sartuta daudenentzat, nola errege dekretu horretatik kanpo geratutakoentzat (autobusak, motorrak, traktoreak, ibilgailu industrialak...), ibilgailuetatik ateratzen diren hondakin balorizagarriak zabortegean uztea saihesteko.
 - Piezak berrerabiltzeko eta birziklatzeko mailak handitzea BBAIak desmuntatzeko eta deskontaminatzeko prozesuetan.
 - TZBak ikuskatzeko, kontrolatzeko eta zaintzeko lanak egitea, BBAIen piezen legez kontrako trafikoa saihesteko, zaintza eta kontrola indartuz.
- KUDEAKETA. Bizitza baliagarriaren amaieran dauden pneumatikoak:
 - Andaluzian BBAPak behar bezala kudeatzen direla bermatzea.
 - Bildutako pneumatikoen % 100 berreskuratzea eta balorizatzea 2019rako.
 - 2020an % 15 berrerabiltzeko (bigarren erabilerarako eta birkautxutatzeko) prestatzea.
 - 2020an sortutako BBAPen pisuaren % 45 gutxienez birziklatzea. Altzairuaren % 100 birziklatzea.
 - Balorizazio energetikoa: 2020an, sortutako BBAPen pisuaren % 40 gehienez.
 - BBAPak berrerabiltzeko prestaketa eta birziklapena indartzea.

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

- Autonomia erkidegoan nonahi utzitako BBAP pilaketak identifikatzea eta horiek kudeatzeko irtenbide posibleak aztertzea.
- Pneumatikoen deklaratu gabeko inportazioak eta esportazioak prebenitzea.
- Bigarren erabilerako edo birkautxutatutako pneumatikoen erabilera sustatzea, kalitate eta segurtasun maila handiak bermatuz.
- KUDEAKETA. Pilak eta metagailuak:
 - Andaluzian pilen eta metagailuen hondakinen bilketa bereizia hobetzea.
 - 2018-12-31tik aurrera pilen eta automobilgintzako metagailuen hondakinen pisuaren % 98 biltzea gutxienez.
 - Bilketaren aurreko urtean sortu diren eta kadmioa duten pila, metagailu eta bateria industrialen hondakinen pisuaren % 95 biltzea urtean, 2011-12-31tik aurrera.
 - 2020-12-31tik aurrera kadmiorik edo berunik ez duten pilen, metagailuen eta bateria industrialen hondakinen pisuaren % 70 biltzea gutxienez.
 - Birziklapen arloan gutxienerako eraginkortasun maila hauek lortzea:
- KUDEAKETA. EEHak:
 - Andaluzian sortzen diren EEHen kopurua murriztea.
 - Obra publikoetan agregakin birziklatuak erabil daitezen bultzatzea.
 - Kontrolik gabeko isurketa guneak ager daitezen saihestea.
 - Eraikuntza, eraispen eta birgaiketa obretan sortzen diren hondakinen bilketa bereizia ezartzea.
- KUDEAKETA. Hondakin plastikoak:
 - Hondakin plastikoen bilketa bereiziko sistema hobetzea.
 - Plastikoen birziklapena handitzea.
 - Plastiko birziklatuen eskaria bultzatzea.
- KUDEAKETA. Hiriko hondakin uren araztegi-tako lohiak:
 - Lurzoruetan balioztatuko diren lohien tarteko tratamenduen kalitatea ziurtatzea.
 - Sortutako araztegi-tako lohien % 85 gutxienez nekazaritzako lurzoruetan aplikatzea 2019rako.
 - Sortutako araztegi-tako lohien % 7 gehienez zaborte-gian uztea (egonkortu ondoren) 2019rako.
- KUDEAKETA. Nekazaritzako hondakinak:
 - Sortutako nekazaritzako hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzea,
 - hondakinen kudeaketaren hierarkia printzipioa betez.
 - Nekazaritzako hondakinen berrerabilpena, birziklapena eta balorizazioa handitzea.
 - Nekazaritzako plastikoen hondakinen bilketan aurrera egitea.
- KUDEAKETA. Industria hondakinak:
 - Industria hondakinak behar bezala kudeatzen direla ziurtatzea, hierarkia printzipioa aplikatuz eta giza osasuna nahiz ingurumena babesten direla bermatuz.
 - Industria hondakinen gaikako bilketa hobetzea eta hondakin horien berrerabilpen, birziklapen eta balorizazioari bide egitea.
 - Industria hondakinen sorkuntza eta kudeaketaren gaineko jarraipena eta kontrola hobetzea.
- KUDEAKETA. Bestelako hondakinak:
 - Andaluzian sortzen diren hondakin sanitarioen barne kudeaketan sartuta dauden agenteen prestakuntza hobetzea.

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

- KUDEAKETA. Hondakinak zabortegietan uztea:
 - o Tratatu gabeko udal hondakinak zabortegian uzteko joera saihestea.
 - o Birziklatzeko edo beste balorizazio mota baterako egokiak diren hondakinak 2030etik aurrera zabortegietan onartuko ez direla bermatzea (bereziki, udal-hondakinak), hondakinok zabortegian biltegitratzeak ingurumen emaitzarik onena ematen duenean izan ezik.
 - o Zabortegiekin lotutako ingurumen inpaktuak gutxitzea.
- KUDEAKETA. Ingurumen fiskalitatea:
 - o Andaluzian hondakin hierarkia ezar dadin sustatzea.
 - o Isurketa kostua benetako kudeaketa kostura doitzea, denboran luzatzen diren kostuak barne hartuta (hala nola, ingurumena lehengoratzeko kostuak eta zabortegiaren bizitza baliagarriaren amaierako epe luzerako zaintzari dagokiona).
 - o Hondakin arriskutsuak gelditzeko edo egonkortzeko xedez Andaluzian egiten diren operazioak zergapetzea.
- KUDEAKETA. Mugaz gaindiko lekualdaketak.
 - o Andaluziako hondakinen mugaz gaindiko lekualdaketan ikuskapenak aldia behin eta modu koherentean egin daitezen bermatzea.
- KONTZIENTZIAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA. Udal hondakinak:
 - o Udal hondakinen sorkuntzan dauden ohiturak alda daitezen sustatzea.
 - o Produktuen berrerabilpena eta bazterturiko produktuak berrerabiltzeko prestaketa sustatzea.
 - o Komunikazio ekintzen bidez hondakinen gaikako bilketari laguntzea.
 - o Udal hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren arloko ezagutza trukitzea.
 - o Hondakinak kudeatzeko prozesuko datuen gardentasunean eta parekagarritasunean aurrera egitea.
- KONTZIENTZIAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA. Ontziak:
 - o Ontzien eta ontzi hondakinen prebentzioa sustatzea, komunikazio jarduketan bidez.
 - o Komunikazio ekintzen bidez hondakinen gaikako bilketari laguntzea.
- KONTZIENTZIAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA. GEEHak:
 - o GEEHen sorkuntza murriztu dadin sustatzea.
 - o Andaluziako herritarrek GEEHak behar bezala kudea ditzaten sustatzea.
- KONTZIENTZIAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA. Bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuak:
 - o Erabiltzaileek eta administrazioek ibilgailuetan mantentze lan egokiak egin ditzaten sustatzea, horien bizi zikloa handitzeko.
 - o Andaluziako TZBetan ingurumen arloko kontzientziazioa hobetzea.
- KONTZIENTZIAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA. Bizitza baliagarriaren amaieran dauden pneumatikoak:
 - o Tartean dauden agente guztiak BBAP gutxiago sortzeko sentsibilizazio lanak egitea.
- KONTZIENTZIAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA. Industriako olio erabiliak:
 - o Olioaren bizi zikloan inplikaturik dauden agente guztiak sentsibilizatzea.
 - o Olio erabiliak kudeatzeko baimena duten instalazioen funtzionamendua hobetzea.

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

	<ul style="list-style-type: none"> - <u>KONTZIENTZIAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA. Pilak eta metagailuak:</u> <ul style="list-style-type: none"> o Pilak eta metagailuak ingurumen errendimendu handiagoz erabil daitezen sustatzea. o Pilen eta metagailuen hondakinak behar bezala kudea daitezen sustatzeko kontzientziazio lanak egitea. - <u>KONTZIENTZIAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA. EEHak:</u> <ul style="list-style-type: none"> o Eraikuntzaren eta eraispenaren sektorean ingurumen kudeaketa egokia egin dadin sustatzea. o Herritarrek obra xeheko EEHen kudeaketaren inguruan informatzea. - <u>KONTZIENTZIAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA. Hondakin plastikoak:</u> <ul style="list-style-type: none"> o Plastikozko ontzi hondakinen prebentzioa sustatzea komunikazio jarduketan bidez. o Komunikazio ekintzen bidez hondakinen gaikako bilketari laguntzea. - <u>KONTZIENTZIAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA. Hiriko hondakin uren araztegi-tako lohiak:</u> <ul style="list-style-type: none"> o Jatorriko kutsaduraren prebentzioa sustatzea, HUAetara iristen diren hondakin uren karga kutsatzaile gutxituz. o Nekazaritzako eta basozaintzako lurzoruetan lohiak erabil daitezen sustatzea, ongarrien edo medeapenen erabilera osatzeko duten abantailaren berri emateko. - <u>KONTZIENTZIAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA. Nekazaritzako hondakinak:</u> <ul style="list-style-type: none"> o Komunikazio neurrien eta ekintzen bidez nekazaritzan sortzen diren hondakinen prebentzioa eta kudeaketa sustatzea. - <u>KONTZIENTZIAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA. Industria hondakinak:</u> <ul style="list-style-type: none"> o Industria hondakinen tratamenduan hierarkia printzipioa aplikatu dadin sustatzea. o Industria hondakinak jatorrian sailkatzeko jarduera hobetzea. - <u>KONTZIENTZIAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA. Bestelako hondakinak:</u> <ul style="list-style-type: none"> - Hondakin sanitarioen bereizketari eta geroko tratamenduari bide egitea. - <u>KONTZIENTZIAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA. Mugaz gaindiko lekualdaketak:</u> <ul style="list-style-type: none"> o Mugaz gaindiko lekualdaketa bideratutako hondakinen kudeaketa hobetzea.
<p>Jarduketa giltzarriak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - <u>PREBENTZIOA. Udal hondakinak:</u> <ul style="list-style-type: none"> o Etxeko eremuan kontsumo jasagarria egiteko gida bat egitea. o Merkataritzako eremuan hondakinen sorkuntza prebenitzeko gida bat egitea. o “Lorezaintza jasagarria” deiturikoa sustatzea, landare hondakin gehiegi ez ekoizteko. o Bilketa sareak eta konponketa dendak nahiz bigarren eskuko dendak sustatzea (bereziki, altzariei, jostailuei, liburuei eta arropoi dagokienez). o Liburuak trukatzeko egitasmoei laguntzea eta altzariak, arropak eta abar berrerabiltzeko tresna posibleak hedatzea. o Hondakinen garbiketa eta bilketa kontratuak loteetan bana daitezen sustatzea, gizarte ekonomiako erakundeak eta berrerabiltzeko prestaketa jardueretan diharduten beste berreskuratzaile talde

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

- batzuk altzariak eta tamaina handiko hondakinak biltzeko zerbitzuetarako lizitazioetara aurkeztu ahal izan daitezkeen.
- Administrazio autonomikoaren kontratuetan erosketa publiko berdea eta produktu berrerabilgarrien eta erraz birzikla daitezkeen materialen erabilera sartzea, bai eta hondakinetatik eratorritako materialekin fabrikatutako produktuak sartzea ere. Era berean, irizpideok haien kontratu publikoetan sartzea eskatuko zaie toki erakundeei eta partzuergoei.
 - Administrazio publikoen eremuan behin bakarrik erabiltzeko produktuen ordez produktu berrerabilgarri baliokideak edo bizitza baliagarri luzeagoko produktuak erabil daitezkeen sustatzea.
 - Iraupen laburreko produktuen ordez gehiago irauten duten produktuak erabiltzeko esperientzia pilotuetan lankidetzan aritzea eta esperientzia horiek hedatzea.
 - Nekazaritza Ministerioak sustatzen dituen ekintzetan parte hartzea. Arrantza eta Elikadura, “Elikagai gehiago, xahuketa gutxiago” estrategia gisa.
 - Elikagai katean elikagai hondakinak murrizteari begirako I+G+b proiektuak bultzatzea. (PDTRNPA).
 - Kontsumitzaileentzako informazioan hobekuntzak egin daitezkeen sustatzea, elikagai produktuen “iraungitze dataren” eta “kontsumo lehenetsiaren dataren” esanahiari dagokionez.
 - Hurbileko merkatuak sustatzea.

- PREBENTZIOA. Ontziak:

- Benchmarking tresnak garatu eta ezartzea, merkatuan eskuragarri dauden ontziak konparatiboki ebaluatzeko eta enpresei ontzien prebentzioaren arloan erabakiak hartzen laguntzeko.
- Ontzien ekodiseinuaren eta material berrien erabileraren inguruko I+G+b sustatzea, birziklagarritasuna hobetzeko (PDTRNPA).
- Ontzi hondakinak prebenitzeko enpresa planetan ezarritako neurrien ezarpenaren gaineko jarraipena egitea (PDTRNPA).
- Erosketa publikoetan ontzien murrizketa eta ontzi berrerabilgarrien erabilera sustatuko dituzten baldintzatzaileak txertatzea (PDTRNPA).
- Enpresek, gizarteak eta toki erakundeek ontziak murriztu eta berrerabiltzeko abiatzen dituzten egitasmoei euskarria ematea. Adibidez, esnea saltzeko makinak, iturriko ura eta jaietan, ekitaldietan eta abarretan produktu berrerabilgarriak erabil daitezkeen sustatzea.

- PREBENTZIOA. GEEHak:

- Etxetresna elektrikoak konpontzen ikasteko eta bigarren eskuko zentroak ezartzeko ikastaroak
- sustatzea.
- GEEHak berrerabiltzeko aukerak sustatzea, prebentzioari buruzko azterlan teknikoak eginez, azterlanon balorazioa, jarraipena eta betearazpena egiteko neurriak barne.
- Bigarren eskuko GEE-en erosketa salmenta sustatzea eta GEEak konpontzeko instalazioak bultzatzea, ekipoen bizitza baliagarria luzatzea ahalbidetzen baitute. Bigarren eskuko GEE-en kalitatea ziurtatzeko tresnak garatzea (hala nola, bermeak, ziurtagiriak eta abar).

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

- Unibertsitateekiko eta ikerketa zentroekiko lankidetza sustatzea, sortzen diren ingurumen inpaktuak minimizatzeko eta enplegu aukerak garatzeko.
 - Erakunde publikoetan (ospitaleetan, ikastetxeetan, administrazioan eta abarreen) ordezkaten diren GEEak (ordenagailuak) erosteko aukera ematea kolektibo jakin batzuei.
 - Diseinuan bizi zikloaren analisia txertatuta dakarten GEE berrien erosketa sustatzea, bizitza baliagarriaren amaieran horiek erabiltzea eta birziklatzea errazteaz gain bizitza baliagarri hori luzatzea ahalbidetuko duten konponketa- eta mantentze-lanei bide egiten baitzaie horrela, halakorik aurreikusten ez duten aparatuen aurrean.
 - Produktuen iraunkortasunaren eta konpongarritasunaren ebaluazioan aurrera egitea eta produktuen etiketatu posiblean nahiz produktuen bermeen iraupenaren igoeran aurrerapausoak ematea.
- **PREBENTZIOA. Bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuak:**
- TZB guztiei piezak kudeatzeko eta merkaturatzeko software bat ematea.
 - TZBek urtarrilaren 20ko 20/2017 Errege Dekretuan ezarritako betekizunak bete ditzaten sustatzea BBAletatik beira kentzeari dagokionez, ibilgailuen berrerabiltzeko prestaketa nahiz birziklapena sustatzeko.
- **PREBENTZIOA. Bizitza baliagarriaren amaieran dauden pneumatikoak:**
- Pneumatikoen bizitza baliagarria luzatzeko eta prebentzioa indartzeko moduaren inguruan ikertzen duten I+G+b proiektuak egitea.
 - Pneumatikoen ekoizleen arteko lankidetza sustatzea, SCRAPek errazago egin ditzaten merkatuan jartzen diren pneumatikoen kopurua eta kategoria egiaztatuzko jarduerak.
- **PREBENTZIOA. Industriako olio erabiliak:**
- Olio biodegradagarri eta/edo iraunkorrago berriak garatzeko I+G+b proiektuei laguntzea.
 - Kontratazio publikoen baldintza orrietan olio iraunkorragoen edo ez hain kutsatzaileen erabilera sartzeta.
 - Tresnen, ekipoen eta ibilgailuen osagaietan hobekuntzak sartzeta, olio erabiliaren sorkuntza minimizatzeko eta olioaren kontsumoa optimizatzeko.
 - Olio biodegradagarriak merkaturatu daitezten sustatzea.
 - Mikrolubrikazio tekniken erabilera sustatzea. Teknika horiek aldaketak egiten dituzte produktuaren eraketan, eta erabilitako produktuaren kopurua dosifikatzen duten teknika mota ezberdinak ezartzen dituzte, erabiltzen den olio kopurua murrizteko.
- **PREBENTZIOA. Pilak eta metagailuak:**
- Kontratazio publikoan ingurumen errendimendu handiagoa duten, substantzia arriskutsu gutxiago dituzten eta merkurioaren, kadmioaren eta berunaren ordeztu gutxiago kutsatzen duten substantziak dituzten pilak eta metagailuak edota pila eta metagailu kargagarriak erostea errazteko klausulak sartzeta.
 - Legedian ezarritakoa baino merkurio eta kadmio kopuru handiagoak dauzkaten pilak eta metagailuak merkaturatzen ote diren zaindu eta kontrolatzea.

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

- PREBENTZIOA. EEHak:
 - Hondakinen prebentzioa sustatzea, eraikuntzen bitzitza baliagarriaren luzapenean, berrerabilpenean eta eraikuntza obren plangintzaren eta logistikaren hobekuntzan oinarritutako I+G+b proiektuak idatziz.
 - Administrazio publikoak sustatutako proiektu eta obren preskripzio teknikoan orrietan jarduera onak ezartzea, obra bat garatzeko faseetan (eraikuntza, ustiapena eta mantentze lanak) hondakinak prebenitzeari dagokionez.
 - Kontratazio publikoko obren edo proiektuen eskaintzetan puntuatze sistema bat ezartzea, non puntuatze handiagoa emango zaien material birziklatua erabiltzen duten, EEHen sorkuntza murriztea aurreikusten duten eta hondakinen sorkuntza tasa jasoko duten proposamenei (sorkuntza tasa adieraziz gero, prebentzioa balorazio irizpidetzat hartu ahalko da hala kontratazioan, nola geroko egiaztapenean).

- PREBENTZIOA. Hondakin plastikoak:
 - Ingurumenean gehien agertzen diren plastikozko gaiak identifikatzea, horien iturriak identifikatu ahal izateko eta hondakinok nonahi uztea saihesten duten konponbideak ebaluatu ahal izateko.
 - Iraupen luzeko (bitzitza baliagarri handiagoko) plastikoen erabilera sustatzea; bereziki, berotegien estalkietan.
 - Bizitza baliagarri handiagoko plastikoen erabilera sustatzea.
 - Behin erabiltzeko plastikozko gaiak ordezkatzeko produktuei buruzko azterlanak eta/edo gida praktikoak egitea.
 - Plastikozko ontziak diseinatzean berrerabilpena edo birziklapena gogoan hartzean.
 - Plastikoa sailkatu eta birziklatueterako kalitate estandarrak normalizatzen laguntzea.

- PREBENTZIOA. Hiriko hondakin uren araztegietako lohiak:
 - Lohiak deshidratatzeko prozesuak optimizatzea.
 - Hondakin uren isurketak jatorrian ez kutsatzeko egon daitezkeen aukerak ikertzeko azterlanak egitea; besteak beste, efluente industrialak aurrez tratatzeko sistemak ezartzea, industria prozesuak edo lehengaiak aldatzea, efluente industrialak bereiztea (hondakin arriskutsu gisa trata daitezzen) eta abar.

- PREBENTZIOA. Nekazaritzako hondakinak:
 - Laborantza babestuetara eta nekazaritza ustiategietako haztegitara izurriteak transmititzen dituzten intsektu bektoreak ez sartzeko sareak jartzea.
 - Laborantzen zaintza eta kontrola indartzea, izurrien garapena iragartzeko.
 - Nekazaritzako ustiategietan teknika erabilgarri onenak (TEO) ezartzeko aukera aztertzea, hondakin plastikoen sorkuntza murrizteko.
 - Andaluziako hondakin plastikoen sorkuntzari eta kudeaketari buruzko datuen bilketa hobetu eta hedatzea; batez ere, gehien sortzen duten sektoreetan (hala nola, nekazaritzan).

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

- **PREBENTZIOA. Industria hondakinak:**
 - Industria hondakin ez-arriskutsuak balorizatzeko prozesuetatik datozen bigarren mailako lehengaiak eraginkortasunez erabil daitezten sustatzea, beste lehengai batzuen ordez erabil daitezten.

- **PREBENTZIOA. Hondakin sanitarioak:**
 - Kontratazio publikoan oso kutsatzaileak ez diren materialak eta hondakin gutxiago sortzen duten edo arrisku gutxiago duten laborategiko teknikak erabiltzea errazten duten klausulak sartzea.

- **KUDEAKETA. Udal hondakinak:**
 - Bilketa bereiziko sistema berrien proba pilotuei laguntzea.
 - Tamaina handikoak biltzeko jarduera onenak ebaluatu eta sustatzea.
 - Landare olio erabilien hondakinen bilketa sustatzea. Ekoizlearen erantzukizun zabalduaren esparruan landare olio erabilien hondakinak kudeatzeko sistemak ezar daitezten sustatzea.
 - Ekoizle handiek eta beste jarduera ekonomiko mota batzuek sortutako udal hondakinen frakzio birziklagarrien atez ateko gaikako bilketa sustatzea.
 - Udal biohondakinen bilketa bereizia ezartzea.
 - Autokonpostajea sustatzea, erraz egin daitekeen tokietan (etxeko konpostajea hiri eta landa inguruneetako familia bakarreko etxebizitzetan, komunitateko konpostajea edo autokonpostajea garbiguneetan). Etxeko konpostajea bultzatzea.
 - Toki erakundeei biohondakinak bereizita biltzeko egon litezkeen eredu berri ematea, udalerrri edo auzo bakoitzaren testuinguru sozioekonomikoa eta hirigintza patroia edota bilketa hori errazten duten gaur egungo sistemak (atez ateko bilketa sistemak, edukiontzia ixteko sistemak, edukiontzietan aho kalibratuak jartzeko sistemak...) kontuan hartuta.
 - Inausketa eta lorezaintzako hondakinak biltzeko bitarteko gehiago ezar daitezten sustatzea.
 - Ministerioarekin lankidetzan aritzea, kalitateko konpostak hondakin izateari noiz uzten dion arautzeko eta konpost hori produktu gisa erabiltzea sustatzeko.
 - Biohondakinen tratamenduaren ondoriozko konpostaren erabilerari gutxienerako ehuneko bat ezartzea administrazio publikoen jardueretarako (lozezaintza, errepideen mantentze lanak eta abar).
 - Biohondakinetatik abiatuta ekoiztako konposta nekazaritzan, lorezaintzan edo eremu narriatuak lehengoratzeko lanetan erabil dadin sustatzea.
 - Ehunak bereizita biltzeko udal sarea sustatu eta indartzea edo gizarte eta ekonomiako erakundeekin nahiz bestelako erakunde baimenduekin akordioak egitea.
 - Ehunak bereizita biltzeko egon litezkeen erduei buruzko azterlana egitea.
 - Etxeko hondakin arriskutsuak bereizita biltzeko egon litezkeen erduei buruzko azterlana egitea.
 - Udal hondakinen askotariko frakzioetan dauden hondakin arriskutsuen proportzioak eta motak ikertzea.
 - 5.000 biztanletik gorako udalerrri guztiek garbigune mugikor edo finko bat eduki dezaten sustatzea.

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

- Garbigune finkoak eskuratzeko zailtasunak dituzten biztanle sektoreetan (distantziagatik, udalerrian zerbitzurik ez izateagatik edo udalerrian garbigune finkoak dakartzan funtzionamendu gastuei aurre egiteko ezintasuna izateagatik) garbigune mugikorrek hornitzea.
- Garbiguneen sarreraren eta irteeraren gaineko kontrolean eta informazioan hobekuntzak egitea, benetako datuak izateko eta ematen diren hondakinak berrerabili eta birziklatzeko jardueri bide emateko.
- Garbigune sarea optimizatzea, premiak lurralde plangintza batetik aztertuz. Biztanleria sakabanatuen dagoen eremuetan ikerketak egitea, bilketa sistema mota horiekin artatzeko gutxieneko biztanleria edo azalera ezartzeko.
- Udal garbiguneetan etxeko hondakin arriskutsuak biltzeko nahitaezko zerbitzu bat txertatzea.
- Berreskuratzaile eta kudeatzaile baimenduen lokaletan garbiguneak jartzea.
- Instalazioak egokitzea, lapurreta eta bandalismoa murrizteko (sarrailak indartu, zaintza gehiago jarri, emandako hondakinak egunero ebakuatu, material jakin batzuk markatzeko sistema ezarri, bideozaintza sistema jarri eta abar).
- Hondakinak tratatzeko instalazioak berreskurapenerako eta berrerabilpenerako toki gisa sustatzea.
- Gaur egungo tratamendu instalazioak optimizatzea helburu duten azterlanak egitea.
- Tratamendu instalazioetako errefus orokorra tratatzeari begirako edo merkatu balio handiagoko produktuak eskuratzeari begirako azterlanak egitea.
- Bereizita bildutako biohondakinak tratatzeko (konpostajea) dauden tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioak egokitzea, nahiko edukiera izan dezaten.
- BKletako errendimendua eta hobetzeko premiak aztertzea, errefus frakzioko hondakinen tratamenduan material gehiago berreskura dadin.
- BKletako errendimendua handitzeko behar diren hobekuntzak egitea.
- Andaluziako laborantzetan (zehazki, olibadietan) edo nekazaritzakoak ez diren aplikazioetan konposta erabiltzeko eskatzen diren kalitate mailak zehazteko azterlanak egitea eta aplikazio horietan konposta erabil dadin sustatzea. Ekoitzitako konpostak merkatuan duen bideragarritasuna ebaluatzea. Etxeko konpostajerako proba pilotuak garatzea; funtsean, landa eremuetan.
- Harrobiak, legar hobiak eta zabortegiak lehengoratzeko orduan material bioegonkortua (errefus frakzioa tratatzearen ondoriozko produktua) erabil dadin sustatzea (estaldura, ezpondak landareztatzea...).
- Narriatutako lursailak eta abandonatutako harrobiak lehengoratzeko orduan edota ezpondak landareztatzeko orduan material bioegonkortua erabiltzeari buruzko esperientzia pilotuak abiatzea.
- Nekazaritzan material bioegonkortua eta biohondakinen gaikako bilketatik datorren konposta erabiltzeari buruzko esperientzia pilotuak abiatzea.

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

- Ontziak sailkatzeko instalazioetan hobekuntzak egitea, haien produktibitatea hobetzeko.
- Garbiguneen sarreraren eta irteeraren gaineko kontrolean eta informazioan hobekuntzak egitea, benetako datuak izateko eta ematen diren hondakinak berrerabili eta birziklatzeko jardueri bide emateko.
- Udal garbiguneetan etxeko hondakin arriskutsuak biltzeko nahitaezko zerbitzu bat txertatzea.
- Sortzaile handietan (ostalaritza, zerbitzuak, banaketa) egurra berezita biltzeko sistemak sustatzea eta etxeek edota udal eremuko beste sortzaile batzuek egurra garbiguneetan entrega dezaten bultzatzea.
- Sortzaile handientzat frakzio organikoa berezita biltzeko sistema espezifikoak ezar daitezen sustatzea.
- Udalerrietako birziklapen zentroak eraikitzeko, hobetzeko edo handitzeko proiektuetan inberti dadin sustatzea.
- Andaluzian zerbitzu ematen duten garbiguneak egokitzea, etxeko hondakin arriskutsu mota gehiago jasotzeko.
- Garbiguneak egokitzea, berrerabiltzeko prestaketarako eta birziklapenerako elementu aktibo bihur daitezen. Garbiguneen gutxieneko hornidura eta erregulazioa ezartzea.
- Andaluziako garbiguneetan autokonpostajea sustatzea.
- Energetikoki baloriza daitezkeen udal hondakin ez-arriskutsuen frakzioa karakterizatzeko azterlanak egitea.
- Hondakinen frakzio ez-birziklagarrietatik berreskuratutako erregai solidoen ekoizpenari buruzko azterlan teknikoak egitea eta dauden zementu fabrikekin sor litezkeen sinergiak aztertzea.
- Berreskurapen eta konpostaje instalazioetatik datorren errefusa energetikoki balorizatzeko bideragarritasuna zehazteari begirako azterlan eta lan teknikoak egin eta argitaratzea.

- KUDEAKETA. Ontzi hondakinak:

- Ontzi hondakinak (baita merkataritzako eta industriako ontziak ere) materialen arabera hobetzeko jarduketa espezifikoaren programak zehaztea.
- Sendagaien gaikako bilketa farmazien bidez sustatzea.
- Ontzien eta ontzi hondakinen inguruko informazio kanalak hobetzea, ontziak merkatuan jartzeari eta ontziok sortzen dituzten hondakinen tratamenduari dagokienez.
- Ontziak sailkatzeko instalazioetan hobekuntzak egitea, haien produktibitatea hobetzeko.
- Papera, kartoia, beira, metalak eta plastikoa kudeatzeko ezarri beharreko logistika eredu eta eredu horren kostuak ebaluatzeko eredu optimizatzeari buruzko azterlanak egitea. Ontziak edo ontzi hondakinak berreskuratzeko bestelako ereduak, alternatibak edo sistema osagarriak aztertzekeo premia baloratzea, eraginkortasuna eta bideragarritasun teknikoa, ingurumenekoa eta ekonomikoa kontuan hartuta, tartean dauden agente guztien ikuspegia izanik.
- Edukiontzia horietan biltzen ez diren ontziak biltzeko beste bide batzuk indartzea; hala nola, honako ontzi hauek biltzekoak: handizkako saltokietatik eta txikizkako saltoki handietatik datozenak, industrialak, beste hondakin-frakzio batzuetatik berezitatekoak edo

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

- errefus frakzioetarako edukiontzietatik eta garbiguneetatik datozenak.
- Udal edukiontzietatik papera eta kartoia ez lapurtzeko neurriak abiatzea.
- Farmazietako jarduera onei buruzko azterlana egitea, Andaluzian sendagai ontzien gaikako bilketaren kalitatea hobetu dadin.
- Industria farmazeutikoari sendagai ontzien gaikako bilketa areagotzen laguntzea, herritarrengandik hurbilago egongo diren sareak heda daitezen.
- Ekoizlearen Erantzukizun Zabalduren Sistema Kolektiboekin lankidetzan, bilketa gune operatiboen lurralde banaketa hobetzeko eta produktu fitosanitarioen ontziak nahiz produktu ez-fitosanitarioen ontziak biltzeko sarea handitu daitekeen baloratzeko azterlana egitea.
- Kudeatzaile pribatuei merkataritzako eta industriako ontzien gaikako bilketari buruzko prestakuntza eta informazioa ematea.

- KUDEAKETA. GEEHak:

- GEEHak biltzeko garbiguneak edo tokiak herritarrentzat irisgarriak diren eremuetan (kaleetan, parkeetan, plazetan, aparkalekuetan, dendetan eta abar) jar daitezen sustatzea eta eremu horiek behar bezala identifikatzea.
- Udal-instalazioetan, dendetan, ikastetxeetan eta eraikin publikoetan GEEHak biltzeko guneen kopurua handitzea.
- Udal garbiguneak egokitzea, bildutako GEEHak berrerabiltzeko prestaketa sustatzeko. Garbigune horiek kontsumitzaileengandik hurbil jarri beharko dira, eta behar besteko ekipamenduak izango dituzte. Halaber, arreta egokia emango zaie, hondakinak ondo kudeatzen direla eta elementu ezegokien maila txikia dela bermatzeko. Horiek biltegitarte baldintzetara egokitzea, otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan xedatzen denarekin bat.
- Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza eta Garapen Jasangarrirako Kontseilaritzaren, Andaluziako Udallerrien Federazioaren eta GEE-en SCRAPen arteko lankidetzaren hitzarmenari indarraldia amaitzen zaionean, lankidetzaren hitzarmena luzatzea, bai elementu arriskutsuak behar bezala tratatzen direla eta GEEak egoki birziklatzen eta balorizatzen direla bermatzeko, bai 110/2015 Errege Dekretuan ezarritako xedeak lotzeko.
- SCRAPen baimenak otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan ezarritakora egokitzea.

- KUDEAKETA. Bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuak:

- Ibilgailuak deskontaminatzeko prozesuetan eta desmuntaketetan ateratzen diren osagaiak eta piezak berrerabiltzeko prestaketa eta balorizazioa sustatzea.
- Tratamendu operazioak egiten dituzten establezimenduek edo enpresek ingurumena kudeatzeko sistema ziurtatuak ezar ditzaten sustatzea; hala nola, batasunaren ingurumen kudeaketarako eta ikuskeraren sistema (EMAS).
- Ibilgailuen osagaien diseinuari buruzko ikerketan aurrera egingo duten proiektuak eta azterlanak egin daitezen sustatzea, BBAIen kudeaketa hobetzeko.

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

- Ibilgailuen fabrikatzaileek berrerabilgarriak diren osagai eta piezen desmuntatze egokiari buruzko azalpen prozedurak presta ditzaten sustatzea, bigarren erabilerarako osagaien kalitatea bermatzea lortzeko.
- KUDEAKETA. Bizitza baliagarriaren amaieran dauden pneumatikoak:
 - Berrerabiltzeko prestaketa bultzatzea, birkautxutatutako pneumatikoen eta bigarren erabilerako pneumatikoen erabilera sustatuz, pneumatikook diseinatu ziren xedeetarako berriz ere erabili ahal izan daitezen eta, horrela, BBAPak sortzea prebenitu eta pneumatiko berriak merkaturatzea saihestu dadin.
 - Nahasketa bituminosoetan pneumatikoen hautsaren erabilera sustatzea, errepideak eraikitzeko eta parkeetarako edo kirol instalazioetarako lurzoru bereziak egiteko, besteak beste. Horrelako obra publikoen kontratuetan material horren gutxieneko ehuneko baten erabilera sustatzea, kontratazioan eskakizunak ezarritik.
 - I+G+b proiektuak egin daitezten sustatzea, ingurumenaren arloan eskumena duen administrazio publikoaren laguntzarekin, Andaluzian bizitza baliagarriaren amaieran dauden pneumatikoen kudeaketa hobetu dadin, eta BBAPetatik datozen material birziklatuen erabilera sustatzea.
 - BBAPen SCRAPen bilketa kanalak hobetzea, bilketa ibilbideak edo pilaketa eta transferentzia guneak hobetu daitezten.
 - BBAPak bildu eta tratatzeko mekanismoak ezartzea, dentsitate txikia duten eta biztanle gehiagoko hiriguneetatik urrun dauden herrietarako.
 - Autonomia erkidegoan nonahi uzten diren BBAP-pilaketen inbentarioa egitea eta egoeraren gaur egungo diagnostikoaren nahiz kudeaketa aukera posibleen gaineko azterlana egitea.
 - BBAPak birziklatzetik datozen materialen erabilera sustatzea.
- KUDEAKETA. Industriako olio erabiliak:
 - Ereduzko klausulak prestatzea, oinarri birsortuetatik lortutako olio lubrifikatzaileen erabilera Andaluziako Juntaren kontratazio publikoko pleguetan sar dadin, eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuetara zabaltzea.
 - Olio erabiliak onartzen dituzten garbiguneen kopurua handitzea.
- KUDEAKETA. Pilak eta metagailuak:
 - Zerbitzu eta prestazio gehiago dauzkaten hiriguneetatik urrunduta dauden landa eremuetan pilen eta metagailuen hondakinak biltzeko guneen kopurua handitzea, edukiontzien hornidura espezifiko batekin.
 - Kontsumitzaileengandik hurbil dauden gune estrategikoetan pilen eta metagailuen hondakinak biltzeko guneen kopurua handitzea; hala nola, eraikin publikoetan, ikastetxeetan, saltokietan, garbiguneetan eta abarretan.
 - Pilen, metagailuen eta automobilgintzako baterien kontsumitzaileek elementu horiek erabili ondoren SCRAPetara erraz eta doan eraman ditzaten sustatzea.
 - Pilen, metagailuen eta automobilgintzako baterien ekoizleei aholku ematea, elementuok merkatuan jarri ondoren sortzen diren

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

hondakin motak eta kopuruak biltzeko eta kudeatzeko moduaren inguruan.

- **KUDEAKETA. EEHak:**
 - Obra xeheko EEHetarako garbiguneak sor daitezen sustatzea; batez ere, geografikoki sakabanatuta dauden herri txikietan.
 - Obra xeheko EEHak jasotzeko dauden garbiguneak egokitzea.
 - Andaluzian EEHak balorizatzeko eta deuseztatzeko dauden instalazio guztiei buruzko informazioa handitzea.
 - Biztanleria sakabanatuago duten eremuetan tratamendu instalazioak eraiki daitezen sustatzea.
 - Material birziklatua eskatzen duen kontratazio publiko ekologikoaren erabilera handitzea.
 - Administrazio publikoak sustatzen dituen proiektuen eta obren preskripzio teknikoaren pleguetan agregakin birziklatuen gutxieneko ehuneko bat ezartzea.
 - Dauden zabortegeien inbentarioa eguneratzea, isurketa gune berriak identifikatuz eta behar diren prebentzio edo lehengoratzeko jarduketak zehaztuz.
 - Eraikuntzaren eta eraispenaren sektorean jatorriko bereizketa sustatzea, kudeaketa operazioak errazteko.
 - Eremu narriatuetan (adibidez, harrobietan, legar hobietan, aire zabaleko meategietan eta indusketetan) EEHen material birziklatua erabil dadin sustatzea.
- **KUDEAKETA. Hondakin plastikoak:**
 - Andaluziako sektore adierazgarrietan plastikoak bereizita biltzeko sistemaren egungo egoera ebaluatzea.
 - Hondakin plastikoaren bilketa bereiziarri eta sailkapenari buruzko jardueraren onen orientazioak eta/edo gidak egitea.
 - 2029an plastikozko botilen % 90 berreskuratzea lortzeko estrategiak zehaztea.
 - Plastikoak eta plastikoaren produktuak errazago birziklatzea lortzeko berrikuntzari laguntzea.
 - Plastikozko botilen industriak material birziklatu gehiago erabiltzeko tresnak sortzen laguntzea, xede honekin:
 - 2025ean: botilen plastikoaren % 25 birziklatuko da.
 - 2030ean: botilen plastikoaren % 30 birziklatuko da.
 - Kontratazio publikoko irizpideetan eduki birziklatua txertatzea.
- **KUDEAKETA. Hiriko hondakin uren araztegiak lohiak:**
 - Lohiak lurzoruetan balorizatzen dituzten kudeatzaileek lohiak biltegiratzeko dauzkaten baldintza tekniko eta fisikoak ikertzeko azterlanak egitea, lohiak finketan aldi batez biltegitatu ez daitezen eta biltegitatze horien ondoriozko arazoak saihestu daitezen.
 - Informazioa kudeatzeko tresna bat abiatzea. Tresna horretan, tratatutako lohiak nekazaritzako lurretan balorizatzen dituzten hondakin-kudeatzaileei buruzko informazio eta dokumentazio guztia jasoko da; hala nola, araztegiaren tratatutako lohien aplikazioei eta lohiak aplikatzen diren lurzatiei buruzko urteko informazioa.
- **KUDEAKETA. Nekazaritzako hondakinak:**

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

- Nekazaritzako hondakinen kudeaketari buruzko eskuliburu teknikoak egitea. Eskuliburu horietan, beste informazio tekniko batzuen artean, nekazaritzako hondakinak jatorrian bereizteko eta birziklatzeko prozedurak zehaztuko dira.
- Landare hondakinak ustiategietan bertan birrintzeko ekipamendua eros dadin sustatzea, hondakin horiek konpostatzeko, autokonpostatzeko, ongarri berde bihurtzeko eta/edo animaliak elikatzeke erabil daitezten. Horretarako erabiltzen ez badira, tratamendu instalazioetarako garraioa soildu egiten da, ekipamendu horiekin garraiatu beharreko bolumena murrizten baita.
- Landare hondakinak ustiategietan bertan autokonpostatzeko ekipamendua eros dadin sustatzea.
- Errafia biodegradagarrien eta konpostagarrien erabilera sustatzea (landare hondakinei eusteko elementu gisa), errazagoa izan dadin hondakinak konpostajerako, autokonpostajerako, ongarritze berderako eta/edo animalien elikadurarako erabiltzea.
- Nekazaritzako hondakinen kudeaketa optimizatzeke eta bilketa hondakinok sortzen diren unetik optimizatzeke azterlanak egitea, hondakin horiek pilaketa guneetan ematen duten denbora murriztu dadin.
- Nekazaritza sektorean sortutako landare hondakinak identifikatzeko azterlanak egitea, baldin eta hondakin horiek berrerabilgarriak edo birziklagarriak ez badira eta energetikoki baloriza badaitezke.
- Balorizazio instalazioak (konpostajea barne) sortu eta hobetu daitezten sustatzea.
- Landare hondakinen bilketa hobetzea, nekazaritzako ustiategietatik hurbil pilaketa guneak prestatuz.
- Udalerrietan inausketak biltzeko edukiontzi espezifikoaren kopurua handitzea.
- Nekazaritzan plastiko konpostagarri eta biodegradagarriak erabil daitezten sustatzea. Nekazaritza jardueran plastiko biodegradagarriak erabiltzeko ikerketa proiektuei laguntzea.
- Nekazaritzako hondakin mota ezberdinak jatorrian bereiz daitezten sustatzea, horiek behar bezala kudea daitezten.
- Nekazaritzako hondakin plastiko oso narriatuak (gaur egun ekonomikoki bideragarria den teknologiarik ez egoteagatik tratatzen ez direnak) tratatzeko I+G+b-a sustatzea.
- Nekazaritzan plastiko konpostagarri eta biodegradagarriak erabil daitezten sustatzea. Nekazaritza jardueran plastiko biodegradagarriak erabiltzeko ikerketa proiektuei laguntzea.
- Kooperatibetan edo antzekoetan nekazaritzako plastikoa biltzeko guneak sustatzea.
- Plastikoaren fabrikatzaileen eta birziklatzaileen elkarrekin eta bestelako administrazio publikoekin lankidetzan aritzea eta informazioa eta esperientziak trukitzea.
- Nekazaritzan erabiltzen diren plastikoak biltzeko tresnei buruzko ikerketa proiektuei laguntzea, arrastatzen den lur kopurua murriztu dadin.
- Nekazaritzan erabiltzen diren eta berrerabilgarriak nahiz birziklagarriak ez diren baina energetikoki balorizatzeke egokiak diren hondakin plastikoak identifikatzeko azterlanak egitea.

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

- **KUDEAKETA. Industria hondakinak:**
 - Hondakinak jatorrian murrizteko eta sortzen direnak berrerabiltzeko teknologien inguruko I+G+b-a sustatzea. (PDTRNPA)
 - Industria guneek hondakin arriskutsuak nahiz ez-arriskutsuak transferitzeko gutxienez zentro bat eduki dezaten sustatzea, poligonoko industrietan (batez ere, ekoizle txikien lantegietan) sortzen diren hondakinei zerbitzu emateko edukiera nahikoa izango duena.
 - Ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik bideragarriak izango diren balorizazio jarduera berriak garatzea, oraindik orain zabortegira bideratzen diren hondakin kopuruak desbideratzeko.
 - Hondakinak tratatzeko TEOen ezarpena sustatzea eta hondakinak tratatzeko instalazioei nahiz hondakinak kudeatzen dituzten enpresei eska dakizkiekeen betekizunei buruzko irizpide teknikoak ezartzea. (PEMAR).
 - Aplikazio informatiko bat abian jartzea, industria hondakinen sorkuntzari eta kudeaketari buruzko informazio guztia jasotzeko, informazio transferentzia errazteko eta industria hondakinen fluxuen jarraipena eta kontrola hobetzeko (PEMAR).
 - Andaluziako industrialdeetan eta hondakinen transferentzia zentroetan hondakinen gaikako bilketa erraztea, eta garbiguneen sare bat instalatzea, haietan kokatutako enpresetan sortutako industria hondakinak biltzeko. (PDTRNPA).

- **KUDEAKETA. Bestelako hondakinak:**
 - PCBa eduki dezaketen gailuak identifikatzea eta, ondoren, zalantzako aparatuak deuseztatzeko edo deskontaminatzeko betebeharrari buruzko informazioa ematea edo, aitzitik, nahitaezko analisi kimikoen bidez, aparatu horietan PCBaren kontzentrazioa 50 ppm-tik beherakoa dela egiaztatzea. (PEMAR).
 - Andaluziako hondakin sanitarioen kudeaketari buruzko gida tekniko bat egitea eta banatzea, hondakin horiek berrerabiltzeko eta birziklatzeko jarduera onak hedatze aldera.
 - Hondakin sanitarioen sorkuntzaren eta kudeaketaren benetako egoerari buruzko azterlan xehea egitea. Osasun establezimenduetan sortzen diren hondakin motak, konposizioa, oinarriko ezaugarriak eta kopuruak identifikatzea.
 - Osasun instalazioetan azpiegitura egokiak jartzea, hondakinak jatorrian bereiz daitezten eta haien artean nahastu ez daitezten.

- **KUDEAKETA. Hondakinak zabortegietan uztea:**
 - Lixibiatuak kudeatzeko eta tratatzeko alternatibei buruzko ikerlanak egin daitezten sustatzea.
 - Udal hondakinen xedean jasotzen diren neurri guztiak: **“Biohondakinak jatorrian bereizten eta birziklatzen direla bermatzea, edo bereizita biltzen direla bermatzea, 2023ko abenduaren 31n beranduenez”.**
 - Udal hondakinen xedean jasotzen diren neurri guztiak: **“Udal hondakinen bilketa bereiziko sistema hobetzea”.**
 - Zabortegien ingurumen baimenak eta zabortegian onartzen diren elementuen kontrolak berrikustea, zuzeneko isurketa saihesteko.
 - Hondakinen frakzio birziklagarriak balorizaziora bideratu daitezten sustatzea.

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

	<ul style="list-style-type: none"> ○ Ekoizleen eta zabortegien ingurumen baimen integratuetan hondakinak zabortegian uzteko aukera debekatzea, birziklatzeko edo beste balorizazio mota baterako gai diren dauzkaten hondakinatarako. ○ Zabortegien ingurumen baimenak eta zabortegian onartzen diren elementuen kontrolak berrikustea. ○ Baloriza daitezkeelako zabortegian gorde ezin diren hondakinen zerrenda egitea. ○ Andaluziako Hondakinen Katalogoan ezarritakoaren arabera azken kudeaketa eragiketa zabortegian uztea duten hondakinak berrikustea. ○ Hondakinak zabortegian onartzeko dokumentazioaren jarraipena eta kontrola sustatzea. ○ Berreskurapen eta konpostaje instalazioetatik datorren errefusa aprobetxatzeko aukeren ikerketara bideratutako azterlanak sustatzea, hondakinok zabortegian utz ez daitezen. ○ Errefusa frakzioaren erabilera sustatzea, balorizazio materialerako nahiz balorizazio energetikorako. ○ Zabortegian deuseztatzeko operazioen kudeaketa kostuen kalkuluan aurrera egitea. ○ Andaluzian dauden zabortegietan sortzen den biogasa balorizatzea, teknikoki eta ekonomikoki bideragarria bada. ○ Baimenik ez duten eta/edo erabiltzen ez diren zabortegiak zigilatzeke jarduerak berrikustea eta eragindako tokiak ingurumen arloan lehengoratzeko jarduerak egitea. <p>- KUDEAKETA. Mugaz gaindiko lekualdaketak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Hondakinen mugaz gaindiko lekualdaketeki lotutako dokumentazioa kontrolatzeko dagoen informazio sistema hobetzea.
<p>Tresnak</p>	<p>Planak berak ez ditu neurriak eta tresnak bereizten. Bertan planteatzen diren neurri batzuk tresnen atalean sartu dira.</p> <p>- PREBENTZIOA. Udal hondakinak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Berrerabiltzeko prestaketa zentroak ezar daitezzen ekonomikoki laguntzea. ○ Estatu kideen eta elikagai sektoreko operadoreen artean ezarri beharreko metodologia komuna lantzen laguntzea, aurrerapenak neurtzeko eta elikagai hondakinak prebenitu eta murrizteko jarduera onak trukatzeko errazteko. ○ Gizarte erakundeekin borondatezko hitzarmenak sustatzea, ekoizpen eta banaketa faseko elikagai soberakinak aprobetxa daitezzen (banatzaile handiak zein txikiak eta saltoki txikiak), produktuen egoera ona bermatuz. ○ Ostalaritzako sektoreekin akordioak egitea, bezeroek jatetxeetatik kanpo kontsumitzea sustatzen duten sistemekin sortutako elikagai hondakinak murriztu daitezzen. ○ Pizgarriak ezartzea, hornidura katearen fase guztietan saldu gabeko elikagaiak biltzeko eta ongintzazko erakundeei modu seguruan banatzeko. <p>- PREBENTZIOA. Ontziak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Borondatezko akordioak eta beste jarduera batzuk sina daitezzen sustatzea, solteko produktuen eta elikagaien salmenta areagotzeko, ontzi berrerabilgarrien eta kargagarrien erabilera

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

sustatzeko (batez ere, industriako eta merkataritzako ontziena) eta erabilera bakarreko ontzien erabilera murrizteko (PDTRNPA).

- Ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistemekin eta enpresa fabrikatzaileekin borondatezko akordioak egitea, ontzien ekodiseinua sustatzeko.
 - Ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistemei jarraibide homogeneousak banatzea, ontzien urteko aitortzean nahiz urtero lortutako emaitzen hedapenean jasotzen den informazioa hobetu dadin.
 - HORECA kanalean ontzi berrerabilgarriak erabiltzeko azterlan bat egitea.
 - Ontzien araudiaren ezarpenean esku hartzen duten agente guztiek betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko ikuskerak, kontrol eta zigor eginkizunak egitea. Besteak beste, honako hauek kontrolatuko dira: ekoizlearen erantzukizun zabalduaren ondoriozko betebeharrak betez merkaturatzen diren gaiak eta herritarrek, merkatariek, HORECA sektoreak eta gainerako edukitzaileek behar bezala entregatzen dituzte hondakin hauek.
 - Tartean dauden askotariko agenteekin akordioak egitea, ontzi berrerabilgarriak erabil ditzaten sustatzeko.
 - Administrazio publikoaren ekitaldietan produktu berrerabilgarrien erabilera ezartzea.
- **PREBENTZIOA. GEEHak:**
- GEE-en bizi zikloari buruzko ikerlanak eta azterketak egitea, hondakin arriskutsuen sorkuntzan eragin handiena dutenak prebenitzeko helburuz.
- Borondatezko akordioak sustatzea, GEE-en ekodiseinua sustatzeko eta GEE-en diseinuan substantzia arriskutsu gutxiago erabiltzea sustatzeko.
- **PREBENTZIOA. BBAIak:**
- Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza eta Garapen Jasangarrirako Kontseilaritzak eta Andaluziako Desegiteen Elkarteak haien arteko borondatezko akordioarekin jarrai dezaten sustatzea, Andaluzian gero eta hondakin arriskutsu gutxiago sortzen jarrai dadin.
- **PREBENTZIOA. EEHak:**
- Eraikuntzaren sektorean lan egiten duten agente ekonomiko eta sozialekin lankidetzan, obretan EEHak prebenitzeko eskuliburu batzuk idaztea, obra handietan EEHak kudeatzeko azterlanetan prebentzio neurriak idazteko balio dezaten.
- **PREBENTZIOA. Hondakin plastikoak:**
- Ekoizlearen erantzukizun zabalduko estrategiak ezartzea, enpresek eta fabrikatzaileek, batetik, beren gain har dezaten plastikoak ingurumenean eragiten dituen kalteen erantzukizuna eta, bestetik, beren produktuen bizi ziklo osoaren eta benetako kostuen ardura har dezaten.
 - Berreskurapen eta konpostaje instalazioetan hondakin organikoaren tratamendua zailduko ez duten plastikozko poltsa biodegradagarrien material berrien ikerketa bultzatzea.

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

- Txikizkako dendekin eta txikizkako saltoki handiekin hitzarmenak sinatzea, plastikozko poltsen kontsumoa murrizteko sistemak ezar ditzaten, indarrean dagoen araudian ezarritako neurriak betez.
- Plastikozko gaien eta ontzien diseinu jasagarriak saritzeko pizgarri ekonomikoen garapenean laguntzea.
- **PREBENTZIOA. Pilak eta metagailuak:**
 - Pilak eta metagailuak fabrikatzen dituzten enpresekin akordioak egitea, I+G+b proiektuetan inbertitu dadin, pilen eta metagailuen errendimendua hobetu eta balio-bizitza luzatzeko.
- **PREBENTZIOA. Nekazaritzako hondakinak:**
 - Nekazaritza ustiategiekin borondatezko akordioak egitea, landare hondarren konposta beren laborantzetan erabiltzeko eta, horrela, ingurumena errespetatzen duen eta ekonomia zirkularrean oinarritzen den ekoizpen eredu batean aurrera egiteko.
 - Nekazaritzako ustiategietan teknika erabilgarri onenak (TEO) ezartzeko I+G+b azterlanak egitea, ustiategian landare hondakin gutxiago sortu eta atera dadin.
 - Eskudun administrazioek nekazaritza eremuko hondakin plastikoen kudeaketa gehiago ikuskatu eta kontrolatzea, hondakinok abandonatu ez ditzaten eta behar bezala biltzen eta kudeatzen direla kontrola dadin.
- **PREBENTZIOA. Industria hondakinak:**
 - Industria sektore bakoitzean prebentzioari buruzko TEOen ezarpena sustatzea; bereziki, hondakin arriskutsuak sortzen dituzten sektoreetan.
- **KUDEAKETA. Udal hondakinak:**
 - Gaikako bilketak sustatzen dituzten udal ordenantza fiskalak onar daitezen sustatzea.
- **KUDEAKETA. Ontziak:**
 - Edari ontzietarako eta beste hondakin mota batzuetarako Gordailu, Itzulketa eta Itzulera Sistemak (SDDR) ezartzen laguntzea.
- **KUDEAKETA. GEEHak:**
 - Ikuskapen planak egitea, honako hauek barne hartuta: GEE-en merkaturatzearen zaintza, GEEHak kudeatzeko baimenik ez duten agenteen aurkako borroka eta mugaz gaindiko lekualdaketak, hori guztia GEEHak kudeatzeko arloan eskumena duten agintariekin koordinatuta, eta Guardia Zibilaren Natura Babesteko Zerbitzuarekin lankidetzan.
 - Kudeaketa sistemak koordinatzeko bulegoan aurrera egitea, GEEHen kudeaketan sortzen diren arazoak hobetzeko eta konpontzeko.
- **KUDEAKETA. BBAiak:**

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

- Ikuskapen eta kontrol lanak areagotzea, baimendutako instalazioetan BBAren kudeaketa egokia bermatzeko eta BBAren legez kanpoko kudeaketa saihesteko.
- Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza eta Garapen Jasangarrirako Kontseilaritzaren eta sektoreko enpresen arteko borondatezko akordioak sustatzea, urtarrilaren 20ko 20/2017 Errege Dekretuan ezarritako helburuak betetzen direla bermatzeko.
- KUDEAKETA. BBAP:
 - Administrazioaren eta eraikuntza enpresen eta sektoreko enpresa elkartearen arteko akordioak ezartzea, obra publikoen kontratazioan bitzitza baliagarriaren amaieran dauden pneumatikoen material birziklatuaren gutxienerako ehuneko bat erabil dadin sustatzeko.
- KUDEAKETA. Industriako olio erabiliak:
- Ingurumenaren arloan eskumena duen kontseilaritzaren eta SEPRONaren arteko borondatezko akordioa gauzatzea, legez kontrako jardunbideen aurkako borroka indartzeko, baimendutako lekuetan entregatu ahal izateari begira.
- KUDEAKETA. Pilak eta metagailuak:
 - Andaluziako Juntako Ingurumen Kontseilaritzaren, Andaluziako Udalerrien eta Probintzien Federazioaren eta pilen eta metagailuen hondakinen ekoizlearen erantzukizun zabalduko sistemen (SCRAP) arteko lankidetzarako esparru akordioa luzatzea, autonomia erkidegoan hondakin mota honen gaikako bilketan eta ondorengo tratamenduan aurrera egiteko.
 - Kontsumitzaileen artean pilen eta metagailuen hondakinen hierarkia aplikatzea sustatzeko tresna ekonomikoak eta neurriak erabiltzea.
- KUDEAKETA. EEHak:
 - Toki eta eskualde mailan EEHen kudeaketa egokia arautuko duten udal ordenantzak egitea.
 - Toki erakundeek obra xeheko EEHak kudeatzeko tasa bat ezartzea.
 - EEHen kontrolik gabeko isurketa gune posibleak ikuskatu eta kontrolatzea, gune horiek zigilatzea eta eremua ingurumen arloan lehengoratzeta.
 - Balorizazio instalazioetan aurretiko tratamendurik jaso ez duten EEHak zabortegean onartzeko tarifa sistema bat aplikatu dadin sustatzea.
- KUDEAKETA. Bestelako hondakinak:
 - Andaluziako hondakin sanitarioen kudeaketari buruzko gida tekniko bat egitea eta banatzea, hondakin horiek berrerabiltzeko eta birziklatzeko jarduerak onak hedatze aldera.
- KUDEAKETA. Hondakin plastikoak:
 - Plastiko birziklatua merkatura sartzeko azterlanak eta/edo gidak egitea; batez ere, eraikuntzaren eta automobilaren sektoreetan, material birziklatuak erabiltzeko ahala dutelako.

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborrea)

- **KUDEAKETA. Hiriko hondakin uren araztegiatiko lohiak:**
 - Administrazioak egiten dituen ikuskapenak eta kontrolak areagotzea, industriako isurketak saneamendu sarera iristea saihesteko eta nekazaritzan zuzenean aplikatu daitezkeen legeko mugak betetzen ez dituzten isurketa parametroak egiaztatzeko.
 - Lohiak lurzoruetan balorizatzen dituzten kudeatzaileek lohiak biltegiatzeko dauzkaten baldintza tekniko eta fisikoak ikertzeko azterlanak egitea, lohiak finketan aldi batez biltegiatu ez daitezzen eta biltegiatze horien ondoriozko arazoak saihestu daitezzen.
 - Nekazariei aholkua ematea, jardunaldien, informazio giden eta abarren bidez, lohien balorizazioari buruz, nekazaritzan erabil daitezzen. Lohien erabilera sustatzea, jatorri kimikoa duten ongarrien ordez erabil daitezzen.
- **KUDEAKETA. Nekazaritzako hondakinak:**
 - Nekazaritza ustiatzeatiko ikuskapen eta kontrol lanak areagotzea, hondakinak behar bezala biltzen eta kudeatzen direla kontrolatzeko.
- **KUDEAKETA. Industria hondakinak:**
 - Aldizkako ikuskapenak egitea, baimen baldintzak edo komunikatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta kudeatzaileen artxibo kronologikoak nahiz urteko memoriak egiaztatzeko. (PEMAR).
 - Beste organismo publiko batzuekin (adibidez, SEPRONarekin eta Aduanen Zuzendaritza Nagusiarekin) ikuskapen-kanpainak egitea, baimenik gabeko enpresek edo partikularrek hondakinak kudeatu ez ditzaten. (PEMAR).
- **KUDEAKETA. Bestelako hondakinak:**
 - PCBa duten edo izan dezaketen hondakinen ekoizpen eta kudeaketa jardueren zaintza, ikuskapena eta kontrola areagotzea, honako hauek identifikatzeko: 50 eta 500 ppm arteko PCB-kontzentrazioak dituzten transformadoreak, PCBa eta/edo PCTa duten metalezko hondakinak tratatzeko instalazioak eta iruzurrezko edo delituzko jokabide posibleak, PCBa duten edo izan dezaketen gailuen edukitzaileenak, bai eta agente, operadore, kudeatzaile edo beste hondakin batzuen edukitzairekin zerikusia duten beste operadore batzuenak ere. (PEMAR).
- **KUDEAKETA. Hondakinak zabortegetan uztea:**
 - Ingurumen fiskalizazioko esparrua ezartzea, zabortegetan hondakinak isurtzeko pizgarria kentzeari begirakoa, 2030ean hondakin birziklagarrien isurketa debekatu arte.
 - Zabortegei bat itxi eta zigitatu ondoko kontrol eta zaintza lanak indartzea.
- **KUDEAKETA. Ingurumen fiskalitatea:**
 - Ekonomia zirkularri buruzko etorkizuneko legearen bidez, hondakin ez-arriskutsuak zabortegetan uzteko joerari pizgarriak kenduko dizkioten neurri fiskalak sartzea.

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

- Hondakinak deuseztatzeko operazioei (isurketa, errausketa) zergak ezartzea, hondakinak kudeatzeko tarifak ezartzea (hondakinen tratamenduari lotutako kostu guztiak kontuan hartuta) eta hondakinak sortzeagatiko ordainketa sistemak ezartzea.
- Dauden isurketa tasei buruzko analisi/azterlan bat egitea, kudeaketaren benetako kostura doitu ahal izateko.
- Hondakin arriskutsuak geldotzeko eta egonkortzeko operazioei zergak ezartzea, hondakin ez-arriskutsuen zabortegietan utzi aurretik.
- KUDEAKETA. Mugaz gaindiko lekualdaketak:
 - Andaluziako Autonomia Erkidegoko Hondakinen Mugaz Gaindiko Lekualdaketak Ikuskatzeko Planaren (PITTRA) berrikuspenean sakontzea, indarraldia amaitzen zaionean.
- KONTZIENTZIAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA. Udal hondakinak:
 - Galdeketak edo inkestak egitea, gizarteak hondakinei buruz duen kontzientziario edo interes maila ezagutzeko.
 - Udal hondakinen arloan kontzientziario eta sentsibilizazio kanpainak egitea, gai zehatzetarako: prebentzioa, kontsumo arduratsua, jatorriko bereizketa, garbiguneen erabilera, etab.
 - Udal hondakinen gainerako frakzioan frakzio arriskutsuak minimizatzeko kanpaina espezifikoak egitea.
 - Herritarrak elikadura xahuketa murrizteari buruz sentsibilizatzeko ekintzak abian jartzea.
 - Elikadura kateko agenteen artean elikagaiak alferrik ez galtzeko jardunbide egokiak zabaltzea.
 - Ostalaritzako establezimenduentzako kanpaina bat programatzea, bezeroek jan gabeko janaria behar bezala ontziratuta eraman dezaten sustatzeko.
 - Merkataritzarako kanpaina bat programatzea, produktu galkorretan prezio beheratuak etiketatzea sustatzeko.
 - Etxeetan erabilitako paperaren bereizketa hobea sustatzeko eta sortzaile handietan (administrazioak, bulegoak, unibertsitateak, ikastetxeak etab.) papera hobeto atzemateko kanpainak garatzea.
 - Herritarrei hondakinen kudeaketaren kostuen berri ematea, baita kudeaketa ezegokiari lotutako ekonomia eta ingurumen inpaktuen berri eman ere, kanpainen bidez.
 - Modako kontsumo ohiturei eta sortzen diren hondakinen inpaktuari buruzko jarduerak egitea.
 - Sarean komunikatu eta hedatzeko neurri sorta integratu bat diseinatzea, produktuen berrerabilpena eta baztertutako produktuak berrerabiltzeko prestaketa sustatzeko.
 - Heziketa eta sentsibilizazio kanpainak abiatzea, produktu berrerabilgarriak edo bitza baliagarri luzeagoa duten produktuak erabil daitezen sustatzeko.
 - Sentsibilizazio kanpainak egitea, altzariak, jostailuak, liburuak eta arropak berrerabilpen zentroetara eraman daitezen sustatzeko.
 - Altzariak eta traste zaharrak berrerabiltzeko jarduerak egitea.

Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)

- Bilketa eredu berriak ezartzeari eta daudenak hobetzeari buruzko sentsibilizazio kanpainak.
- Herritarrei zuzendutako kontzientziazio eta sentsibilizazio kanpainak, hondakinak jatorrian behar bezala bereiztea eta biltzea sustatzeko, bai eta horretarako garbiguneak erabiltzea sustatzeko ere.
- Materia organikoaren gaikako bilketa edo autokonpostajea ezartzeari lotutako sentsibilizazio kanpainak egitea.
- Ehunen hondakinen eta etxe hondakin arriskutsuen gaikako bilketa edo autokonpostajea ezartzeari lotutako sentsibilizazio kanpainak egitea.
- Ikastetxeetan hondakinei eta bilketa bereiziaren garrantziari buruzko tailerrak egitea.
- Ekonomia zirkularrari buruzko prestakuntza modulu bat diseinatzea hezitzaileentzat, teknikarientzat, erakundeentzat, komunikatzaileentzat, enpresentzat eta irakaskuntzarekin lotutako beste batzuentzat.
- Sukaldaritzako, elikagaien banaketako eta baratzezaintzarako nahiz lorezaintzarako horniduren banaketako sektoreei zuzendutako prestakuntza programa bat garatzea, herritarrei informazioa eta prestakuntza ematen laguntzeko, biohondakinen prebentzioari, elikagai xahuketaren prebentzioari eta biohondakinen kudeaketari dagokienez.
- Elikagai hondakina eta frakzio organikoa prebenitzeko tailer praktikoak antolatzen laguntzea.
- Mota guztietako elkarte eta erakundeekin ikastaroak, tailerrak eta jarduerak egitea, hondakinen prebentzioari buruzko informazio eta sentsibilizazio lana egiteko.
	Ekodiseinuari buruzko ISO 14006-2011 araua ezarri eta egiaztatzea	Mónica Martínez de Musitu (MStudio)	4.000,00
	Ekodiseinuari buruzko ISO 14006 araua ezartzea	Arruabarrena Arkitektura SLP	4.000,00
	Ekodiseinuari buruzko ISO 14006 araua ezartzea	Astazaldi Ark SPL	4.000,00
	Hainbat prozesu industrialen bizi zikloa aztertzea, eskualde nahiz Europa mailako I+G+b proiektuei aplikatuta.	TECNALIA Research & Innovation	7.707,38
	Produktuaren ingurumen adierazpena egitea eta bizi zikloaren konparaziozko azterketa egitea.	Impact Acoustic System SL	7.707,38
	Erdi tentsioko gelaxka baten bizi zikloa aztertzea eta produktuaren ingurumen adierazpena egitea	ORMAZABAL Y CÍA.	7.707,38
	Ihoberen ingurumen aztarna korporatiboa kalkulatzeko	Ihobe SA	7.707,38
	Euskaltelen Osoa zerbitzuaren bizi zikloa aztertzea	Euskaltel	7.707,38
	Laugarren gamako landare produktuak egiteko prozesuaren bizi zikloa aztertzea	Florette Vegamayor	7.707,38
	P3 sistema izeneko sistema patentatu propio batetik abiatuta belaunaldi berriko eraikin industrializatuak diseinatzeko, fabrikatzeko eta obran jartzeko sistemaren ingurumen abantailak kuantifikatzea.	CIDARK System SL	7.707,38
	Ermuko saihebidetako Visiontech4life ingurumen zaintzarako sistemari produktuaren ingurumen adierazpena egitea	FULCRUM, SA	7.707,38
	Elektrizitatea sortzeko hainbat teknologiaren bizi zikloa egiten laguntzea	Iberdrola	7.707,38
	Energia metatzeko hainbat sistemaren bizi zikloaren azterketa konparatiboa egitea	Iberdrola	7.707,38
	Instalazio elektrikoetarako ekodiseinu metodologia bat eta ingurumen-inpaktuen kalkulagailu bat sortzea	Idar Grupo	7.707,38
	Egurrezko hainbat produkturen bizi zikloaren azterketa egitea eta produktuaren ingurumen adierazpena garatzea	PROTEC, Protección y Tecnología de la madera SL	7.707,38
	Donostiako CTSSren garajeak ekodiseinuko neurriak erabiliz handitzeko proiektua	ASMATU SL	7.707,38
	Herritarrek/enpresek udal eremuan EEHeekin dituzten betebeharren inguruko informazio orri komunikatibo bat egitea.	Eusko Jaur. / Ihobe	2.420,00
	Euskadin Hondakinak Prebenitzeko 2016ko Astearren barruan sustatutako jarduketan kudeaketa	Eusko Jaur. / Ihobe	12.000,00
	Elikagai xahuketa murrizteko jarduera onen bilduma gida egitea	Eusko Jaur. / Ihobe	14.400,00
	Ingurumen fiskalitateak hondakinen eremuan euskal enpresentzat duen inpaktu ekonomikoaren analisirako laguntza teknikoa ematea	Eusko Jaur. / Ihobe	30.250,00
	Atunaren sektorerako soka biodegradagarriak garatzea	Itsaskorda	12.500,00
	Errekuntza ibilgailuen elektrifikazio kita ekodiseinatzea	Rebattery	20.000,00
	Prestazio handiko sonografo ekodiseinatu bat garatzea	NoiseSmart	19.873,00

Eusko Jaurilaritzak/Ihobek hondakinak prebenitu eta balorizatzea sustatzeko helburuz bultzatu dituzten proiektuen eta bestelako egitasmoen zerrenda

Urtea	Azalpena	Agentea / Liderra	Aurrekontua (€)
2017	Produktu mekanizatuen fabrikazioaren ingurumen inpaktua murriztea, ekarpen tasa handiko fabrikazio gehigarriko teknologiek inportatutako parisoiak erabiliz	Addilan Fabricación Aditiva SL	17.917,00
	Gatz zepak tratatzeko azpiproduktuak, klinkerra ekoizteko	Resal (Finantza eta Meatze Elkarte)	12.910,80
	Xafla trukagarriak mozteko tresnen birmanufaktura berritzailea egiteko prozesua garatzea teknologia berrien bidez	Manitek Recuperaciones SL	30.000,00
	Material birziklatuzko filmetarako material berritzaileak garatzea, ontzien lehenengo sektorerako	Plastigaur SA	30.000,00
	Osagai aeronautikoen fabrikazio ekologikoaren metodologia garatzea, teknologia gehigarriaren eta kentze teknologiaren bidez. Teknologia eta prozesu garbiagoen lerroan sartutako proiektua	IK4 Tekniker, GNC laser	100.000,00
	Donostia xahuketarik gabe.	Donostia	25.000,00
	Ekonomia zirkularra/Elikagai xahuketa	Donostia	25.000,00
	Biohondakinak eta ekonomia zirkularra	Aiaraldeko kuadrilla	18.512,40
	Txatarraren hondakinak murriztea, osagaien bizitza baliagarria luzatuta: II fasea	Tubacex Tubos Inoxidables, SA	20.335,98
	ISO 14006:11 arauan oinarritutako kudeaketa sistema ekodiseinatu bat ezartzea	Ingeniería de Sistemas y Telemando SA	4.000,00
	ISO 14006:11 arauan oinarritutako kudeaketa sistema ekodiseinatu bat ezartzea	Montajes Electricos San Ignacio SL	4.000,00
	Ekodiseinuari buruzko ISO 14006:2011 sistema ezarri eta egiaztatzea	Sitta, sillería de Oficina sll	2.334,00
	IOT ekipoen fabrikazioan ekodiseinua sartzea	Ingurumena Advanced Technologies	2.000,00
	Enpresan ekoizten diren hiru produkturen (zehaztasun handiko hodi soldatua, hodi moztua eta letoizko profilak) bizi zikloa aztertzea eta produktuaren ingurumen adierazpenak egitea	Hijos Juan de Garay SA	20.676,67
	CEGASAREN "Air- Alkaline" pila industrialen bizi zikloa aztertzea eta ingurumen arloan hobetzeko proposamenak egitea	CEGASA Portable Energy SLU	20.676,67
	Energia metatzeko hainbat sistemaren bizi zikloaren azterketa konparatiboa egitea	Tecnalia Research & Innovation	20.676,67
Bridgestone Hispania Manufacturing erakundearen ingurumen azterna	Bridgestone Hispania SA (BSHP Manufacturing)	20.676,67	
Eroskiren esne produktu baten EPDa egitea	Eroski	20.676,67	
2018	Helduleku osoa duen 5 litroko ontzi bat ekodiseinatzea, estrusio putz sistema birakarrirako	Urola S Coop	18.207,00
	Ingurumen arloan jasagarriak diren autobusak fabrikatzeko teknologia berriak garatzea	Irizar	20.000,00
	Ponpa zentrifugo bat ekodiseinatzea	Emica Bombas SL	20.000,00
	Unitate puntzoi eramailea ekodiseinatzea, eragingailu elektriko serboeragile eta mugikorra duena	Fagor Arrasate	17.333,00
	LED modulua, transformadorea barnean daramana	Kendu	20.000,00

Eusko Jaurlaritzak/Ihobek hondakinak prebenitu eta balorizatzea sustatzeko helburuz bultzatu dituzten proiektuen eta bestelako egitasmoen zerrenda

Urtea	Azalpena	Agentea / Liderra	Aurrekontua (€)
	Berreskuratutako eta berrerabilitako material asko duten prestazio handiko elementu erregogorrek diseinatzea eta garatzea.	Deguisa	30.000,00
	TEEHen bromo edukia murriztea	Zabor Recycling (Gaiker IK4)	26.636,00
	Sektore plastikoaren enpresetan lurzoruan galautsik ez izateko metodologia bat garatzea	Plastigaur SA	24.600,00
	Prestazio fisiko-mekaniko handiagoak eta iraunkortasun handiagoa dituzten zementuen sorta berria sortzea, tokiko azpiproduktu industrialen aktibazio alkalino teknologiatik abiatuta	Cementos Lemona	30.000,00
	Industriako bilgarrietarako xafla garatzea, plastiko birziklatutik abiatuta	Gaiker IK4	28.938,00
	Euskal industrian plastiko jasangarriak fabrikatzeko eta modu berritzailean sartzeko polo bat sortzea	Gaiker	36.822,00
	EAEen elikagai produktuen ingurumen azterna kalkulatzeko prozedura berria garatzea	Azti	46.430,00
	Kautxuaren ordez polipropileno birziklagarria erabiltzea ibilgailu elektriko eta hibridoak hozteko hodietan	Cikatek S Coop	74.747,00
	Give box	Amurrio	13.500,00
	Kako jatetxean sortzen diren hondakin organikoen prebentzioa	Berastegi	2.118,21
	Urola Kostako mankomunitatean hondakinak sortzeagatiko ordainketa sistema aztertu eta ezartzea	Urola Kostako mankomunitatea	10.392,00
	Ekonomia zirkularra: konponketa eta berrerabilpena Garbigunereren bidez	Aiaraldeko kuadrilla	16.000,00
	Leioa udalerrian hondakin organikoaren birziklapena sustatu, ezarri eta horren inguruan sentibilizatzea	Leioa	9.560,00
	Hondakinak prebenitzeko programa	Zizurkil	11.370,03
	Ekonomia zirkularra: Loiolako Erriberetan elikagai xahuketa prebenitzea	Donostia	25.000,00
	Sortutako hondakinak iragazteko eta murrizteko ebaketa likidoko ekipoa	Belgicast Internacional SL	4.698,96
	Plastikoa ordezkatzeko produktu biodegradagarriak garatzea	Ekolber Ingenieria del Caucho y Plástico de colágeno SL	7.000,00
	Ekodiseinuari buruzko UNE-EN ISO 14006 araua ezarri eta egiaztatzea	Burdinola S Coop.	3.992,65
	Hainbat igogailu modeloren bizi zikloa aztertzea eta EPDak egitea	Miriam Castro Romaña / Unibertsitate Gradua Kimikan / Masterra Biokimikan eta Biomedikuntzan / Orona	10.833,33
	Moldekatze birakariko produktu baterako ekodiseinuaren proiektu pilotua egitea	Rotobasque SL	10.833,33
	CPG0 31 KV 1.600 KA gelaxka primarioaren bizi-zikloa aztertzea eta EPDa egitea PEP Ecopassport programaren egiaztapena	Ormazabal Velatia	10.833,33
	ACV – Karbono-azterna: 5CTD kontagailu trifasikoa eta IRL-F elikagailu-babesa	ZIV – Aplicaciones y Tecnología SL	10.833,33
	Hondakin plastikoaren eta erabiltzen ez diren ibilgailuen arloan ekoberrikuntzako eta ekonomia zirkularreko proiektuak garatzen laguntzea Ziclari	Hondakinno SL (Zicla)	10.833,33

Eusko Jaurlaritzak/Ihobek hondakinak prebenitu eta balorizatzea sustatzeko helburuz bultzatu dituzten proiektuen eta bestelako egitasmoen zerrenda

Urtea	Azalpena	Agentea / Liderra	Aurrekontua (€)
	Astigarraga Kit Line-ren produktueterako Europako Etiketa Ekologikoa lortzea	Ane Etxeberria Ibarra / Gradua Geologian / Astigarraga Kit Line SL	10.833,33
	OFITaren produktueterako EPDak garatzea eta produktuak ekodiseinatzea	OFITA Interiores SA	10.833,33
	CIE Automotiverentzat produktuaren ingurumen azterna zehaztea eta CIE Automotiverentzat eta Vicinay Sestaorentzat ingurumen zaintzari buruzko txostenak egitea	Vicinay Sestao	10.833,33
	Plastigaur-en ingurumen azterna korporatiboa kalkulatzeko	Plastigaur SA	10.833,33
	Produktuaren ingurumen adierazpena garatzea EROSKIrentzat: UHT behi esnea eta Euskal Herriko arrautzak. Ideia koadernoak: natura kapitalaren ebaluazioa eta garapen jasangarriko helburuak	EROSKI S Coop.	10.833,33
	Ontziak ekodiseinatzea, ekonomia zirkularra hobetzeko aukera gisa	Ecología, Reciclaje y Medio Ambiente SL (Ekorec)	10.833,33
	Ibilgailu aukera ezberdinen arteko ingurumen alderaketa: elektrikoa, hibridoa eta errekontza	Iberdrola	10.833,33
	Iberdrolaren eta EDPren ingurumen azterna korporatiboak	Iberdrola / EDP	10.833,33
	Euskotren jasangarria, etorkizun borobil baterantz	San José Design	10.833,33
	e-AUTO KIT proiektua	Rebattery	10.833,33
	Bridgestone Hispania Manufacturing erakundearen ingurumen azterna	Bridgestone Hispania SA (BSHP Manufacturing)	10.833,33
	Repabat - mugikortasun elektrikoko bateriak berreskuratzeko prozesua	Lanteko	10.833,33
	Dinosaurius galleten bizi zikloa aztertzea, lau formatuetan	Adam Foods	10.833,33
	EEH birziklatuen hondakinak erabiltzeko jardura onak diseinatu eta maketatzea.	Eusko Jaurl. / Ihobe	1.778,70
	Eraikuntza eta eraipen hondakinen kudeaketa hobetzeko 2018ko ekintzak. II. LOTEA: Kudeaketa ezegokiaren alerta goiztiarra, EEHen kudeaketa gabezia minimizatzea. Obren kontratazio publikoko prozeduren ondoriozko pilotua	Eusko Jaurl. / Ihobe	11.925,00
	Euskadin Europako Hondakinak Prebenitzeko 2018ko Astea antolatzea laguntza teknikoa.	Eusko Jaurl. / Ihobe	11.616,00
2019	Ontzi jasangarriak	Gastronomía Vasca	20.000,00
	Birziklatzeko xafra birrintzaileak berreskuratzea	Delaser Global Solutions	30.000,00
	Zubi modularraren ekodiseinua	Viuda de Sainz	30.000,00
	Prozesuaren beraren eta enpresa bezeroen silikona bulkanizatua berrerabiltzea	Siliconas Silam	22.614,00
	LEDak eta osagai elektronikoak fabrikatzeko purutasun handiko bigarren mailako aluminio oxidoa	Befesa Aluminio	30.000,00
	Goi-mailako kalitatezko jantzi jasangarriak, ardi latxaren artiletik abiatuta	Import Arrasate	30.000,00
	Plastikoetarako ekonomia zirkularreko protokoloak sartzea Tier 1 automobilgintzako enpresa batean	Auria Solutions	30.000,00
	Koordenatu bidezko neurketa makinaren birmanufaktura	Metrologia Sariki	30.000,00

Eusko Jaurlaritzak/Ihobek hondakinak prebenitu eta balorizatzea sustatzeko helburuz bultzatu dituzten proiektuen eta bestelako egitasmoen zerrenda

Urtea	Azalpena	Agentea / Liderra	Aurrekontua (€)
	Altzarien produktuen osagaiak fabrikatzeko plastiko tradizionalak ordezkatzeta	Ondarreta	17.535,00
	Motorrerako osagai aurreratuak garatzea, galdaketa zentrifugoaren bidez, galdaketa esferoidaleko bimetalikoetan	Centricast	95.000,00
	CO2a fluido hozgarri gisa erabiltzen duen tenperatura baxuko hozte ekipo industrial bat garatzea	Kide	100.000,00
	Gailu termografo berrerabilgarri bat garatzea, distantzia luzeko garraioko hotz katea monitorizatzeko	Arctic Sea	88.366,00
	Eraikuntza makineria zerbitzatzeko negozio kontzeptu berri bat garatzeko espedientea	Biurrarena	76.206,00
	Zerbitzazioa eraikinen birgaiketan	Construcciones Fhimasa	37.499,00
	Prentsa hidraulikoen birmanufaktura integrazio modular baten bidez, eraginkortasun hidraulikoa eta energetikoa areagotzeko	Fagor Arrasate	77.901,00
	Irtenbide berritzaile baten industria garapena, mahats arraspak berriro erabil daitezten untxi hazkuntzarako osagai funtzional gisa	Bodegas Baigorri	50.448,00
	Indusketa lurren soberakinei eta eraikuntzako eta eraispeneko bigarren mailako materialei buruzko informazioa trazatzeko, kuantifikatzeko eta trukatzeko plataforma digital bat ezartzea	Excavaciones y Obras de Diego	93.203,00
	Kanpezu udalerriko ostalaritzan eta dendetan poltsa berrerabilgarriak erabil daitezten sustatzea	Kanpezu, obrak eta zerbitzuak	4.627,89
	Haranako ostalaritza eta merkataritza lokaletan poltsa birziklagarriak erabil daitezten sustatzea	Harana	1.529,98
	Lagraneko ostalaritza eta merkataritza lokaletan poltsa birziklagarriak erabil daitezten sustatzea	Lagran	1.337,98
	Ekintzaileentzako ekonomia zirkularra	Debegesa	1.900,00
	Gasteizko Udalaren Ekonomia Zirkularrerako Proiektua	Gasteiz	23.100,00
	Urduña. Balio katean elikagai xahuketa murriztea. Ekoizpenetik kontsumo kolektibora, udal sukaldaritzatik igaroz.	Urduña.	25.000,00
	Ostalaritzan, merkataritzan eta udaletxean plastikoen kontsumoa murrizteko kanpaina.	Soraluze	11.557,30
	Amurrion konponketa eta autokonponketa negozioak ezartzea.	Amurrio	25.000,00
	Hutseko lurrungailua erostea, ebaketa likidoaren hondakina, zoruak garbitzeko ura eta hotzeko ilunketa hondakina tratatzeko	Elementos de Verificacion y Control SA	8.229,00
	Bulegoak banatzeko produktuen ingurumen adierazpena garatzea eta produktuon jasangarritasuna aztertzea, LEED puntuen ekarpena baloratzeko.	ALUMINIOS EIBAR	6.447,37
	Antolakundearen ingurumen azterna kalkulatzeta	BRIDGESTONE	6.447,37
	Ekipo elektroniko bizi zikloa aztertzea eta karbono azterna kalkulatzeta	MERYTRONIC	6.447,37
	Elikagai produktuen ingurumen azterna kalkulatzeta eta produktuak ekodiseinatzea	EROSKI	6.447,37

Eusko Jaurlaritzak/Ihobek hondakinak prebenitu eta balorizatzea sustatzeko helburuz bultzatu dituzten proiektuen eta bestelako egitasmoen zerrenda

Urtea	Azalpena	Agentea / Liderra	Aurrekontua (€)
	ISO 14006 estandarrean oinarritutako kudeaketa metodologia edo sistema garatzea, laneko ohiko dinamikara ekodiseinua sartzeko xedez	ARTIACH	6.447,37
	Ekodiseinuari buruzko ISO14006 arauarekin bat egiten duten ekodiseinuko lanak egitea eta produktu berrien EPDa garatzea.	OFITA	6.447,37
	Makina erremintaren diseinuan ingurumen inpaktu gutxiko material konposatuak identifikatzea	SEELEN	6.447,37
	Europako hainbat proiekturen esparruan bizi zikloaren azterketa egitea	TECNALIA	6.447,37
	Ekodiseinuari buruzko ISO14006 araua ezartzen eta egiaztatzen laguntzea	BURDINOLA	6.447,37
	Igotzeko makina elektriko baten bizi zikloa aztertzea eta produktuaren ingurumen adierazpena egiaztatzea	LANCOR	6.447,37
	SATH itsasoko haize-parkerako off-shore plataforma flotatzaile baten bizi-zikloa aztertzea eta beste plataforma mota batzuekin alderatzea	SAITEC	6.447,37
	Ontzien ingurumen ebaluazioa egiteko tresna sortu eta egungo ontzien ebaluazioa egitea.	Eroski	6.447,37
	Erdi tentsioko gelaxka familia baten bizi zikloa aztertzea (COSMOS familia)	Ormazabal	6.447,37
	Ingurumen aztarna korporatiboa kalkulatzeko eta ekonomia zirkularraren adierazle sistema bat garatzea	Iberdrola	6.447,37
	Ingurumen aztarna korporatiboa kalkulatzeko eta ekonomia zirkularraren adierazle sistema bat garatzea	EDP	6.447,37
	Ingurumen aztarna korporatiboa	Vicinay Sestao	6.447,37
	Euskadiko data center birtualen bizi zikloa aztertzea	Euskaltel	6.447,37
	Ingurumen aztarna korporatiboa Euskadiko instalazio baterako proiektu pilotua	CIE	6.447,37
	Euskadin Europako Hondakinak Prebenitzeko Astearen 2019ko edizioa kudeatzeko laguntza teknikoa	Eusko Jaurl. / Ihobe	20.037,60
2020	Zinkeko bateria baten bizi zikloa aztertzea.	CEGASA	12.566,67
	Sky Niessen seriearen (etengailuak, entxufeak...) bizi zikloaren azterketa eta EPDa.	ABB Niessen	12.566,67
	Produktuaren (plastikozko arrautza kutxak) eta enpresaren ingurumen aztarna kalkulatzeko.	SODESA	12.566,67
	Elikagai produktuen ingurumen aztarna kalkulatzeko tresna erostea	EROSKI	12.566,67
	Antolaketaren ingurumen aztarna.	BRIDGESTONE	12.566,67
	Adierazleak garatzea azpiproduktuak berrerabiltzeko operazioen ebaluazio soziala, ingurumenekoa eta ekonomikoa egiteko.	RECIRCULAR	12.566,67
	Bi produktu familiaren (morteroak eta eraikuntza materialetarako gehigarriak) banakako ingurumen adierazpenak lortzea	FOS ROC	12.566,67
	Europako hainbat proiekturen esparruan bizi zikloaren azterketa egitea	TECNALIA	12.566,67
	Ingurumen aztarna korporatiboa kalkulatzeko eta ekonomia zirkularraren adierazle sistema bat garatzea (ingurumena kudeatzeko sisteman sartzeko)	Iberdrola	12.566,67
	Ingurumen aztarna korporatiboa Europako gizarte osoarentzat	CIE	12.566,67
	Erdi tentsioko gelaxka baten bizi zikloa aztertzea	Ormazabal	12.566,67
	Enpresa jasangarritasunerako estrategia: klima aldaketa eta materialak	Siemens-Gamesa	12.566,67

Eusko Jaurlaritzak/Ihobek hondakinak prebenitu eta balorizatzea sustatzeko helburuz bultzatu dituzten proiektuen eta bestelako egitasmoen zerrenda

Urtea	Azalpena	Agentea / Liderra	Aurrekontua (€)
	Asturiasko data center birtualen bizi zikloa aztertzea Ingurumen azarna korporatiboa	Euskaltel	12.566,67
	Ontzien ingurumen ebaluazioa egiteko tresna sortu eta egungo ontzien ebaluazioa egitea.	Eroski	12.566,67
	Oronaren produktuen bizi zikloa aztertzekeo tresna	Orona	12.566,67

9. ERANSKINA

JENDEARI ORO HAR EDO KONTSUMITZAILE TALDE JAKIN BATI ZUZENDURIKO SENTSIBILIZAZIO ETA INFORMAZIO KANPAINAK

HONDAKINEN ARLOKO KOMUNIKAZIO EKINTZAK (2015-2020)

Ihobe sozietate publikoaren Komunikazio Atalak, herritarrak hondakinen inguruan sentsibilizatzen jarraitu eta ekonomia zirkularraren kontzeptuan kokatutako mezu orokorra helarazi beharra dagoela jakinik, hainbat komunikazio kanpaina sustatu ditu azken bost urteetan, eta guztiek ere eragin nabaria izan dute.

- **Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea** izeneko egitasmoa azaroko hirugarren astean egiten da, Europako Batzordearen babespean egin ere, baliabide jasagarrien eta hondakinen kudeaketaren inguruan sentsibilizatzeko ekintzak astebetetz ezagutarazi, sustatu eta ezarri asmoz. Bada hamarkada bat Ihobek, Euskadiko Asteko idazkaritza tekniko den heinean (Hiri Hondakinetak Koordinazio Organoaren bidez, zeinak Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru aldundien ekintza uztartzen dituen), enpresek, udalek, gizarte erakundeek eta hezkuntza zentroek Astearekin bat egitea sustatzen duela, askotariko ekintzen bidez. Urtero-urtero, mota orotako ehun bat jarduera egiten dira Euskadin, Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen esparruan. Gainera, 2014an, 2015ean, 2016an eta 2017an, Ihobek eskoletarako lehiaketa bat antolatu zuen, bigarren hezkuntzako ikasleei (12 eta 18 urte arteko gazteei) begirakoa, elikagai xahuketaren inguruan kontzientziatzeko, “Tu comida no es un residuo / Zure janaria ez da hondakina” izenburupean. Jarduera guztiei buruzko informazio gehiago hemen: www.ocru.net.
- **“Ez elikatu munstroa/No alimentos al monstruo”** kanpaina Uraren Euskal Agentziak (URA) eta Euskadiko uren zazpi partzuergo eta mankomunitatek (Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, AMVISA-Gasteizko Udal Urak, Añarbeko Urak, Arabako Errioxako Uren Partzuergoa, Busturialdeako Uren Partzuergoa, Kantauriko Urkidetza eta Txingudiko Zerbitzuak) abiatu zuten 2016an, eta Acklima klusterrak koordinatu zuen. Hasiera batean, komunera botatzen diren paper zapi bustiek saneamendu sistemetan eta hondakin uren araztegiatan sorrarazten dituzten arazoengatik inguruan sentsibilizatzeko xedez sortu zen egitasmoa, baina, gaur egun, fokua zabaldu du. Beste sentsibilizazio jarduera batzuekin osatu da; hala nola, Exporetrete erakusketa ibiltaria hainbat euskal udalerritan ibili zen 2017ko udazkenean. Informazio gehiago: <https://munstrowc.eus/>.
- **“Birziklapenean jaioak gara/Reciclar es lo nuestro”** kanpainak etxeetako birziklapenari begiratzen dio, eta herritarrek ez birziklatzeko erabiltzen dituzten aitzakiak bazter uztea du xede, gehiago eta hobeto birzikla dadin. 2017an, 2018an eta 2019an egin zen EAeko hainbat udalerritan jolas karpa ibiltari eta dinamiko batzuen bidez, eta ikasleei (hitzartutako bisitak) nahiz helduei (sarbide librea) bideratuta zegoen. 2018an, gainera, udalerrietako ekintzak jarduera espezifiko batekin osatu ziren udan, euskal kostaldeko hondartzetan. Azpimarratu beharra dago HHKO barruko euskal erakunde publikoak (hau da, hiru foru aldundiak, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Saila eta Ihobe) 2018an lehen aldiz elkartu zirela kanpaina batean, Ecoembes eta Ecovidriorekin batera, etxeetako birziklapen tasak areagotzeko eta etxeetan hondakinak hobeto bereizteko. Kalkulatzen denez, edizio bakoitzak 50.000 inpaktu baino gehiago eragin ditu kaleko eta hondartzako ekintzen, eskoletako bisiten eta banatutako informazio liburuxken bidez. Informazio gehiago kanpainen urteko bideomemoretan: https://www.youtube.com/watch?v=ZGs_l6DFxbk.
- **“Circular Thinking” kanpaina.** 2018an, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak, Ihobe sozietate publikoaren bidez, “Circular Thinking” kanpaina abiatu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Zirkularrerako Estrategiaren testuinguruan sorturiko egitasmoa, euskal enpresa sarean (ETE-etan nahiz enpresa handietan) ekonomia zirkularraren eredua sustatzeko. Horri begira, ikus-entzunezko piezekin osatutako kanpaina bat sortu zen, sare sozialen bidezkoa, eta haien negozioetan ekonomia zirkularraren printzipioak aplikatzen ari

diren hainbat euskal enpresari buruzko 10 bideo ekoitzi ziren, adibideak emateko eta enpresa horien sektoreetako gainerako enpresek inspirazio iturritzat erabil zituzten. Egitasmoari buruzko informazio gehiago hemen: <https://www.ihobe.eus/economia-circular#conceptos%circular-thinking>. Ikus entzunezko piezei buruzko informazio gehiago hemen: https://www.youtube.com/playlist?list=PLPB-UfHXRoKqk4_mNgZaLCEPKmdnY5fCb

- **“Zero Plastiko Urdaibai” kanpaina.** 2019ko ekainaren 8an, hogeita hamar bat erakunde publikok eta pribatuk, Urdaibaiko Erreserbako Patronatua, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Saila, Bizkaiko Foru Aldundia eta Izaro Sub urpekarrien elkarte buru izanik, Urdaibaiko Biosferaren Erreserban plastikoak eta zaborra biltzeko egitasmo handi bat abiatu zuten. 2.500 boluntario mugitu ziren, eta 8.000 kilo zabor inguru jaso zituzten. Eguna bazkari herrikoi batekin eta hainbat jolas jarduerarekin amaitu zen, Urdaibai Ekoetxean. Ekimenak oihartzun handia izan zuen, eta ez tokiko eta estatuko hedabideetan bakarrik, baita nazioartekoetan ere. 2020ko ekainean ekimena errepikatzea zegoen aurreikusita, baina, Covid-19aren pandemiaren ondorioz, atzeratu egin behar izan zen. Informazio gehiago: <https://zeroplastikourdaibai.eus/>.
- **“Zero Zabor Uretan” kanpaina.** 2019ko udan, Mater Ontzi Museo Ekoaktiboarekin (ingurumen heziketarako museo bihurtu den egurrezko itsasontzi zahar bat da, hegaluzearen harrapaketa erabiltzen zena) lankidetzaz hitzarmena sinatu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak eta Ihobek “Zero Zabor Uretan” egitasmoa jarri zuten martxan, euskal kostaldeko hainbat herritako udako jaiekin bat eginez, itsas zaborren problematiken inguruan kontzientziatzeko eta herritarrak zabor horren prebentzioan inplikatzeko. Santurtzik, Mutrikuk, Donostiak, Pasaia, Bermeok eta Portugaletek parte hartu zuten kanpainan, eta honela zioen mezuak: “Jaietan ere: hondakin onena, sortzen ez dena”. Informazio gehiago: <http://zerozaboruretan.eu/>.
- **“Keinu txikien iraultza” kanpaina.** Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak eta Ihobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak herritarrak kontzientziatzeko kanpaina bat hedatu zuten 2019ko urrian, “Keinu txikien iraultza” leloa zuena, sentsibilizatzeko eta herritarren kontsumo ohiturak eredu jasangarriago eta zirkularragoetara eramateko. Kanpaina hedabideetan eta bide publikoan egon zen. Informazio gehiago: <https://www.ihobe.eus/actualidad/departamento-medio-ambiente-pone-en-marcha-una-campana-sobre-consumo-responsable-y-economia-circular>
- **“Etxetik ateratzeko unea iritsi da Euskadi jasangarriago batean sartzeko” kanpaina.** Covid-19ak eragindako pandemiatik irteteko testuinguruan kokatuta, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak eta Ihobek 2020ko maiatzan abiarazi zuten kanpaina hau, krisitik jasangarritasun irizpideekin irtetea sustatzeko asmoz. Kanpaina integrala bada ere, eta ez hondakinen ingurukoa beren-beregi, funtsezko mezuak batzuek hondakinen berrerabilpenarekin, birziklapenarekin, murrizketarekin eta behin bakarrik erabiltzeko material plastikoak desagerraraztearekin dute zerikusia. Informazio gehiago: <https://www.ihobe.eus/salidaenverde/>.
- **“Eskularra jaso” kanpaina.** Aurreko kanpaina bezalaxe, honako hau ere Covid-19aren ondoriozko krisiaren neurriak arintzen hasi ziren unean kokatuta dago, eta herritarrak kontzientziatzeko mezu bat helarazten du berariaz, hain zuzen ere, erabilitako eskularruak eta maskarak errefuserako edukiontzian utzi eta lurrera bota ez ditzaten. 2020ko ekaineko lehenengo egunetan egin zen.

Eusko Jaurlaritzak sustatutako kanpaina espezifiko horiez gain, lhobek etengabe ematen die arreta komunikabideek hondakinen inguruan egiten dizkioten eskaerei eta, aldizka, hedabide jeneralistetan nahiz espezializatuetan idazten du hondakinen birziklapenari, berrerabilpenari eta murrizketari buruz informatzeko, beste gai batzuen artean.

BESTE ERAKUNDE BATZUEK GIDATUTAKO KOMUNIKAZIO EKINTZAK

- Biohondakinak:
 - “Hamabi erronka... Helduko diezu?” Erika
 - "Elikagai xahuketarik ez”, Gasteizko Udala
 - XXI. mendeko elikagai xahuketaren erronkari buruzko jardunaldia
 - Azken minutua programa. Elikagai Bankua eta Gipuzkoako Foru Aldundia
 - Gormet bag
 - Proiektuen azoka
 - Amona Maritxu
 - Bukatu
 - Produktu zirkularrak

- Beiraren, paperaren eta kartoiaren, egurraren, plastikoen eta ontzien hondakinak:
 - “3,2,1,0... Hondakin” Bizkaiko Foru Aldundia
 - “Ni ere hondakinak murrizten” Gipuzkoako Foru Aldundia.
 - Berrerabili & konpondu. Emaiozu bizi berri bat. Reutiliza y repara’ Arabako Foru Aldundia

10. ERANSKINA

HONDAKINEN KUDEAKETAZ ARDURATZEN DIREN OPERADORE PUBLIKOEN ETA PRIBATUEN ARTEKO ARDURA BANAKETA

Hondakinak prebenitu, sortu, kudeatu eta kontrolatzeko ekintzek gizarteko askotariko estamentuak inplikatzen dituzte, herritarrengandik hasi eta administrazioekin buka, ekonomia jarduera orokorretatik eta hondakinen sektore ekonomikotik igarota.

Tartean dauden agenteek dagokien papera onartu behar dute, plana aurreikusitakoaren arabera gauzatu dadin.

Oro har, Eusko Jaurlaritzak, Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren bidez, hondakin fluxu guztiak koordinatu eta planifikatzeko eskumenak dauzka, baita industria hondakinak zuzenean kudeatzeko eskumena ere, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren bidez. Hiri hondakinen kudeaketa, berriz, udalen eskumenekoa da zuzenean, eta, subsidiarioki, foru aldundiena.

Udal hondakinen arloan zehazki, Eusko Jaurlaritza hiru foru aldundiekin (Hiri Hondakinetako Koordinazio Organoaren bidez) eta EAEko udalerriekin (Eudelen eta Udalsarea 2030en bidez) koordinatzea eta lankidetzan aritzea funtsezkoak dira plan honetan ageri diren xedeak bete daitezen.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailari atxikitako IHOBE Ingurumen Jarduketako Sozietate Publikoaren bidez, Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako 2030eko Estrategiaren ondoriozko Ekonomia Zirkularrerako Ekintza Plana egin da, zeinak, neurri batean, plan honen xedeak lortzen laguntzen duen.

Nabarmendu beharra dago plan honen xedeak eta edukiak ez dagozkiela EAEko ingurumen administrazioaren eskumenei bakarrik, hondakinak sortzen dituzten jardueren gainean (osasuna, nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, industria eta abar) funtsezko eskumenak dauzkaten administrazio publikoen beste adar batzuen esku ere badaude-eta. Erakundeek behar bezala jardun behar dute lankidetzan (adibidez, hezkuntzarekin, ikerketa eta garapenarekin eta ekonomiaren garapenarekin), kontsumoko patroien gainean eta hondakinen prebentzio, sorkuntza eta kudeaketako patroien gainean ondorioak izango dituzten politika sektorialak garatzeko orduan.

Taula honetan agente inplikatu bakoitzaren eginkizuna azaltzen da:

AGENTE INPLIKATUA	EGINKIZUNAK
Herritarrak	<ul style="list-style-type: none"> - Kontsumo ohiturek hondakinen prebentzioan eta sorkuntzan duten garrantziaz jabetzea. - Etxean sortzen diren hondakin kategoriatan ezberdinen gaikako bilketarekin eta bereizketarekin lankidetzan aritzea. - Sortutako hondakinen bilketa, garraio eta tratamendu operazioen benetako kostuaz jabetzea.
Enpresak	<ul style="list-style-type: none"> - Kultura aldatzea sustatzea kontsumotik prebentziora igarotzeko, tresna hauek aplikatuz: <ul style="list-style-type: none"> - Ekodiseinuko teknikak ezartzea. - Sorkuntza murrizteko planak ezartzea. - Hondakinetatik datozen materialak berrerabil eta kontsumi daitezkeen sustatzea. - Hondakinetarako teknika eta teknologia aurreratuak ezartzea, hondakinen hierarkia kontuan hartuz.
Toki erakundeak	<ul style="list-style-type: none"> - Indarreko araudira egokitutako ordenantzak idaztea. - Eraikuntza eta eraispenez hondakinak eraginkortasunez kontrolatzea, obra baimen bidez, indarreko araudiak jasotzen duen moduan. - Udal hondakinak gaika biltzeko sistema eraginkorak ezartzea, herritarrei nahiz sortzaile handiei bideratutakoak. Sistema horien bidez, hondakinei buruzko araudian eta planetan ezarritako prebentzio, berrerabiltzeko prestaketa eta birziklapen xedeetara iristen lagundu behar diren toki erakundeei.
Foru administrazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Udal hondakinak prebenitu eta kudeatzeko foru planak egitea eta planok betetzen direla egiaztatzea jarraipena egitea. - Udal hondakinak tratatzeko instalazioek xedeak betetzeko ahalmen nahikoa dutela bermatzea. - Toki erakundeei eta, bereziki, udal hondakinak biltzeko sistemetan laguntzea, dirulaguntzak esleituz. - Sentsibilizazio kanpaina koordinatuak egitea.
Administrazio autonomikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Hondakinen zenbaketa hobetzea. - Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Plana egitea eta Jarraipen Batzordearen bidez Planaren jarraipena egitea. - Planari loturiko tresnak lantzea (araukoak, I+G eta abar). - Industria hondakinak eta EEHak tratatzeko instalazio nahikoak daudela eta planaren xedeak betetzeko ahalmen nahikoa dutela bermatzea. - Hiri Hondakinetako Koordinazio Organoarekin koordinatzea. - Bigarren mailako lehentasunezko materialetan erosketan publiko berdea nahitaezkoa izan dadin sustatzea. - Hondakinak kudeatzeko instalazioak ikuskatu eta kontrolatzea. - Fiskalitate berdeko mekanismoak ezartzea. - Sentsibilizazio kanpaina koordinatuak egitea. - Toki erakundeei ekonomia zirkularra ezartzen laguntzea (bilketa sistemak, prebentzioa eta abar), urtero dirulaguntzei buruz argitaratzen diren aginduen bidez.

11. ERANSKINA

EAE-KO BILKETA SISTEMAK

AURKIBIDEA

ERANSKINEN AURKIBIDEA (6. ZIRRIBORROA 21_09_13)	1
6.4.1 apartatua. Lehenasunezko korranteetarako jarduketak eta 19. eranskina	9
4.1.3.4 apartatua. Itsas hondakinak arazoa dira gaur egun	11
4.1.3.4 apartatua. Itsas hondakinak arazoa dira gaur egun	11
2.1 Xedeak eta zigorrak	35
2.2 Eskaini beharreko gutxieneko zerbitzuak	38
3.1 Zabortegien/errefusa frakzioaren gaineko zerga	43
3.2 Biltegiatze, Itzulketa eta Itzulera Sistema (SDDR)	44
3.3 Hondakinak sortzeagatiko ordainketa	45
3.4 Elikagai-hondakinen bereizketa sustatzeko isunak – Milan	46
4.1 Laguntza eta gaikuntza	49
4.2 Komunikazio kanpainak	53
4.4 Ekoizlearen erantzukizun zabalduko sistemetako datuei buruzko txostenen hobekuntza – Estonia	55
1. Valentziako Komunitateko Hondakinen 2019-2022ko Plan Integrala (PIRCVA)	58
Valentziako Komunitateko Hondakinen 2019-2022ko Plan Integrala (PIRCVA)	58
2. Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)	64
Mallorca Irlako Hondakin Ez-Arriskutsuei buruzko 2019-2025 Plan Sektorial Gidaria (PDSRNPMA)	64
3. Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana	82
Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana	82
4. Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)	101
Andaluziako Hondakinen 2030eko Plan Integrala (zirriborroa)	101
1 SARRERA	170
2 BILKETA SISTEMA NAGUSIAK	171
2.1 Errefuserako edukiontzi itxia	171
2.1.1 Errefuserako edukiontzi itxi mugatua	171
2.1.2 Errefuserako edukiontzi itxi ez-mugatua	171
2.2 Atez atekoa	171
2.3 Jarri eta kentzeko edukiontziak	172
2.4 Hobaria duen edukiontzi organikoa eta errefusaren edukiontzi irekia	172
2.5 Errefuserako edukiontzi irekia	172
2.6 Landa eremuak	173
2.6.1 Itxitako bilketa guneak	173

2.6.2	Materia organikoa modu eksklusiboan kudeatzea, etxeko edota komunitateko konpostajearen bidez _____	174
2.7	Bilketa osagarriak _____	174
2.7.1	Tamaina handiko hondakinak _____	174
2.7.2	Tamaina handiko inausketa-hondakinak _____	175
2.7.3	Sortzaile handiak _____	175
2.7.4	Garbigune mugikorrak _____	176
2.7.5	Garbigune finkoak _____	176
2.7.6	Hondakin arriskutsuak uzteko etxolak _____	176
2.7.7	Berrerabiltzeko edukiontzia _____	177
2.7.8	Etxeko konpostajea _____	177
2.7.9	Konpostaje komunitarioa _____	178
2.8	Hondakinen bilketa eraginkorren alderdiak _____	178
2.8.1	Biltzeko derrigortasuna _____	178
2.8.2	Ikuskaritza _____	179
2.8.3	Bilketei buruzko informazio eta sentsibilizazio kanpainak _____	179
3	EMAITZAK, BILKETA MOTAREN ARABERA _____	180
1.	ALTZAIRUGINTZAKO ZEPAK _____	205
2.	GALDAKETAKO HAREAK _____	206
3.	ORE ETA PAPER LOHIAK _____	207
4.	HONDAKIN UREN ARAZTEGIETAKO LOHIAK _____	207
5.	IJEZKETAKO HONDAKINAK _____	209
6.	MATERIAL ERREGOGORREN HONDAKINAK _____	210
7.	ZATIKATZEAREN FRAKZIO ARINA (ZFA) _____	211
8.	BURDINAZKOAK EZ DIREN ZEPAK _____	212
9.	ERABILTZEN EZ DIREN PNEUMATIKOAK _____	213
10.	HONDAKINEN TRATAMENDU MEKANIKOTIK DATOZEN BESTELAKO HONDAKINAK (MATERIALEN NAHASKETAK BARNE), 19 12 11 KODEAN ZEHAZTUTAKOAK EZ DIRENAK 214	
11.	PAPER ETA KARTOIZKO ONTZIEN HONDAKINAK _____	215

TAULEN AURKIBIDEA

1 taula. Prebentzioaren eta berrerabiltzeko prestaketaren helburuak eta helburu horien jatorria	16
2 taula. Gaikako bilketaren xedeak eta xede horien jatorria	19
3 taula. Birziklapen eta balorizazio xedeak eta xede horien jatorria	21
4 taula. Deuseztapena optimizatzeko helburuak	24
5 taula. 2020a baino lehenagoko legediko xedeak	27
6 taula. Lurralde historikoen bilketa sistema bakoitzaren arabera udalerrien ehunekoa, 2018an	181
7 taula. Lurralde historikoen bilketa-sistema bakoitzaren arabera biztanleen ehunekoa, 2018an	181
8 taula. Euskadiko hondakinen sorkuntza eta kudeaketa (2018). Datuak, tonatan	198
9 taula. Euskadiko hondakin ez-arriskutsuen sorkuntza eta kudeaketa (2018). Datuak, tonatan	200
10 taula. EAEko hondakin ez-arriskutsuen korrante nagusien hondakinen kudeaketa (2018) Datuak, tonatan	200
11 taula. Euskadiko hondakin ez-arriskutsuen sorkuntza eta kudeaketa (2018). Datuak, tonatan	201
12 taula. EAEko hondakin ez-arriskutsuen korrante nagusien hondakinen kudeaketa (2018) Datuak, tonatan	202
13 taula. Euskadiko hondakinen amaierako sorkuntza eta kudeaketa (2018). Datuak, tonatan	203
14 taula. Prebentzioaren eta berrerabiltzeko prestaketaren helburuak eta helburu horien jatorria	237
15 taula. Gaikako bilketaren xedeak eta xede horien jatorria	244
16 taula. Birziklapen eta balorizazio xedeak eta xede horien jatorria	248
17 taula. Deuseztapena optimizatzeko helburuak	252
18. taula. <i>Ontziak, itsas zaborra eta sakabanatutako zaborraren</i> inguruan taxutu diren plan honen helburu espezifikoak	263
19. taula. 2030eko HPKParen jarduketa ildoak eta jarduketa zehatzak, plastikozko ontzien eta itsas zaborraren nahiz zabor sakabanatuaren arloan	268
20. taula. Plan honek <i>Industriako olio erabilien</i> inguruan dituen xede espezifikoak	278
21. taula. 2030eko HPKParen jarduketa ildoak eta jarduketa zehatzak, industriako olio erabilien arloan	279
22. taula. Definitzeko dauden helburu espezifikoekin lotutako adierazleak	293

ILUSTRAZIOEN AURKIBIDEA

1. irudia. Otzaurteko mendateko birziklagunea, Sasietako mankomunitatean	174
2. irudia. Zamudioko gertuko garbigunea	176
3. irudia. Arrasateko konpostaje komunitarioko gunea	178

IRUDIEN AURKIBIDEA

1.irudia. Errefusaren bilketa, bilketa-sistema ezberdinen arabera	182
---	-----

- 2.irudia. Frakzio ezberdinetako hondakinen sorkuntza, bilketa-sistemen (kg/bizt. urtean) eta gaikako bilketaren ehunekoaren arabera 183
3. irudia. EAEko ibilbide orriaren grafikoak, 2030eko HPKPrako, ontzien arloan 266

1 SARRERA

Eranskin honetan, gaur egun Euskadin dauden udal hondakinak jasotzeko sistemak, horien oinarria eta sistemok ezarrita dauzkaten udalerrietako emaitzak azaltzen dira.

Sistemak pertsonalizatuak eta pertsonalizatu gabeak izan daitezke. Pertsonalizatutako sistemetan, errefusa biltzean erabiltzaile batek errefusaren eta materia organikoaren bilketa zerbitzua noiz erabiltzen duen jakin daiteke. Pertsonalizatutako sistemetan, bi modu daude: edukiontzia pertsonalizatutako txartel baten bidez ireki daitezke, edo atez ateko bilketa bidez.

Pertsonalizatu gabeko sistemetan, ez da kontrolatzen ez noiz, ez zenbat aldiz erabiltzen den errefusaren bilketa-sistema. Beraz, sistema anonimoagoa da, eta, azken ataleko emaitzen arabera, jatorriko bereizketa gutxiago sustatzen du.

Gainera, egunez jartzen diren eta gauez kentzen diren hondakin edukiontzien sistemak ere badaude, edota hondakinak sortzeagatik ordaindu beharra sortzen duten sistemak eta biohondakinen edukiontzia erabiltzeagatik hobariak ematen dituzten sistemak.

2 BILKETA SISTEMA NAGUSIAK

Ondoren, Euskadin operatibo dauden bilketa sistemen tipologia ezberdinak deskribatzen dira.

2.1 Errefuserako edukiontzi itxia

2.1.1 Errefuserako edukiontzi itxi mugatua

Euskadin, errefuserako edukiontzia itxita baina muga batzuekin duten udalerriak 24 dira. Gehienak Gipuzkoan daude, Bizkaiko Lea-Ibarrako mankomunitateko bost udalerriak salbu. Sistema honetan, hondakinak sortzen dituen etxebizitzari lotutako identifikazio txartel bat behar da beti, mankomunitateak edo udalak ematen duena.

Bi aukera daude edukiontziok irekitzeko. Gehien erabiltzen den aukerarekin, edukiontzia asteko egun zehatz batzuetan bakarrik ireki daiteke; hau da, astelehenetan eta ostegunetan bakarrik, edo ostiraletan bakarrik, edo asteazken eta igandeetan bakarrik, etab. Horrelako adibide batzuk ditugu Sasieta mankomunitatean, Beasainen (edukiontzia astelehen eta ostiraletan bakarrik ireki daiteke) edo Ezkion (astelehenetan bakarrik). Bigarren aukera edukiontzia nahi den egun guztietan irekitzea da, baina astean gehieneko muga batekin. Hori Tolosaldeako mankomunitateko Ibarra, Altzo eta Andoainen gertatzen da, eta edukiontzia astean behin, bitan edo lautan ireki daiteke, hurrenez hurren.

Errefusa biltzeko mota horren barruan dauden udalerrri gehienek fardelak uzteko bakarrik diren edukiontziak dituzte. Hala ere, Ezkio edo Gabirian edukiontziak irekiak dira eta Beasain, Idiazabal eta Lea-Ibarrako udalerrri guztietan mugarik gabe ireki ahal izateko identifikazio txartela beharrezkoa da. Beste kasu batzuetan ez dute fardelak uzteko edukiontzirik, baina haur txikiak dituzten familiei txartela berriz konfiguratzeko zaie, errefusaren edukiontzia egunero irekitzeko aukera izan dezaten.

2.1.2 Errefuserako edukiontzi itxi ez-mugatua

Bilketa mota hau 41 udalerritan ezarrita dago, guztiak Gipuzkoan, Ermua eta Mallabia izan ezik. Azken horiek Bizkaiko udalerriak izan arren, beren hondakinak Debabarrenako mankomunitateak (Gipuzkoa) kudeatzen ditu.

Kasu batzuetan, errefuserako edukiontziak birziklatzeko etxoletan edo *birziklaguneetan* egon ohi dira beste edukiontziekin batera, eta horiek erabili ahal izateko beharrezkoa da etxolako atea irekitzen duen identifikazio txartela izatea. Hesiz itxita ez dauden baina irekitzeko txartela behar duten edukiontziak ere existitzen dira. Bilketa mota hori Alzaga eta Lazkaon (Sasieta) erabiltzen da. Udalerrri horietan, ez dago fardelak botatzeko edukiontzirik, horretarako errefuserako edukiontzia erabil dezaketelako.

2.2 Atez atekoa

Egun, 17 dira errefuserako atez atekoa erabiltzen duten udalerrri gipuzkoarrak; 12 udalerririk ontzietarako erabiltzen dute; 11 udalerririk papera eta kartoia biltzeko, eta 15ek biohondakinatarako. 11 udalerririk mantentzen dute sistema hau atez atekoaren bidez jaso

daitezkeen hondakin guztietarako (errefusa, ontziak, papera eta kartoia eta biohondakinak); horien artean, Usurbil, Hernani, Oiartzun, Alegia, Antzuola edo Segura daude.

Gasteizko Udalak adibidez ere badu sortzaile handien kartoia, hondakin organikoak, ontziak eta beira jasotzeko sistema hori.

Zaborrontziak ateratzeko egunak ezberdinak dira udalerrri batetik bestera. Ohikoena da 3 egun izatea biohondakinak uzteko, 2 ontzietarako, bat papera uzteko eta beste bat errefusa frakziorako. Dena dela, Usurbilen errefusa bi astean behin bakarrik utz daiteke. Erabaki hori hartzeko arrazoia zera da, sortzeagatiko ordainketa-sistema bat ⁴⁰ dutela. Horren bidez, errefusa uzten den aldi kopuruaren arabera ordaintzen da zabor tasaren zati aldagarria, eta ikusi zuten herritar gehienek bi astean behin edo hiru astean behin edo hilean behin egiten zutela.

Fardelak kudeatzeko, kasu batzuetan bizilagunei horretarako ontzi bat ematen zaie. Beste batzuetan, egun horretan bertan jasoko den hondakin motarako ontziarekin batera poltsa batean uzteko aukera dago Usurbil, Hernani, Itsasondo eta Seguran, adibidez.

2.3 Jarri eta kentzeko edukiontzia

Horiek ez dira oso maiz erabiltzen, baina, sistema hori duten udalerrietako bat Zestoa da, adibidez. Bertan, hondakinak modu horretan kudeatzen dira eta egun berean jarri eta kentzen dituzte edukiontzia. Bestalde, Gasteizen, hiriguneko eta alde zaharreko zona batzuetan hondakinen bilketa sistema hori dago ezarrita. Frakzio bakoitza ezarritako bilketa egunean uzten da, fardelak izan ezik (egunero atera ahal dira). Papera eta kartoia eta beira hogeita lau orduz kalean dauden edukiontzietan utzi behar dira.

Jarri eta kentzeko edukiontzi sistema hau hirigune historiko batzuetan ere ezartzen da; Durangon, kasu.

2.4 Hobaria duen edukiontzi organikoa eta errefusaren edukiontzi irekia

Materia organikorako edukiontzia erabiltzen duten erabiltzaileei hobaria ematen dien sistema da. Edukiontzi organikoa nori erabiltzen duen jakiteko eta ondoren hobariak ezarri ahal izateko, edukiontzia irekitzeko txartel pertsonalizatua erabiltzen da.

Txingudiko mankomunitatearen (Irun eta Hondarribia) kasuan, adibidez, zabor-tasa jaitsi egiten da eta Leioan, tokiko dendetan erabiltzeko opari txartela banatzen da.

Beasain edo Eibar bezalako udalerrietan, hobaririk gabeko sistema pertsonalizatu batera pasa aurreko tarteko pausu gisa ezarri zen hobari sistema hau.

2.5 Errefuserako edukiontzi irekia

Euskadiko udalerrien % 60n, bide publikoan irekitako edukiontzien bidez jasotzen da errefusa. Ehuneko hori Gipuzkoako udalerrri batzuk eta Araba eta Bizkaiko guztiek osatzen dute, Lea-

⁴⁰ Usurbilgo sistema Euskadin herritarrei ezartzen zaien sortzeagatiko ordainketa sistema bakarra da. Edonola ere, atez atekoarekin emaitza oso onak zituzten, sortzeagatiko ordainketa ezarri aurretik. Zamudiok hondakinak sortzeagatiko ordainketa sistema diseinatu du, eta 2020. urtean ezartzeko asmoa dauka.

Ibarrako mankomunitatea eta Ermua eta Mallabiko udalerriak kenduta. Gainera, udalerrri horiek guztiek ontzi arinak, beira eta papera eta kartoia uzteko edukiontzi irekiak dituzte.

Errefusaren edukiontzietarako sarbide librea duten udalerrri horietan, hondakinak jatorrian bereizteko joera (batez ere, materia organikoa eta ontzi arinen kasuan) txikiagoa da pertsonalizatutako sistemak dituzten udalerriena baino.

2.6 Landa eremuak

2.6.1 Itxitako bilketa guneak

Udalerrri guztietan, hirigunean hondakinak edukiontzi irekien bidez jasotzen baldin badira, landa eremuan ere gauza bera egitea da ohikoena, itxitako edukiontzi sistemarekin bezala. Hala ere, badira lau kasu, non hirigunean errefusaren edukiontziak itxita eta landa eremuan irekita dauden. Udalerrri horiek Aizarnazabal, Azpeitia, Elgeta eta Lezo dira. Landa eremuan itxitako edukiontziak dituzten eremu guztiak gipuzkoarrak dira, Bizkaian dauden Lea-Ibarrako bost udalerriak kenduta.

Landa eremuko edukiontzi itxiak irekitzeko egutegia hiriguneetako edukiontziena bezalakoa da, baina, udalerrri batzuetan, landa eremuetako edukiontziak birziklatze etxola edo *birziklagune* baten barruan daude, hiriguneetakoak irekitzeko erabiltzen den identifikazio txartel beraren bidez ireki daitekeena. Birziklatze gune horien adibide dugu Lazkao.

1. IRUDIA. OTZAUORTEKO MENDATEKO BIRZIKLAGUNEA, SASIETAKO MANKOMUNITATEAN



Iturria: Cimas

				Plastikozko ontzi hondakinen berrerabilpen eta birziklapen tasa gehitzea					% 50	% 55		% 50 (2025) % 55 (2030)		% 50 (2025) % 55 (2030)	
				Egurrezko ontzi hondakinen berrerabilpen eta birziklapen tasa gehitzea					% 25	% 30		% 25 (2025) % 30 (2030)		% 25 (2025) % 30 (2030)	

63 Ekonomia zirkularreko paketearen helburua gainditzen du (% 65 2035ean)

EREMUA	FRAKZIOA	XEDAPENA	URTE A	HELBURUA	XEDE BALIOA									
					2019	2020	2022	2023	2025	2030	2035	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
				Burdinazko metalezko ontzi hondakinen berrerabilpen eta birziklapen tasa gehitzea.					% 70	% 80		% 70 (2025) % 80 (2030)		% 70 (2025) % 80 (2030)
				Aluminiozko ontzi hondakinen berrerabilpen eta birziklapen tasa gehitzea.					% 50	% 60		% 50 (2025) % 60 (2030)		% 50 (2025) % 60 (2030)
				Beirazko ontzi hondakinen berrerabilpen eta birziklapen tasa gehitzea.					% 70	% 75		% 70 (2025) % 75 (2030)		% 70 (2025) % 75 (2030)
				Paper eta kartoizko ontzi hondakinen berrerabiltze eta birziklatze tasa gehitzea.					% 75	% 85		% 75 (2025) % 85 (2030)		% 75 (2025) % 85 (2030)
	Ontziak, guztira	PEMAR 2016-2022	2020	Ontzi guztien birziklapen tasa areagotzea, materialetan bereizirik.		% 70						% 65 (2025) % 70 (2030)		% 70 (2020)
	Beira					% 75					% 70 (2025) % 75 (2030)		% 75 (2020)	
	Papera eta kartoia					% 85					% 75 (2025) % 85 (2030)		% 85 (2020)	

EREMUA	FRAKZIOA	XEDAPENA	URTE A	HELBURUA	XEDE BALIOA										
					2019	2020	2022	2023	2025	2030	2035	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
	Metalak					% 70							% 70 (2025)		% 70 (2020)
												% 80 (2030)			
												% 50 (2025)		% 40 (2020)	
	Plastikoa							% 40				% 55 (2030)		% 40 (2020)	
	Egurra					% 60							% 25 (2025)		% 60 (2020)
												% 30 (2030)			

* 2019aren aurreko urteetarako ezarritako helburuak

17 TAULA. DEUSEZTAPENA OPTIMIZATZEKO HELBURUAK

EREMUA	FRAKZIOA	XEDAPENA	URTE A	HELBURUA	XEDE BALIOA										
					2019	2020	2022	2023	2025	2030	2035	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
DEUSEZTAPEN AREN OPTIMIZAZIOA	HHak	1481/2001 Err ege Dekretua	2009	Lehen mailako hiri hondakinen zero isurketa	0*										0 (2019)
		EAEko plana	2020	2010eko hiri hondakinen % 49ko deuseztapena gehieneko % 40ra jaistea.		% 40								<% 35 (2020)	% 40 (2020)
		2018/850 Zuzentaraua (EB)	2035	Hiri hondakinen deuseztapenaren tasa murriztea.								% 10		<% 15 (2030)	% 10 (2030)

EREMUA	FRAKZIOA	XEDAPENA	URTE A	HELBURUA	XEDE BALIOA										
					2019	2020	2022	2023	2025	2030	2035	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
		PEMAR 2016-2022	2020	Sortutako udal hondakin guztien isurketa % 35era mugatzea.		% 35							Ez da helbururik jaso		% 35 (2020)

* 2019aren aurreko urteetarako ezarritako helburuak

18. ERANSKINA

MATERIA ORGANIKOAREN, ONTZIEN ETA ERREFUSAREN GAIKAKO BILKETARI BURUZKO 2030EKO AURREIKUSPENA


Azken urteetan, EAEko udalerrri eta mankomunitate batzuek oso emaitza onak eman dituzten sistemak ezarri dituzte udal hondakinak biltzeko. Emaitza horiek punta-puntakoak dira baita Europan ere. Bilketa sistema horiek EAEko gainontzeko udalerrri eta mankomunitateetara zabaltzea gertuko erreferentziarik ez duten beste inguruetan baino errazagoa izango da. Planaren denbora aurreikuspenak (hamarkada bat) bilketa arrakastatsuak orokortzeko, arazoak identifikatzeko eta horiei konponbidea emateko aukera ematen du.

Udal hondakinen bilketa sistema eraginkorren ezarpena orokortzeak bilketa motaren arabera espero diren kopuruak ere aldatzea ekarriko du. Bilketa sistema eraginkorragoak ezartzean ematen diren aldaketa nagusiek elikagai hondakinetan, ontzi arinetan eta errefusean dute eragina.


Ondorengo irudietan, gaikako bilketaren aurreikuspenak agertzen dira, aipatutako udal hondakinen hiru frakzioetarako eta lurralde historiko bakoitzerako. Izan ere, gaur egun, tratamendu azpiegiturak lurralde historikoen mailan planteatuta daude.

a) Elikagai hondakinak


ELIKADURA-HONDARRAK eta TRATAMENDU-GAITASUNA sortzeko egoera Araban



ELIKADURA-HONDARRAK eta TRATAMENDU-GAITASUNA sortzeko egoera Bizkaian




ELIKADURA-HONDARRAK eta TRATAMENDU-GAITASUNA sortzeko egoera Gipuzkoan




b) Ontzi arinak


ONTZI ARINAK eta TRATAMENDU-GAITASUNA
sortzeko egoera Araban



ONTZI ARINAK eta TRATAMENDU-GAITASUNA
sortzeko egoera Bizkaian




ONTZI ARINAK eta TRATAMENDU-GAITASUNA sorzeko egoera Gipuzkoa




c) Masako bilketa


MASA-BILKETAKO eta TRATAMENDU-GAITASUNA sortzeko egoera Araba



MASA-BILKETAKO eta TRATAMENDU-GAITASUNA sortzeko egoera Bizkaia



MASA-BILKETAKO eta TRATAMENDU-GAITASUNA sortzeko egoera Gipuzkoa



Masan bildutakoen kasuan, aurreikuspenaz gain, instalazioen edukierak erakusten dituzten lerroak, masako bilketa tratatzeko ez ezik, beste hondakin batzuk tratatzeko ere pentsatuta daude; hala nola, hautaketa edo birziklatze plantetako errefusak (bereziki, errausketa bidezko energia balorizaziorako instalazioetakoak).

19. ERANSKINA

ONTZIAK, ITSAS ZABORRA ETA BARREIATUTAKO ZABORRA PREBENITU ETA KUDEATZEKO ESTRATEGIA ETA JARDUKETAK

1 AURREKARIAK ETA DIAGNOSTIKOA

Paper eta kartoizko ontzi industrialek 136.935 t sortu zituzten 2018an, % 97ko birziklapen tasarekin. Giltzarria da nabarmentzea 2010etik hona hondakin mota horren sorkuntzak % 300 egin duela gora, nahiz eta egia izan birziklapen tasak hobera egin duela: birziklapen tasak beti daude % 90en eta % 97ren artean. Balorizazio tasa handia duenez, plangintza honetan ez da lehentasunezko korrontetzat hartu.

Ontzi hondakinen sorkuntza (plastikoa, papera, beira, metala etab.) % 12 handitu da 2010. urtearekin alderatuta. Horren arrazoi nagusia da industria sektoreak sortutako ontzi kopuruak gora egin duela (% 72 igo da). Aldiz, udal ontzien hondakinak % 16 gutxitu dira.

Industria sektoreak sortutako ontzi hondakinen birziklatze tasa oso altua da, % 90etik gorakoa. Hala ere, udal ontzietako hondakinen birziklapena % 51koa da, eta ontzi arinen hondakinen % 34 bakarrik birziklatzen da, 852 Zuzentarauaren helburuetatik urrun. Beraz, plan honetan lehentasuna duten hondakinak dira.

Udal ontzi arinen isurketari dagokionez, tasa hori % 45,6koa da oraindik. Hori dela-eta, erronka giltzarrietako bat da, hondakin mota horrek zabortelean ematen dituen arazoak direla-eta.

Itsas zabor edo sakabanatutako zaborra nagusiki zigarrokinak, udal jatorriko ontziak eta plastikozko piezak dira. Horregatik, elkarrekin planteatu ditugu bi arazook plan honetan. Urtero itsasoetara heltzen den

zaborra 8 eta 12 milioi tona artean dagoela kalkulatu da. Plastikoa dira itsas zabor mota ohikoena, itsasoko hondakinen % 80 eta % 70 artean.

Arazoaren alderdirik ikusgarriena hondartzetan pilatutako hondakinak edo itsasoan flotatzen duen zaborra diren arren, zatirik handiena (% 75) itsasoaren hondan pilatzen da. Duela gutxi egindako ikerketen arabera, zaborra oso zabaldua dago ipar-ekialdeko Atlantikoaren itsas hondan, eta plastikoa da ugariena. Bizkaiko golkoaren ekialdea da zabor eta plastiko kopururik handienak biltzen dituzten eremuetako bat; batez ere, ibaien eta haize nahiz korronte nagusien bidez zabor kopuru handiak jasotzen dituelako.⁶⁴

Momentuz, korronte hori sortzen ari da, eta ez da orain arteko planetan aurreikusi, baina, sortzen ari den eta gehitzen doan arazoa denez (planaren 4.1.3 apartatua), lehentasunezko korrontetzat hartu da plan honetan. Diagnostikorako eta kontrolerako sistematika bat ezarriko dugu; lehentasunak hautemango ditugu eta, azkenik, lehentasunezko jarduketak ezarriko ditugu, prebentzioaren zein konponketaren ikuspegitik abiatuta.

2 ERRONKAK ETA HELBURUAK

Korronte hauekin lotutako helburu espezifikoak *6.1 Planaren helburu espezifikoak* atalean jasota daude, baina, eranskin honetan ere nabarmenduko ditugu, argitasunaren mesedetan:

18. TAULA. **ONTZIAK, ITSAS ZABORRA ETA SAKABANATUTAKO ZABORRAREN** INGURUAN TAXUTU DIREN PLAN HONEN HELBURU ESPEZIFIKOAK

⁶⁴<https://oap.ospar.org/en/ospar-assessments/intermediate-assessment-2017/pressures-human-activities/marine->

[litter/composition-and-spatial-distribution-litter-seafloor/](https://oap.ospar.org/en/ospar-assessments/intermediate-assessment-2017/pressures-human-activities/marine-litter/composition-and-spatial-distribution-litter-seafloor/)

ID	Jatorria	Korrontea	Azpikorrontea	Xede espezifikoak
OS3	Espezifikoa EAEn	UHak	Ontziak	Merkaturatzen den edari kopuruaren % 40 (2030) eta % 10 (2025) ontzi berrerabilgarrietan jartzea.
OS4	Espezifikoa EAEn	UHak	Ontziak	Ontzi arinen sorkuntza % 20 murriztea 2030erako eta % 5 2025erako, 2019. urtearekin alderatuta
OS17	2019/904 Zuzentaraua	UHak	Ontziak	Erabilera bakarreko plastikozko botilen gaikako bilketan % 90era heltzea 2029an eta % 77ra 2025ean (pisan), urte zehatz batean merkaturatutako pisuarekin alderatuta.
OS24	2018/852 Zuzentaraua (EB)	UHak	Ontziak	PET botiletan RPETen % 30 lortzea 2030ean eta % 25 2025ean (pisan)
OS25	2018/852 Zuzentaraua (EB)	UHak	Ontziak	Ontzi hondakinen berrerabiltze eta birziklatze tasa % 70ekoa izatea 2030ean eta % 65ekoa 2025ean.
OS26	2018/852 Zuzentaraua (EB)	UHak	Ontziak	Plastikozko ontzi hondakinen berrerabiltze eta birziklatze tasa % 55ekoa izatea 2030ean eta % 50ekoa 2025ean.
OS27	2018/852 Zuzentarautik (EB) harago	UHak	Ontziak	Egurrezko ontzi hondakinen berrerabiltze eta birziklatze tasa % 30ekoa izatea 2030ean eta % 25ekoa 2025ean.
OS28	2018/852 Zuzentaraua (EB)	UHak	Ontziak	Burdin eta metalezko ontzi hondakinen berrerabiltze eta birziklatze tasa % 80koa izatea 2030ean eta % 70ekoa 2025ean.
OS29	2018/852 Zuzentaraua (EB)	UHak	Ontziak	Aluminiozko ontzi hondakinen berrerabiltze eta birziklatze tasa % 60koa izatea 2030ean eta % 50ekoa 2025ean.
OS30	2018/852 Zuzentaraua (EB)	UHak	Ontziak	Beirazko ontzi hondakinen berrerabiltze eta birziklatze tasa % 75ekoa izatea 2030ean eta % 70ekoa 2025ean.
OS31	2018/852 Zuzentaraua (EB)	UHak	Ontziak	Paper eta kartoizko ontzi hondakinen berrerabiltze eta birziklatze tasa % 85ekoa izatea 2030ean eta % 75ekoa 2025ean.

Oharra: Ez da sakabanatutako edo itsas zaborrerako xede espezifikorik definitu. Kontabilizazio sistemak martxan jarri ostean eta diagnostikoa argi dagoenean ezarriko dira.


Erronkak

Ontzi arinen eta isurketaren birziklatze tasak hobetzeko ontzien inguruan gauzatu beharreko beste erronka batzuk ere badaude eta modu osagarrian jorratu behar dira:


- Berrerabilpena: egingarriagoa beirazko ontzietarako
- Ontzi arinen hondakin batzuen kalitatea handitu, horiek birziklatzea eta ziklo ekonomikoan berriz sartzea sustatzeko, SUP Zuzentarauaren helburuak betez.
- Ontzien zenbaketa hobetu. Batetik, Europatik datozen erabaki berriei egokitzeko eta, bestetik, kontabilitatean dauden desadostasunak murrizteko.

3 ONTZIEN INGURUKO ESTRATEGIA GLOBALA ETA PLANIFIKATUTAKO EKINTZAK

3. irudia. EAEko ibilbide orriaren grafikoak, 2030eko HPKPrako, ontzien arloan



Plan de trabajo en materia de envases y plásticos (RM) a 2030



19. TAULA. 2030EKO HPKPAREN JARDUKETA ILDOAK ETA JARDUKETA ZEHATZAK, PLASTIKOZKO ONTZIEN ETA ITSAS ZABORRAREN NAHIZ ZABOR SAKABANATUAREN ARLOAN⁶⁵

Jarduketa ildoak	Ontzien, plastikoen eta itsas zaborraren nahiz zabor sakabanatuaren inguruan planifikatutako jarduketak
Kalitatezko bigarren mailako materialen merkatu egonkor bat sortzea (merkatu tresnak: CE markaketa, ekoetiketak...)	<ul style="list-style-type: none"> - Arrantza industriako plastikoekin fabrikatutako materialen erosketa publiko berdea edo merkatua sustatzea.
Hondakinak balorizatzeko bide berriak identifikatu, ikertu eta ezartzea, baita bigarren mailako materialentzako erabilera berriak ere (bilatu, ikertu eta erabilera berriak legezatu)	<ul style="list-style-type: none"> - Itsas zaborreko plastikoak birziklatzeko irteerak bilatzea, finantzazio ildoen orientazioaren bidez. - HHKOren esparruan ontzien edukiontzia materialen edukiontzi bihurtzeko bideragarritasuna aztertzea, aurreko esperientzietan eta proba pilotu batean oinarrituz. - Merkatuan plastikozko produktuak (ontziak ez) jartzen dituzten dendek gaikako bilketan parte hartzeko aukera aztertzea. - Film, brik eta birziklatzeko zailak diren beste ontzietarako lan ildo zehatzak identifikatzea. - Europar ontzi arinen sortze eta birziklatze tasa onenak dituzten herrialdeetan oinarrituz, 2019/852 Zuzentarauaren ratioak betetzeko estrategia definitzea. - <u>Arrantza eta urtar sektorean erabiltzen diren materialak murriztu, berrerabili eta birziklatzeko proiektuetan laguntzea (arrantza sareak eta poliestireno hedatua).</u> - <i>Itsasotik eta kostaldetik berreskuratutako plastikoen birziklapenari buruzko azterketak egitea.</i>
Hondakinen alorreko governantza hobetzea (jarraipen organismoak, administrazio publikoen arteko koordinazioa eta araudi esparrua)	<ul style="list-style-type: none"> - <i>"Itsas zaborraren plataforma" sortzea plangintza koordinatzeko eta jarduketan eta emaitzen jarraipena egiteko.</i>⁶⁶ - Birziklagarriak ez diren edo EAEn birziklatze sistemarik ez duten ontziei pizgarriak kentzea sustatzea, legeen bidez, eta ontzien araudiarekin lotutako ikuskaritza eta zigorra handitzea, batez ere birziklagarriak eta berrerabilgarriak ez diren ontzien kasuan.

⁶⁵ Itsas zaborrari buruzko ekimen guztietan Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren itsasertzaren kutsadurari aurre egiteko Euskadiko "Itsasertza" Larrialdi Plan Berezia kontuan hartuko da.

⁶⁶ Letra etzanarekin idatzitako jarduketak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak gidatuko ditu. Gainerako jarduketak martxan daude edo EAeko beste eragile batzuk garatuko dituzte.

Jarduketa ildoak	Ontzien, plastikoen eta itsas zaborraren nahiz zabor sakabanatuaren inguruan planifikatutako jarduketak
	<ul style="list-style-type: none"> - 2018/852 Zuzentarauak eskatzen dituen birziklatze tasak lortzeko tasen ekomodulartasunaren garrantzia helaraztea Hondakinen Batzordeari eta MITERDi. - Egurrezko merkataritza eta industria ontziak gaika biltzeko betebeharra ezartzea eta tresna ekonomiko posibleak aztertzea (2025). - Edarien ontzi itzulgarrien erabilera exijitzea kudeaketa publikoko HoReCa establezimenduetan (2021) - Hondakinei buruzko legedi garapenean zera sartzea: <ul style="list-style-type: none"> o Soltean edo ontzi berrerabilgarrietan saltzen diren produktueterako helburu bat ezartzea; o Erabilera bakarreko ontzien % 100 birziklagarriak izatea ezartzea; o ontziak merkaturatzen dituzten banatzaile handiei ontzietan, soltean saltzen dituzten produktuei, merkaturatzen dituzten produktu berrerabilgarriari eta ontzi birziklagarriari buruzko informazioa emateko eta birziklagarritasunaren ehunekoak jakinarazteko derrigortasuna ezartzea. - <u>Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak diren portuei laguntzea, itsasoan arrantza aparailuen hondakinak eta bestelako hondakinak jasotzeko.</u>⁶⁷
Hondakin korronteen zenbaketa , trazabilitatea eta informazioa hobetzea eta ezagutza gehitzea.	<ul style="list-style-type: none"> -Ontzien zenbaketa 2019/665 Erabakira egokitzea. -Plastikozko poltsen helburua monitorizatzea. -Hiru lurralde historikoetan itsas zaborra eta sakabanatutako zaborra zenbatzeko sistema bat garatzea eta zaborra arrantzatzean nahiz itsas zaborra eta sakabanatutakoa biltzean jasotako objektuei buruzko EAEko datu basea sortu eta mantentzea. - - <i>Makroplastikoen / mikroplastikoen bidezko itsas kutsadura monitorizatzeko sistema bat ezartzea.</i>
Komunikazioa , sentsibilizazioa, informazioa eta gardentasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Plastiko berriak egoki banatzeko kanpaina (bioplastikoak, konpostagarriak diren plastikoak, etab.). -SCRAPEkin sinatutako hitzarmenak eta haien baimenak berrikustea, baita plan honen printzipioak betetzen direla bermatzeko ikuskaritza nola indartu ere.
Hondakinen kudeaketan lan egiten duten eragile guztiei arduratsuak izan daitezela eskatzea eta ekoizlearen erantzukizuna sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Banatzaile handiekin hartutako borondatezko erabakien bidez, soltean saldutako produktuak, ontzi berrerabilgarriak eta ontzi birziklagarriak sustatzea (birziklagarriak ez direnen aurrean), birziklatze tasak handitzeko. -<u>EAEko portu guztietan hondakinen erregulazioa sustatzea, ontziek sortutako hondakinak jasotzen dituzten portu instalazioei buruzko 2019/883 Zuzentaraua ezarriz, eta aurreikusitako pizgarriak beste batzuekin osatzea, arrantzaleek arrantza aparailuen hondakinak jasotzea sustatzeko.</u>

⁶⁷ Azpimarratutako jarduketak Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Industriako Sailak gidatuko ditu.

Jarduketa ildoak	Ontzien, plastikoen eta itsas zaborraren nahiz zabor sakabanatuaren inguruan planifikatutako jarduketak
	<p>- <i>Itsasoan, kostaldean eta ibaietan plastikoak biltzeko lankidetzak ekimenak garatzea (Ekoetxeak, toki erakundeak, GKEak...)</i></p> <p>- Arrantza aparailuen ekoizleekin lan mahaia osatzea, SCRAP sektorialaren aurreikuspenean.</p> <p>- HUB Basque Zirkularren bidez ontzien ekodiseinua lantzea.</p> <p>- <i>Eragile arduradunekin batera, itsas zaborraren arazoan sartuta dauden sektore eta erabiltzaileei zuzendutako prestakuntza programak sustatzea.</i></p>
<p>Azpiegiturak, ahalmen tekniko nahikoa eta kalitate handiko prebentzio eta kudeaketa prozesuak</p>	<p>- Erabilera bakarreko edari ontziak birziklatzeko SDDR bat (2025) egitea aztertzea, gidatzea eta ikuspuntu juridikotik bideragarria bada hedatzea eta aurretik ingurumen, ekonomia eta gizarte BZA egitea eta alderdien iritzia kontuan hartzea.</p> <p>.</p> <p>- Edarien beirazko ontziak berrerabiltzea aztertzea, gidatzea, akordio boluntarioa egitea eta SDDR gauzatzea. (2025).</p> <p>- <i>URArekin eta aldundiekin batera, ibaien eta saneamendu-azpiegituren bidez (batez ere euria egiten duenean), zabor ekarpenen prebentzioan lan egitea eta euri urak kudeatzea, hondakin solidoen banaketa bermatzen duten sistema eta azpiegitura egokien bidez.</i></p>
<p>Hondakinen alorrean praxi okerren kontrola, fiskalizazioa eta zigorra indartzea, ekoizpenari zein hondakinen kudeaketari dagokienez.</p>	<p>- EAEko ontzi arinen kalitatea eta helmuga egokia ikuskatzea, SCRAPen hitzarmen eta baimenetan oinarrituz.</p>
<p>Hondakinen proiektuen finantzazioa jasotzea erraztea eta tresna ekonomikoak eta fiskalitate berdekoak garatzea. .</p>	<p>- Nahastutako industria ontzien gaineko tresna ekonomiko bat aplikatzea baloratzea.</p> <p>- Ontzi zehatzak (sagardoa, txakolina, eta abar) erabiltzeko eskualdeko SDDR sistemak sustatzea eta babestea.</p> <p>- Ontzi industrialen nahasketaren hondakinari pizgarria kentzeko tresna ekonomiko posibleak aztertzea.</p> <p>- “Zabor arrantzako” jarduerak eta ibaiak, hondartzak, flotagarriak eta azaleko itsas hondoak (baita sakabanatutako zabor fokuak ere) garbitzeko jarduerak sustatzea, finantzatzea eta profesionalizatzea, natura ingurunean (itsasoan nahiz lehorrean) zaborra pilatzen duten eta identifikatu diren lekuak garbitzeko kanpainak barne.</p>
<p>Hondakinekin lotutako administrazio izapideak</p>	<p>- Juridikoki baloratzea EAEn bertan tratatu daitezkeen plastikoak beste autonomia erkidegoetara eramateari uko egiteko aukera, autosufizientzia eta hurbiltasun printzipioei jarraikiz.</p>

Jarduketa ildoak	Ontzien, plastikoen eta itsas zaborraren nahiz zabor sakabanatuaren inguruan planifikatutako jarduketak
sinplifikatzea eta hondakinen kudeaketan autosufizientzia eta hurbiltasun printzipioak ezartzea.	

20. ERANSKINA

ELIKAGAI XAHUKETAREN GAINEKO ESTRATEGIA ETA JARDUKETAK

1. AURREKARIAK ETA DIAGNOSTIKOA

1.1 Elikagai xahuketa

Elikagai xahuketa nazioarteko erakundeen (FAO, NBE, OME...) eta Europako gobernuen agendan sartutako erronka nagusietako bat da, mundu mailan dituen gizarte, ingurumen eta ekonomia inpaktuak direla-eta. Elikagai xahuketa esaten zaio nekazaritzako elikagaien katean baztertutako elikagai multzoari; hau da, oraindik gizakiontzat jateko egokiak diren arren, bestelako erabilerarik ematen ez zaienez, hondakintzat jo eta deuseztatu egiten diren elikagaiei. Arrazoiak anitzak izan daitezke: iraungitze data iristea, bilgarria hondatzea, exijitutako kalitate edo tamaina betetzen ez duen produktua izatea, etab. FAOren arabera, urtero 1.300 milioi tona elikagai baino gehiago botatzen da; hau da, munduan sortutako elikagaien herena. Euskadin, 350.000 tona baino gehiago direla uste da. 160 kg/pertsona/urtean, gutxi gorabehera. Nazioarte mailan hartutako lehenengo konpromisoak “Munduko elikagaien galera eta xahuketa” izeneko azterlanari erantzuteko sortu ziren (azterketa hori FAOk egin zuen 2011. urtean).

FAOk sustatutako azterketaren ondorioei lotutako eragile ezberdinen erantzunak, bada, mundu mailako, Europako eta nazio mailako proposamen, ekimen eta estrategia politiko ugari sortu ditu.

Azterketa horren ondorioz, Europako Parlamentuaren 2012ko urtarrilaren 19ko ebazpena eman zuen EBk, elikagai xahuketa ekiditeari buruzkoa. Ebazpen horrekin, beste gauza batzuen artean, estatu kideek eta nekazaritzako elikagaien kateko eragileek elikagaien galeraren arazoa hornikuntza eta kontsumo kate osoan lehenbailehen konpontzea eskatzen da, bai eta nekazaritzako elikagaien katearen eraginkortasuna sektore bakoitzean hobetzeko jarraibideak eman ditzatela ere.

2015. urtean, NBEk Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJE) argitaratu zituen. 12.3 helburuak, adibidez, honako asmo hau dauka 2030era begira: “txikizkako salmenta eta kontsumitzaile maileri dagokionez, biztanle bakoitzeko elikagai xahuketa erdira murriztea eta produkzio eta hornikuntza kateetan elikagai xahuketa murriztea”. 2016ko azaroan sortu zen elikagai xahuketari eta elikagai hondakinei buruzko EB plataforma, honako hau nahi duena:

EBn elikagai hondakinak neurtzeko elkarrekiko metodologia egitea, estatu kideekin eta interesa duten aldeekin batera.

EBk hondakinen, elikagaien eta pentsuen inguruan duen legedia argitzeko neurriak hartzea eta elikagaiak eman daitezkeen nahiz elikagai kateko elikagai produktuak eta azpiproduktuak pentsuak egiteko erabil daitezkeen erraztea, elikagai segurtasuna kaltetu gabe.

Era berean, Euskadin, Gastronomia eta Elikadurari buruzko Plan Estrategikoaren helburua da euskal elikaduraren eta gastronomiaren honako ardatz hauek landu eta sustatzea: Segurtasuna, osasungarritasuna, berezitasuna eta jasangarritasuna (sozialki, kulturalki, ekonomikoki eta ingurumenari dagokionez).

Estatu mailan, “Elikagai gehiago, xahuketa gutxiago» estrategia dago. Elikagai galerak eta xahuketa murrizteko eta alferrik galdutako elikagaiei balioa emateko programa Espainiako Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren ekimena da. 2013. urtean aurkeztu zen, elikagai galerak eta xahuketa eta horrek ingurumenean duen inpaktua mugatzeko.

1.2 Elikagai xahuketaren kontrako Euskadiko plataforma

Elikagai xahuketaren kontrako Euskadiko plataforma erakunde, antolakunde, elkarte, entitate eta abarrez osatuta dago. Ekimen horretan, erakundeek borondatez hartzen dute parte, eta elikagai xahuketaren aurkako borrokan proposatzen diren ekintzen ezarpenean esku hartzeko gaitasuna (egiturazkoa eta funtzionala) dute.

Honako eragile hauek hartzen dute parte:

Euskal administrazioak: Eusko Jaurlaritzaren sailak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udalak (osasun publikoa, nekazaritza, arrantza, elikagai politika, kontsumoa, ingurumena, hezkuntza...).

Elikagai kateko operadoreak

Nekazaritzako elikagaien katean parte hartzen duten sektore publiko edo pribatuko erakunde eta antolakundeak (elikagaien lehen mailako ekoizpenetik kontsumitzaileengana heldu arte).

Ikerketa eta teknologia zentroak, unibertsitateak, etab.

Gizarte erakundeak.

Era berean, Mahai Operatiboa sortu da. Mahai hori elikagai xahuketarekin lotutako eremuetan esperientzia teknikoa (zuzena edo zeharkakoa) duten pertsonak osatzen dute, haien izenean edo erakunde publiko edo pribatuen ordezkartzan. Mahai Operatibo horren funtzio nagusia plataforma eta lantalde zehatzak koordinatu eta gidatzea da (ikus hurrengo atalak). Mahai Operatiboak jarduketa plana garatzea eta bertan proposatzen diren jarduketa ildoak dinamizatzea bermatuko du. Lehengo bileran, honako hauek osatu zuten Mahai Operatiboa: Eusko Jaurlaritza (nekazaritza eta abeltzaintza, Gipuzkoako Lurralde Zuzendariorde), IHOBE (ingurumena), HAZI (estatistika eta analisisa), AZTI (jasangarritasuna), Gipuzkoako Foru Aldundia (ingurumena), Gasteizko Udala (osasuna, enplegua eta garapen ekonomiko jasangarria), Donostiako Udala (ingurumena), Urban Erika (UPV-EHU), Auzolan (Kolektibitateentzako errestrukturazioa), Euskadiko Elikadura Klusterra, Gipuzkoako ostalaritza enpresarien elkarte, Euskadiko Kontsumitzaileen Elkarte eta ELIKA (elikagai segurtasuna).

2 ERRONKAK ETA HELBURUAK

Proiektu hau martxan jartzearen helburua da Euskadin xahuketaren diagnostikoa diseinatu eta abiatzea, urtez urte errepikatu ahal izateko, EBk ezartzen duen moduan.

Diagnostikoa honako erronka zehatz hauekin diseinatu eta gauzatuko da:

1. Elikagai xahuketa neurtu eta kontrolatzeko Europako zuzentarauak betetzea.
2. Elikagai xahuketaren arazoa bolumenen, kostu ekonomikoen eta kostu sozialen arabera dimentsionatzea.
3. Xahuketa horiek sortzen dituzten inpaktu industrial, ingurumen inpaktua eta inpaktu soziala ebaluatzea.
4. Elikagai xahuketa sortzen duten foku nagusiak identifikatzea.

5. Neurketaren kalitatea bermatzea, elikagai xahuketari eta euskal estrategiaren eraginkortasunari dagokienez.
6. Xahuketaren benetako iturri eta arrazoiak xehetasunez zehaztea.
7. Xahuketa tokian tokiko mailan eta kateko maila ezberdinetan murrizteko ekintzak ezartzea.

Plan honek elikagai xahuketaren inguruan dituen xede espezifikoak:

	Jatorria	Azpikorronea	Xede espezifikoak
OS2	2018/851 Zuzentaraua	Biohondakina eta elikagai xahuketa	Elikagai hondakinen per capita sorkuntza % 50 murriztea 2030erako eta % 25 2025erako, 2015. urtearekin alderatuta

3 PLANIFIKATUTAKO EKINTZAK

3.1 Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzak Elikagai xahuketaren kontrako plataformako lantaldeetan parte hartzea eta, beraz, baita jarduketan zabalpenean parte hartzea ere

EJISek Euskadiko Elikagai xahuketaren kontrako plataforman parte hartzen du, sortu zenetik parte hartu ere, Ihobe sozietate publikoaren bidez, eta bertan garatzen diren ekintzetan laguntzen du. Besteren artean, EAEn sortzen diren biohondakinen barruan dagoen elikagai-xahuketa zenbartzeko metodoa hobetu nahi denez, gai horren inguruko alderdi zehatzetan lan egingo da, hau da, kontabilitate datuaren kalitatea hobetzen.

a. Kate osoan elikagai xahuketaren karakterizazioa egiteko metodologia ezartzea

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentaraua osatzen duen erabakian (Batzordearen erabaki ordeztuan) zehazten den bezala, elikagai hondakinak berdin neurtzeko metodologia komunari eta gutxieneko kalitate betekizunei dagokienez. Hori dela-eta, elikagai katearen maila guztietan, xahuketa neurtzeko metodologia bat ezarriko da.

3.2 Elikagai xahuketa kontrolatu eta murrizteko proiektu pilotuak, tokiko mailan

Dirulaguntza programa zehatzen bidez, elikagai xahuketa murrizteko ekintzak garatzeko programa zehatzak abiatuko dira tokiko mailan (Urduñako BERRINGURUMENA proiektua).

b. Elikagai xahuketaren inguruko sentsibilizazio kanpainak

Eusko Jaurlaritzaren Elikagai Xahuketaren Aurkako Plataformako gainontzeko kideekin herritarrak sentsibilizatzeko kanpainetan parte hartzea, xahuketaren sorkuntza gerarazteak duen garrantziaz jabetu daitezten. Urtero hondakinak prebenitzeko egiten den astearen barruan, ekintza eredugarriak identifikatu eta sustatuko dira.

21. ERANSKINA

**OLIOEN
HONDAKINEN
INGURUKO
ESTRATEGIA ETA
JARDUKETAK ETA
PCB-AK**

1 AURREKARIAK ETA DIAGNOSTIKOA

Olio erabiliak (udalarenak ez), EAEn sortutako hondakin arriskutsuen lehentasun ordenan, hirugarren korrantea dira. Industriako olio erabilien sorkuntza % 24 igo da 2010etik hona.⁶⁸

Olioien birziklapen tasa % 89koa da, eta balorazio guztia⁶⁹ % 92koa. Beraz, ez da % 95eko berreskurapen xedera (balorizazio material edo energetikoa) eta % 100eko energia balorizazioaren xedera heldu.

2018an, birsorkuntzaren ehunekoak (R9 tratamendua) % 52koa izan zen, 2008tik aurrera ezarritako % 65etik gorako helburua baino baxuagoa.

ERRONKAK ETA HELBURUAK

Korrante honekin lotutako xede espezifikoak *6.1 Planaren helburu espezifikoak* atalean jasota daude, baina eranskin honetan ere nabarmenduko ditugu, argitasunaren mesedetan:

20. TAULA. PLAN HONEK *INDUSTRIAKO OLIO ERABIEN* INGURUAN DITUEN XEDE ESPEZIFIKOAK

	Jatorria	Azpikorrantea	Xede espezifikoa
54. HJ	679/2006 Errege Dekretua	Industriako olio erabiliak	% 65 birsortu
61. HJ	679/2006 Errege Dekretua	Industriako olio erabiliak	% 95 berreskuratu
62. HJ	679/2006 Errege Dekretua	Industriako olio erabiliak	% 100 balorizatu

⁶⁸ Olio industrialen LERen kopuru guztiak hartu dira kontuan, hondakin batzuek ura ere eduki arren.

⁶⁹ Sorkuntzari buruzko ehunekoak kalkulatzeko, LER batzuen olio kopuru balioetsia hartu da kontuan. LER horiek deuseztapen tratamendu orokorra izan badute ere, olio zatiaren tratamendua balorizaziotzat jo da.

Erronkak

Hauek dira 2030 epealdirako erronkak:

- Olio hondakinak edo hondakinen olio edukiaren sorkuntza murrizteko teknologia hobeak ezartzea.
- Zenbaketa hobetzea, olioien azken helmugak eta tratamendu mota zehatzago ezagutzeko, hondakinen lege berriko LER banatuetan oinarrituta eta, beraz, lege helburuen betetze egoera zein den jakiteko.
- Olioiei buruzko legezko helburuak betetzen direla bermatzea
- EAEn deuseztatutako/suntsitutako PCB gailuen % 100 dokumentatzea.

21. TAULA. 2030EKO HPKPAREN JARDUKETA ILDOAK ETA JARDUKETA ZEHATZAK, INDUSTRIAKO OLIO ERABILIEN ARLOAN

Jarduketa ildoak	Industriako olio erabilien inguruan planifikatutako jarduketak
Hondakinak balorizatzeko bide berriak identifikatu, ikertu eta ezartzea, baita bigarren mailako materialentzako erabilera berriak ere (bilatu, ikertu eta erabilera berriak legeztatu)	I+G+b proiektuak sustatzea, sortutako olio kopurua murrizteko eta olio horren kudeaketa hobetzeko (olio edukia murriztu ondoren...)
Hondakin korronteen zenbaketa , trazabilitatea eta informazioa hobetzea eta ezagutza gehitzea.	Hondakin horien helmuga zehatzen trazabilitate sistema bat zehaztea (2022ko martxoa), hondakinen estatuko lege berrian zehaztutako R09 eragiketarako LER zabalduetan oinarritutakoa. EAEn deuseztatutako/suntsitutako PCB gailuen % 100 dokumentatzea.
Azpiegiturak , ahalmen tekniko nahikoa eta kalitate handiko prebentzio eta kudeaketa prozesuak	Olioien tratamendu instalazioak baimentzea, olioien inguruko agindu berrien irizpideetara egokitzeko.
Hondakinen alorrean praxi okerren kontrola, fiskalizazioa eta zigorra indartzea , ekoizpenari zein hondakinen kudeaketari dagokienez.	Alor honetako lege helburuak betetzea galarazten duten helmugako eragiketen lekualdaketei uko egitea.
Hondakinen proiektuen finantzazioan sartzea erraztea eta tresna ekonomikoak eta fiskalitate berdekoak garatzea .	Hondakin horiek sortzen dituzten enpresetan zentrifugatzaileak eta lurrungailuak ezartzea sustatzea, dirulaguntzei buruzko aginduen bidez.

22. ERANSKINA

LEHENTASUNEZKO KORRONTEETARAKO JARDUKETEN XEHETASUNA

- **Lehentasunezko korrante guztietan edo askotan eragina izango duten zeharkako jarduketak**
- Inbertsio plana eta ibilbide orria, isurketa gutxitzen eta zirkularitatea sustatzen duten lehentasunezko inbertsioei laguntzeko. (1. EKINTZA GILTZARRIA).
- EAEko isurketa autosufizientzia bermatzea 2030era arte, isurketa gutxitzearekin eta daudenak egoki ixtearekin batera. (2. EKINTZA GILTZARRIA).
- Hondakinen inguruko legeak garatzea (lege esparrua, erabilera berriak onartzeko eta isurketa debekatzeko dekretuak, etab.) (3. EKINTZA GILTZARRIA)
- Hondakinen isurketa eta errausketa eta agregatuen erauzketa zergak (4. EKINTZA GILTZARRIA).
- HPKP 2030 ezartzeko administrazioaren baliabideak gehitzea (5. EKINTZA GILTZARRIA).
- Erdibideko biltegirako instalazio publiko-pribatuaren irtenbide osoa eta agregakinak, lurzoruak eta bigarren mailako bestelako lehengaien kalitate kontrola eta egokitzapena egitea. (6. EKINTZA GILTZARRIA).
- Hondakin plastikoetarako eta hondakinok zabortegira ez desbideratzeko behin betiko konponbideei laguntzea. (7. EKINTZA GILTZARRIA).
- EAEko lehentasunezko hondakinetatik datozen bigarren mailako materialen EKPba sustatzea (8. EKINTZA GILTZARRIA).
- LAZak betez, hondakinen kudeaketako azpiegituren LPS garatzea.
- EAEko ekoizle eta kudeatzaileen IIBB kudeatzaile berrien eta berritze baimenetan gehitzea derrigorrezkoa dela 2 urtean sortutako hondakinen % 10 biltegiratzeko espazio egokia izatea.
- Hondakinen zenbaketa hobetzea eta gehienez ere ekitaldia itxi eta urtebetean argitaratzea, EAEko hondakinen mugimendu guztietan digitalizatutako trazabilitate tresna erabiliz.
- Bigarren mailako materialen CE markaketa sustatzea, borondatezko CE eta DIT markaketei buruzko arau berrietan oinarrituz.
- Bigarren mailako materialen ehuneko handia duten produktuen datu basea garatzea (eta CE markaketa, hala badagokio).
- EAEn gehiegizko edukiera duten hondakinak deuseztatzeko baimena ukatzeko kasuak definitzen dituzten irizpideen zerrenda osoa egitea.
- Hondakin izaeraren amaiera eskatzeko prozedura eta laguntza garatzea.
- Hondakinen kudeatzaileen kaudimen maila teknikoa hobetzea, EAEko hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko (hasierako irizpide zorrotzagoak).
- Hondakinen baterako inbentarioa jasotzea, estatistika eragiketa edo barne eragiketa estandarizatu bezala.
- EAetik eta EAera hondakinak eramatea ukatzeko irizpideak garatzea, plan honen helburuak betetzeari begira.
- Funtzionamenduan dauden hondakinen alorreko administrazio izapideen eraginkortasuna hobetzea (Ingurunet, Tramitagune, etab.).
- Zabortegiak finantzatzea bermatzeko bestelako moduak bilatzea Ogasun Sailaren beste tresna batzuekin (hala nola, pignorazio kontuekin eta antzekoekin).
- **Biohondakinen eta elikagai xahuketaren inguruko jarduerak**
- Konpostaje komunitarioaren dekretua eguneratzea, konpostajearen irteerak errazteko.
- Konpostaje komunitarioaren instalazioen jarraipena egitea 2 urtez eta konpostaren kalitatea gainbegiratzea.
- Konpostatzaile maisuaren titulazio ofiziala (edo antzekoa) garatzea.

- EKPbren lege irizpideak: konposta (2022)
- Konposterako erabilera berriak gaitzea.
- Biohondakinen gaikako bilketaren inguruko lege helburuak zabaltzea toki erakundeetarako (2022).
- Toki erakundeei helburuak betetzen laguntzea.
- Gobernuaren Elikagai Xahuketaren Aurkako Plataforman parte hartzea.
- Elikagai xahuketaren adierazleak garatzea eta biohondakinen zenbaketara sartzea.
- Lankidetzaren eta kontzientziazio hitzarmenak ezartzea, elikagai soberakinak aprobetxatzeko.
- HKKOn 2021erako aurretratatamendurik gabeko udal hondakinen zabortegeko biltegia deuseztatzea lantzea.
- 851/2018 Zuzentaraua estatuko ordenamenduan ezartzeko agirietako irizpideak zehaztea, R eragiketarako esleitzeko tratamenduaren kalitatearen arabera. HKKOn lantzea EAEn sortutako bioegonkortu GUZTIAREN balorazio energetikoa eta zabortegea bideratzea.
- **Ontzien jarduketak (kategoria guztietan),**
- **Hondakinak prebenitzeko eta ontzien berrerabilpena eta kalitate handiko birziklapena sustatzeko jarduerak egitea, SDDR sistemen ingurumen, gizarte eta ekonomia analisia eginez, eta, hala badagokio, hedatuz. (9. EKINTZA GILTZARRIA).**
 - Edarien ontzi arinak birziklatzeko SDDR sistema hedatzea (kudeaketa-zentroa), EAEn birziklatzeko dauden SDDR sistemei buruzko ingurumen, ekonomia eta gizarte arloko bizi zikloaren azterketa egin ostean, eta sartuta dauden eragile guztiekin harremanetan egotea (hondakinen bilketa kudeatzen duten administrazio publikoak, saltokiak, ontziratzeko enpresak, banatzaileak, SCRAP, kontsumitzaileak, eta abar). Beira eta bestelako ontzi berrerabilgarriak berrerabiltzeko SDDRa hedatzea, HORECA sistemaren bidez (garagardo upelak, PETezko upelak...) edo amaierako kontsumitzailearen bidez, ingurumen, ekonomia eta gizarte arloko bizi zikloaren azterketa egin eta proiektu pilotuak egin ostean.
- Ontzien edukiontzia materialen edukiontzi bihurtzeko aukera aztertzea, EJren eta foru aldundien arteko lankidetzaren proiektu pilotu batetik abiatuta.
- Bideragarria bada, hondakinen autonomia erkidegoko legean birziklatzeko SDDRa jasotzea eta edarien ontzietarako derrigorrezkotasuna ezartzea.
- Ontzien sailkapen instalazioetatik ateratako materialen amaierako kudeaketaren kontrola indartzea, hurbiltasun, autosufizientzia eta gardentasun printzipioetan oinarrituz.
- Toki erakundeek egurrezko merkataritza ontziak (2025) eta egurrezko ontzi industrialak (2025) jasotzeko derrigortasuna ezartzea. (hondakinen legea)
- Solteko kontsumoa sustatzea.
- HoReCa lokal publikoetan edari ontzi itzulgarrien erabilera sustatzea (alternatibarik ez badago izan ezik).
- Jabetza publikoko ostalaritza establezimenduak ustiatzeko baldintza agirietan ingurumen baldintza berezi bezala ezartzea ontzi berrerabilgarriak erabiltzeko derrigortasuna.
- Enpresentzako dirulaguntzei buruzko aginduan ontziak (edarietarako ontziak nahiz bestelakoak) berrerabiltzeko azterlanetarako laguntzak eta ontziak garbitzeko instalazioetarako eta galautsa galtzea ekiditeko ekipoetarako dirulaguntzak sartzea.
- Eragileen artean ontzi arinen zenbaketa hobetzea (EJ eta foru-aldundiak). HHen zenbaketan plastikozko poltsen helburuen jarraipena gehitzea.

- Ontziak berrerabiltzeko sistema baten bideragarritasun tekniko eta ekonomikoari buruzko autodiagnostiko azkarraren eredia proposatzea.
- Txikizkako salmentako sektorea bezala funtsezkoak diren eragileekin borondatezko erabakiak ezartzea, ontziak berrerabiltzea eta ekodiseinua sustatzeko eta birziklagarritasuna hobetzeko. Derrigorrezko gutxieneko eta gehieneko helburuak dituen protokoloa ezartzea, enpresei Basque Ecodesign Hubaren bidez lagunduz.
- **Itsas zaborraren eta sakabanatutako zaborraren inguruko jarduketak:**
 - *"Itsas zaborraren plataforma" sortzea plangintza koordinatzeko eta jarduketan eta emaitzen jarraipena egiteko.*⁷⁰
 - *Makroplastikoen / mikroplastikoen bidezko itsas kutsadura monitorizatzeko sistema bat ezartzea.*
 - *Itsasoan, kostaldean eta ibaietan plastikoak biltzeko lankidetzak ekimenak garatzea (Ekoetxeak, toki erakundeak, GKEak...)*
 - *Itsasotik eta kostaldetik berreskuratutako plastikoen birziklapenari buruzko azterketak egitea.*
 - Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak diren portuei laguntzea, itsasoan arrantza aparailuen hondakinak eta bestelako hondakinak jasotzeko.⁷¹
 - Arrantza eta urtar sektorean erabiltzen diren materialak murriztu, berrerabili eta birziklatzeko proiektuetan laguntzea (arrantza sareak eta poliestireno hedatua).
 - Hiru lurralde historikoetan itsas zaborra eta sakabanatutako zaborra zenbatzeko sistema bat garatzea eta zaborra arrantzatzean nahiz itsas zaborra eta sakabanatutakoa biltzean jasotako objektuei buruzko EAEko datu basea sortu eta mantentzea.
 - *Ardura duten eragileekin batera, itsas zaborraren arazoan sartuta dauden sektore eta erabiltzaileei zuzendutako prestakuntza programak sustatzea.*
 - *URArekin eta aldundiekin batera, ibaien eta saneamendu-azpiegituren bidez (batez ere euria egiten duenean), zabor ekarpenen prebentzioan lan egitea eta euri urak kudeatzea, hondakin solidoen banaketa bermatzen duten sistema eta azpiegitura egokien bidez.*
 - EAEko portu guztietan hondakinen erregulazioa sustatzea, ontziek sortutako hondakinak jasotzen dituzten portu instalazioei buruzko 2019/883 Zuzentaraua ezarriz, eta aurreikusitako pizgarriak beste batzuekin osatzea, arrantzaleek arrantza aparailuen hondakinak jasotzea sustatzeko.
 - *"Zabor arrantzako" jarduerak eta ibaiak, hondartzak, flotagarriak eta azaleko itsas hondoak (baita sakabanatutako zabor fokuak ere) garbitzeko jarduerak sustatzea, finantzatzea eta profesionalizatzea, natura ingurunean (itsasoan nahiz lehorrean) zaborra pilatzen duten eta identifikatu diren lekuak garbitzeko kanpainak barne.*
 - Itsas zaborreko plastikoak birziklatzeko irteerak bilatzea, finantzazio ildoan orientazioaren bidez.
 - Arrantza industriako plastikoekin fabrikatutako materialen erosketak publiko berdea edo merkatua sustatzea.
 - Arrantza aparailuen ekoizleekin lan mahaia osatzea, SCRAP sektorialaren aurreikuspenen.

⁷⁰Letra etzanarekin idatzitako jarduketak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak gidatuko ditu. Azpimarratutako jarduketak Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Industriako Sailak gidatuko ditu. Gainerako jarduketak martxan daude edo EAEko beste eragile batzuk garatuko dituzte.

- Banatzaile handiekin hartutako borondatezko erabakien bidez, soltean saldutako produktuak, ontzi berrerabilgarriak eta ontzi birziklagarriak sustatzea (birziklagarriak ez direnen aurrean), birziklatze tasak handitzeko. - Litteringa murriztea eta natur guneak garbitzea sustatzea (portuekin eta bestelako eragileekin itsas zaborra jasotzeko lankidetzak kanpainak...).
- **Ehunen, tamaina handikoen eta etxeko hondakin arriskutsuen inguruko jarduerak:**
- **Herritarren esku dagoen amiantoa jasotzeko plan bat egitea (egiturazko zuntz-zementuaren bilketa eta kudeaketa) foru aldundiekin eta Osalanekin batera (2022) (10. EKINTZA GILTZARRIA)**
- Ehunak, tamaina handikoak eta etxeko hondakin arriskutsuak biltzeko betebeharrak sustatzea, delako udalerrri/mankomunitate/kuadrillaren arabera (kategoriak zehaztu ondoren eta zuntz zementua barne hartuta), udalerrri guztietan (hondakinen legea). Herritarrentzako ordainketa solidarioa baloratzea.
 - Tamaina handiko hondakinak uzteagatiko zigorrak handitzea eta ikuskaritzan eragile gehiago sartzea.
 - EAEko eragileekin harremanetan jartzea, haiek trebatzeko eta laguntza mekanismoak identifikatzeko, ekodiseinua eta konpongarritasunerako nahiz balorizazio materialerako diseinua barne hartuz, ehunen eta tamaina handikoen SCRAP baten aurreikuspenean, zuzentarauen arabera jardunez.
 - Garbiguneak egokitzea, berrerabiltzeko prestaketan laguntzeko (2025).
 - 2030erako UHen % 10 berrerabiltzeko prestaketara bideratu behar dela helaraztea toki-erakundeei (adibidez, berrerabiltzeko prestaketaren inguruko kudeatzaileei kontratuak eginez) eta gaikako bilketaren tasak lortzea. (Hondakinen legedi garapena).
- **EEHein lotutako jarduerak**
- **Erdibideko biltegiarako instalazio publiko pribatuaren irtenbide osoa eta agregakinak, lurzoruak eta bigarren mailako bestelako lehengaien kalitate kontrola eta egokitzapena egitea. (6. EKINTZA GILTZARRIA).**
- Euskal EEHen araudia berritzea (dekretua eta agindua), erabilera berrietara zabaltzeko. Kudeatzaile berriak baimentzeko gutxieneko irizpide teknologikoen eranskina sartzea, eskatutako materialaren kalitateak betetzeko.
- Agregakinen erosle handiekin borondatezko erabakia ezartzea, erosketa pribatu berdearen arloan.
- EEHTik datozen bigarren mailako materialen CE markaketa sustatzea.
- EEHen “Aurrezten” sartzea, Inguruneten hondakinen moduluan.
- HISER eta ICEBERG proiektuen emaitzak sartzea, hautatutako eraisketa hobetzeko, obran hondakinak prebenitzeko eta hondakinok produkzio zikloan berriz sartzeko.
